

Pedro Juan Etxamendy

California'ko bertsolari eta musikari





Pedro Juan Etxamendy
(1914-2002)

Pedro Juan Etxamendy 1914eko Otsailaren 18-an sortu zen, Udirienia baserrian, Ondarrola kartierrean. Auzo hori Arnegikoa da berez; baina Luzaidekoa elizaz.

Horregatik, berak dion bezala: «ene eskolak politikako eginak ditut Frantzian, erreligionenak aldiz Espainiako aldirian».

Arnegiko Mathilde Kurutxet zenarekin ezkondu zen 1944an, eta hiru seme-alaba ukan: Mathieu, Anne Odile eta Mike.

Ipar Amerikara joan zen 1950-ean, Montana'ra lehenik eta ondoren California'ra, urterik gehienak Barstow hirian eginez.

Berak bertsu batean dionez: «beti zor dauka hiltzea sortzeak». Berak 2002-ko urriaren 26-an pagatu zuen zor hori, larogei ta zortzi urterekin.

**California'ko
bertsolari eta musikari**

Auspoa Liburutegia

288

ETXAMENDY, Pedro Juan

California'ko bertsolari eta musikari / Pedro Juan Etxamendy ; hitzaurrea eta argitalpena, Joxe Mallea Olaetxe. – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza, 2004.

295 or. : argk., mus. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 288)

Aurkibidea

LG SS 514-2004. – ISBN 84-7907-446-9

I. Mallea Olaetxe, Joxe. II. Gipuzkoa. Dirección de Cultura, ed. III. Título. IV. Serie.

821.361-1"19"

© Pedro Juan Etxamendy-ren ondorengoak

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea

Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 84-7907-446-9

Legezko Gordailua: S.S. 514/04

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Pedro Juan Etxamendy

**California'ko
bertsolari eta musikari**

**Hitzaurrea eta argitalpena:
Joxe Mallea Olaetxe**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza
Dirección de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2004

Pedro Juan Etxamendy (1914 - 2002)

Ataritxo

Amerikan bizi garenok sarri ikusten dugu gure euskaltasunari atzerrian zer gertatzen zaion: edo berpiztu egiten da edo itzali. Aldatu gabe ez du irauten. Euskal Herritik ekarritako kultura osorik mantentzea ia ezinezkoa izaten zaigu, eta hizkuntza izan ohi da lehenbizi makaltzen hasten den atala. Bertan Amerikan sortutako euskaldunen artean askok euskara gutxi dakite, baina adizue, gero! Zu ta ni bezain euskaldun senditzen dira.

Beraz, hitz berri bat asma beharrean gaude Amerikan bizi diren euskal jende asko definitzeko. Euskaldun senditzen gara, baina euskaraz hiru-lau hitz bakarrik dakizkigu. Beraz, zer gara gu? Amerika Mendebalean “basko” hitza asko sartua dago, baina “euskoa” ere hor dugu. Aspaldiko artzain batek Californiako arbola batean marratu zuen hitz hori; eta, aurkitu eta irakurri nuenean, txit egokia iritzi nion. “Basko” bezain neutrala ta orokorra. (Hain zuzen, “basko” nondik datorkigula uste duzue?).

Hori horrela, euskaldun senditzea eta izatea ez da gauza bera, Pedro Juan Etxamendy’k errango zuen bezala.

Sorterrian

Pedro Juan Etxamendy (berak Etxamendy idazten zuen) sustrai zahar zindoan landatutako arbola genuen. Goitik behera, kanpo ta barne euskaldun, Iparralden sortua eta halabeharrez Amerikako lurrera aldatua. Arnegi’ko Udirienian ikusi zuen argia 1914. otsailaren 18n.

Bere aita Beñat Auski zen, Etxeberria bordako semea. 1902n Beñat Estatu Batuetara artzain lanera joan zen eta

1906n San Francisco'ko lurrikarean Agirre Hotela sutan erre zelarik, han zeuzkan ondasun guztiak galdu zituen. Amerikatik itzuli eta Arnegi'ko Bastilia bordako Mari Ttipi Etxamendy'rekin ezkondu zen. Orduantxe Beñatek Auski deitura utzi eta Pierre Etxamendy bere aitagarrebaren deitura hartu zuen. Beñatek eta Mari Ttipik hiru seme izan zituzten: Manex Jean, Mixel eta Pedro Juan. Bazuten arrebaterdi bat ere: Ana.

Manexek esku musika (soinu diatonikoa) erosi zuen, baina baita hartaz aspertu ere aurki, eta Pedro Juani utzi zion. Gure mutikoak hamabi urte izango zituen soinuarekin praktikatzen hasi zenean; eta musikaz zaletu zelarik, Manex Urruty, herriko musikariaren eskolara joaten hasi zen. Honen bitartez tronpeta eta soinu kromatikoa jotzen ikasi zuen, eta baita're musika irakurri eta idazten. Musikagailu hok jotzen trebeki ikasi zuenean, inguruko beste musikariek bildu eta banda bat paratu zuten, eta herriz herri ibiltzen ziren bazterrak alegeratuz, nunahi jai, eztegu, edo bestaren bat zegoenean. Etxamendy'k anitz urtez Garaziko orkestan partea zeukan eta beste zenbait taldetan ere jotzen zuen.

Hamar urtetan Pedro Juanek hiru atz galduak baitzituen lehergailu batekin, bere musikari kideek batzuetan adarra jotzen zioten, baina errespetua inoiz galdu gabe, zeren Pedro Juan musikari bikaina baitzen. "Pedro Juanek musika bizi bizirik zeukan bere baitan", dio bere alaba Anne Odile'k. Hala ere, berak honela esaten omen zuen handik urtetara:

–Musikari izaiteko, erdia mentsa behar da, eta bertze erdia ere ba.

Urte batzu geroago, ohiko musikaz aspertu bide zelarik, konposatzen hasi zitzaigun, zein ezteguetan eta herriko festetan ematen zuen. Horietako bat "Ondarrola" deritzaion arinarina da, bere sorlekuaren omenez paratua.

Bere joan-etorriak 500 zentimetro kubikodun *Terrot* frantses motor batekin egiten zituen, hori baizen bere ibilgailu bakarra.

Eguraldi ona zein txarra, han zihoan gure Pedro Juan, bere soinua lepoan, herriz herri eta mendiz mendi jendeari umore ematera. Behin, ordea, apez batek igandeko mezan Pedro Juan eta bere musika kondenatu omen zituen. Nahiz eta apezak inoren izenik aipatu ez, herritar denek zekiten –Etxamendy’k berak ere bai– nori buruz aritu zen. Pedro Juan gizon jinkozale izan arren, bere musikari etzion inongo gaitzik ikusten eta jotzen segitu zuen. Hain zuzen, urte batzu geroxe-ago, apez bat baino gehio etorri zitzazkion eske, musika elizan jo zezan.

Etxamendy’k frantses armadan zerbitu zuen 1935n, eta 1940n alemanek Frantzia okupatu zuten; baina, halare, Etxamendy zegoen lurraldea ez. Bera eta beste gutxi batzuk bazuten libertate muga pasatzeko eta Luzaiden igandetako meza entzuteko. Horietako batzuetan izpi lanetan ere ekin zion. Bizikleta-auspo barnean sartuta, izkutuan, gutunak pasatzen zituen gero elizaren izkutuan frantses “satorrei” emateko.

Guda bukatu gabe zegoela, 1944n Arnegiko Mathilde Kurutxet hartu zuen emaztetzat eta honekin hiru seme-alaba izaki: Mathieu, 1945n sortua, Anne Odile, 1948n, eta Mike Californian 1953n sortua.

Halako batean Pedro Juan eta bere anaia Manex Ezpeleta’-ra aldatu ziren eta hango zerran lanean hasi. Lan latz samarra eta batzuetan arriskutsua ere. Behin, hain zuzen, olez zamatutako kamioi batean zihoaztela, galgak huts eman eta ixtripua izan zuten, nahiz eta zauri arinakin onez atera ziren biak.

1946 urtean-edo, Etxamendy’k hara-harako soinu bikain bat enkargatu eta erosi zuen.

Amerikarantz

Musikari fina izan arren Pedro Juan ohartu zen ezin zuela hortik bizimodua egin, musikariek ezbaiztuten zahartzaroko pentsiorik ere. Horregatik, maiz Amerikara joateko ametsa

izaten zuen buruan, baina etzen erreza, kuota edo imigrazio kopuruen gorabehera gatik. Halako batean, ordea, aukera etorri zitzaion eta etzuen atzera egin. Etxean sosa aski bazuten aita Amerikara joateko eta urtebeterako behintzat ama Mathilde umeekin gelditzeko. Lanik aurkitzen ezbazuen, berriz Euskal Herrira itzuliko zen. Hori zen plana.


Pedro Juan erbestera zihoala jakitean bere lagunak goibeldu ziren arren, 1950n *Queen Mary* untziko lehen klasean itsasoratu zen, bere anaia Mixel eta beste sei euskaldunekin. Haietako batzuk itsasoan mariatu ta gorputzez kaxkar ibili ziren, Pedro Juan eta enparauak, berriz, lasai lagunartean musian hordagoka bapo.

New York'ko Ellis Island'era iritsiaz bat, Billings Montana'ko bere lagun John eta Isidora Etxamendy'ren laguntza jasozuen, John senide baizuen bere aitatxi-orde Etxamendy'ren aldetik. Billings herrian, Howard Billings'endako artzain lanetan eman zuen urtebete. Euskaldun gutxi zeuden Montana'n, Miles City'n gehienak, hegoaldera zegoen beste herri batean. Montana'n hotz galantak egiten ditu neguan –Canada ondoan baitago– batzutan minus 24 gradu ere, baina kuraiaz han ibili zen gure gizona, naturak zekarrena hartuz.

Esnegintzan

Montana'tik California'ra aldatu eta Los Angeles aldean dagoen Chino'ko Pete Lohmann holandar esnedun batekin behijeizle jarri zen. Tokiaz laketu baitzen, denbora gutxi barru, 1951n urtean, Mathilde eta umeak hantxe Chino'n berarekin elkartu ahal izan zuten. Umeak oraindik gazte ziren, eta Mathew'k dioen bezala, aitaz etziren oso ongi gogoratzen.

Mathew'k eskolara joateko adina zeukanez, aitak zenbait kontseilu eman zizkion Amerikari eta amerikanoei buruz; adibidez, inglesez hitzegiteko patata bat sartu behar zela ahoan. Istorio hauek entzunda Mathew gaztea izutu egin zen; eta, eskolarako lehen eguna heldu zenean eta aitarekin eta osaba Mi-



Pedro Juan Etxamendy.

xelekin 1937 urteko Chevrolet batean eskolarantz abiatu zirelarik, Mathew'k beldurrez kotxetik salto egin zuen. Anaia biak kostata harrapatu zuten mutil koskorra eta nekez eskolara eraman.

Esnetegiak ordu anitz eskatzen baitu, Etxamendy lotuta bizi zen eta egun luzeak ematen zituen behijeizten, baina bere soinu berezia sekula ahantzi gabe.

Asteburuetan, berriz, euskaldunen artean ospakizun bereziren bat gertatzen zenean, han ikusiko genituen gure Pedro Juan eta bere soinua. Mathiew eta Anne igandetaz gogoratzen dira bereziki, aitaren opor eguna baitzen; Kotxean sartu eta ibiltzen ziren fruta edo patata biltzen; edo Chino'ko *Centro Basco*'ra edo hango eta La Puente'ko pikinietara joaten zirenean, aita soinua jo bitartean anai-arrebak beste euskaldun neska-mutilekin jolasten zuten alaiki berandu arte. Etxamendytarrak ziren beti etxerakoan azkenak.

Ordurako Pedro Juan musika biltzen hasia zen han-hemenka, baita Hego Amerikatik ere, eta anitz gauetan pratikatzen zuen bere soinua, seme-alabak entzule zituela. Zenbait aldiz musikaren adi Mathew loak hartzen zuen bertan ohe gainean. Bizitza aski ona zen, baina mundu hontan gauzak beti aldatzen dire. Etxamendy'k topera zeraman bere bizimodua eta zenbait urteen buruan arazoak ekarri zizkion familiaren eta osasunaren aldetik. Beraz, bere soinua saldu egin zuen eta aurreratutako sosekin 1953 urtean behi batzuk erosi eta The Fawn Guernsey Dairy zeritzan esnetegi ttipi bat alokatu Chino'ko East End Avenue'n. Hirugarren haurra, Mike / Mixel, urte hartan sortu zen.

Mathiew, zaharrena izanik, esnetegian ibiltzen zen aitaren lagun, esnea bonbilatzen, irazten, edo 40 litroko hontzi ugerkaitzak betetzen, zeinak Pomona Valley Creamery'k erosten zituen. Esne kopuru bat herrian saltzen zuten, *Cash and Carry* (Paga ta Eraman) dendan, non Mathiew, zuriz jantzita, arduradun egoten zen. Mathiew'k behar zuen esnea bonbila-

tu, bonbilak garbitu, eta salmenta dirua maneiatzen zuen. Horrez gain, 40 litroko 15 bat ontzi kamionetan ezarri eta bigarren graduko esnea lez saltzen ahalegintzen ziren gaztategietan etab. Mathiew pozik ibiltzen zen 1948 Ford kamioneta hartan, aitak mutil bati erositakoa. Atzean tubo bi zeuzkan eta karrerako kotxearen burrundara egiten zuen. “Cool hot rod” (burdin beroa) zela esaten du Mathiew’k.

Aitak ezezik, amak ere bazuen zereginik: behiak esnetegira ekarri, presiozko urez errapea garbitu, negozio kontuak eramane, eta horrez gain etxe ta sukaldea. Fameli osoak hartzen zuen esnetegi lanetan parte, eta Pedro Juan txit kontent eta arro zegoen negozioa xuxen eta argi ta garbi zeramatelako.

Mathiew zen aitaren laguntzaile baserri lanetan eta oraindik ere urte haietako oroitzapen finak ditu gogoan. Honatx gertakizun bitxi bat, berak, Mathiew’k, kontatu bezala:

«Garai hartan gure behiak eta beste baserritar batzuenak zelai haundi batean elkarrekin bazkatzen ziren, eta zerbitzu horrengatik guk astero honenbeste ordaintzen genuen. Zelaiak bazituen 25 hektarea gutxienez, eta ilundu baino lehen geure behiak bereizi eta etxera ekartzen genituen. Lan hori errezteko, zelaiaren alderdi batean gorta zegoen, non behiak biltzen genituen aiseago bereizteko eta gero kamioetan zamatzeko.

Iluntze batez behin, aita ta biok behi biren bila joan ginen, beste 60 edo 70 behien artean zeudenak. Gure aurrean itzain batzuk, bakeroak, ikusi genituen, berekin trailer bi, lau zaldi, eta kamio bat eta txoferra zeukatela. Sei itzain zebiltzaten lau behi kamioan zamatu ezinik. Guk ezin genuen ezer egin haiek beren lana bukatu artean, eta hantxe gelditu ginen haiei so adi-adi. Han zihoazten lau zaldizko, behiak gortarantz zuzendu nahirik; baina, zirudienez, behiek etzuten zelaitik aldegin nahi, eta etzuten gortan sartzeko asmorik ere. Buztanak tente, hasi zihoazten zelaietan zehar korrika, atzetik lau zaldizko, uju ta xixtuka. Ordubete horrelaxe ibili ondoren, azkenean behiak nekatu ziren eta derriorrean gortan xerkatu zituen. Ordurako

itzainok izerditan eta arnegatuak zauden, eta hartu akulu elektrikak eta behi gaisuak arrapaladan sarrerazi zituen kamioan.

Gure aitak ikusi zuenean ganaduek hartutako tratua, aberezale izanik, haserre samar zegoan, ongi zekielako tratu txarrak behiei kalte egiten ziela eta gero esne gutxiago emango zutela.

Dena den, beren lana bukatu zutenean, itzainak guregana etorri ziren, han zertan ginen jakin nahirik. Agian gure itxura bitxiaz interesatu ziren, zeren ni hamabi urteko txotxo bat nintzen eta aita berriz, bere mokor artritikoakin, sor zebilen. Berriek aizatutako behitaldetik bi bereiztera etorri ginela erantzun genienean, barre algarak egin eta kamioian sartu ta joan ziren denak, bi ezik. «Zaldirik gabe behiak harrapatu?» zioten irrika.

Aita ta biok joan ginen zelaian barna, ta lehenbizian behiak bereala izutu ta igesi ziguten. Baina gu lasai. Aitak ingurura begiratu, hartaz eta hontaz solas ari zen, denbora pasa lez. Belardian jarrita egon ginen piskat, behiei begira eta haien konfiantza irabazteko. Gero altxatu ta geldiro-geldiro zelaian hara ta hona hasi ginen, baina ganaduengana zuzenean joan gabe. Horiek horrela, azkenean behiak guri so jarri zitzaizkigun, gu nolako animaliak ote ginen jakin nahirik edo. Geroxeago bi edo hiru behi, belarriak tente, gureganantz hasi ziren poliki poliki. Orduan aitak esan zidan behiak edukitzeko horrela kurios, eta ea ene ondotik erakarri ahal nituen gortarantz. Bitartean bera joan zen gortako ataka zabaltzera.

Ni lasai asko nenbilen zelaian, belar multso bat eskuan hartuz edo beste zerbaitekin jolasten, behiak kurios edukitzeko. Pixkanaka behi gehiago ikusten nituen neri so eta neregana hurbiltzen. Aita han atakan zain zegoela ohartu nintzenean, nik eurt egin eta poliki poliki gortarantz hasi nintzen... eta behiak ondotik! Hori ikusi ta nik oinak piskat bizkortu nituen, eta behiak bere apatxak. Denak zuzen nere ondotik zetozten, eta sinist zazue, halaxe denak gortan sartu zirela. Behien ondotik gortako atea ertsi eta bestea iriki genuen, gure behiak ezik besteak berriz zelaira joan zitezen.

Zortzi behi zeuden gure behiekin batera. Aita joan eta pikapa atzetzaka gortan sartu zuen eta behiak oraindik lasai samar zirudien. Aitak pikaparen edo kamionetaren atzeko ataka iriki eta alfalfa eskutada bat jarri zuen gainean. Umeak goxokira bezala, behiak alfalfaren usainera hurbiltzen hasi ziren. Gure behia ezbazen, emeki emeki uxatzen genuen handik eta gureari eman paso.

Pikapa barruan, behiak burutik lotuta geldi edukitzeko, burdin askak zeuden eta han aitak artua jarri zuen behien tenagarri. Horrelaxe pazientzi piska batekin gure behi biak bere kabuz sartu ziren pikapa barnean. Bitartean itzain biak han zeuden ahobete hortz. Tranparen bat egin genuela pentsa zuten agian, baina gu, geure behiak batere algararik gabe pikapan sar eta etxerantz abiatu ginen. Itzainak han utzi genituen, parregiteko gogoia joanda».

Horra Mathew'k gogoan duen istoriotxo bat, esatekoa baita izan ere. Pedro Juanek ere baditu konduak errateko eta bere behi hildako bati jazotakoak emango dizkigu gero bertsoz.

Esne lana bizimodu txarra etzen, baina egun luzeak eta egunero gauza bera egin behar etenik gabe. Musikak ere Etxamendy'ri bere orduak kentzen zizkion, eta horrela, hiru bat urte geroago, California'ko Mojave eremuan dagoen Barstow hirian esnetegi zahar bat erosi zuten. Konpondu beharra zeukan, esi berriak, eta beste anitz txukun eta garbiketa, eta horietan Mathiew eta Mixel Mutuberria urepeldarra aritu ziren frango azkar. Aita zen materialen erosle, hortarako begi ona baitzeukan: gobernuaren gerrako hondakinak zirela, edo Santa Fe trenbidetako trabesak, zein Bigarren Gudako Japoinarren Barrutitik reziklatutako olak zirela, gauzak beti prezio onean erosten zituen. Mathiew Etxamendy'k dio aitagandik ikasi zuela tratuan, gaur berak teknika horiek erabiltzen baititu bere lanean, Aireko Armadan eta Washington Public Power konpainian multi-milioiko tratuak sinatzen dituenen. Jendea tratatzen ere aitagandik ikasi omen du Mathiew'k, behiak zelaian nola eskuratu zituen ikusita.

Barstow'ko esnetegiak abantail haundi bat zeukan, alegia, esne guzia Knudsen Creamery'k erosten ziela. Beraz, etzuten gehiago bonbilarik bete behar, ez eta aterik ate esne saltzen ibili. Orduan gauzatu zen Pedro Juanen aspaldiko ametsa, hots, negozio on baten jabe izatea, eta halan esaten zien bere seme-alabei.

Zoritzarrez, aldi hartan, artritis gaitzak Pedro Juan gogorki eraso zuelarik, mokor ezur berri bi jarri zizkioten, lehen aldiz 1965n, eta 1989n bigarrenenez. Bertsoa ere egin zuen hortaz noizbait. Iadanik 1972n bere esnetegi lanari utzi ta jubilatu egin zen lasaiago bizitzeko eta musika lanari ordu gehio dedikatzen. Urte bi lehenago berak eta Mathildek Euskal Herriari bisita egina zioten, hogeitertan joan gabe baitziren. Bigarren bisita 1975n egin zuten.

Esnetegi lana utzi zuenean Pedro Juan'en bihotza melan-koliak atakatu zuen. Horrelako zerbait somatzen zaio 1979n bere adiskide Beñardo Lapeyre'ri egindako bertsotan (ikus 132 or.). Honelako beheraldiak poxi bat alegeratzeko, Mathew'k Victorville herrira eramaten zuen, bigarren eskuko dendetan astia eman zezan. Etzen gauzak erostea gatik, baizik eta horrelako dendetan tratu egitea libre delako; eta gure Etxamendy'ri hori gustatu, alegia. Behin tronpeta bat aurkitu zuen eta baita erosi ere. Etxera ekarri eta hura jotzen ikasten pozik aritu zen, eta semea ere pozik noski. Urte bi geroago, 1977n, ezbehar latza jasan zuten, Mathilde batbatean hil baizen, Pedro Juan arras penatua utzirik. Etzen gehio Euskal Herrira joan, Amerika baitzen orain bere lurraldea, non aurkitu zituen bizitza egiteko aukera ta askatasuna.

Kulturaren alde

Emaztea hil eta laster txistu jotzeari ekin zion gogotik. Zenbait urtetan Reno Unibertsitateko Basque Studies Program'ean aritu zen neska-mutil koskorreri uda eskola irakasten. Urte hauetan baita're bertso liburuak irakurtzen ari-

tu zen eta dizkan grabatutako gazte denborako kanta zahar-
rrak entzuten.

Etxamendy'k bazuen abildadea, eta doinua entzunez gero, edozein musikagailurentzat musika trebeki para zezakean. Horrela, esan dezakegu, musika "berria" sortzen zuela. 1980 hamarkadan hainbat bertso sailkatu eta haiei musika ezarri zien, Chino'ko Mariana Etxeberria laguntzaile zuela. Lan hau Basque Studies'ek argitaratuko zuelakoan edo, Jose Antonio Arana Martijak egin zion kritika, baina azkenean etzuten publikatu eta Pedro Juan desilusioak jota geratu zen.

Lan baliotsu hau etzen ordea alperrikakoa, zeren 1994n Teddy Keeton andreak euskal musika kontserbatzeko diru pis-
kat bildu ahal izan zuelarik, Etxamendy'k paratutako zazpi-
rehun musika zati bere bertso ta guzti Idaho'ko Filer herriko
Arts Archives and Research Center'en artxibatu zituen. Boi-
se'ko Euskal Museuak ere ba omen du kopia. Musikazale
biak ongi hartu zuten elkar, eta bai Keeton eta bai Etxamendy,
pozik gelditu ziren lortutako emaitzarekin.

Barstow'n ezpaitago euskaldunik aski, Pedro Juan Chino'-
ko herritarrekin biltzen zen. Hogeitahamar urtez Chino'ko
euskal klubekidea izan zen. Hain zuzen, klubeko Ohoreko
Bertsolaria eta bertso paperen egile genuen, zeinak urtero eus-
kal jaiean kantatzen ziren. Urte anitzez berak bertsoak taiutu
eta kantatu egiten zituen; baina ahotsa ahuldu zitzaionean,
Chino'ko bere adiskide Joseph Almirantearena'k kantatzen
zituen. Bertso hauetan ageri zaio Etxamendy'ri bere euskal-
dun odolaren sendoa ta kulturaren eta ohitura zaharren aldeko
bere garra. Ageri zaizkio ere bere ideia maiteenak, bertso
hauetan baitaude errepikatuak.

Nornahi etxekoen urteburu, besta edo adiskideen ospa-
kizun berezi edo oraigarriren bat inon izaten zenean, Pedro
Juan genuen bertsogile Californiako alde hontan, urte anitzez
izan ere.

Pedro Juanen soinua

Zenbait aldiz aspaldiko euskaldun ezagunak inguratzen zitzaizkion “Pedro Juanen musika aditzera”, gauza jakina baitzen. Horrelaxe pasa ziren Californiako urteak. Behin 1994n, larogei urte bete zituelarik, Chino’ko bere adiskideek ustegabeko besta bat eskaini zioten. Besta hortan Pedro Juanek bere bizitzako sorpresarik haundienetako bat hartu zuen, bada berrogei urte lehenago bere adiskide Mike Bidart’i saldutako bere akordeoi maite hura, honek omenez bihurtu zion.

Esango dizuet bada hau nola gertatu zen. Pedro Juanen soinu ederra Chino’ko euskal jatetxe batean egon zen salgai luzaro samar. Egun batez Bidart’ek ikusi zuen eta konturatu norena zen. (Izan ere, Bidart plazer haundiz egoten zen Pedro Juani begira, euskal jaietan soinua jotzen zuenean). Beraz, Bidart’ek soinua berehala erosi zuen, egun batez bere jabe zaharrari bihurtzeko asmotan. Hain zuzen, 1994’ko besta hura baino aukera hoberik etzegokean horretarako, eta Bidart’ek egun hortan Etxamendy’ri bere soinu zaharra eskura eman zion. Eta ez hori bakarrik, bertsuak ere paratu zizkion eta baita kantatu ere, biak berak. (Ikus Bidart’en bertsoak 159 orrialdean). Urte hartan Chino’ko euskaldunek ezezik North American Basque Organization erakundeak ere Pedro Juan’en lan baliosa ohoretu zuen “Bizitza Emankorra” Saria eskaini ziotelarik.

Urte berezia huraxe gure Etxamendy’rentzat. Umea zapata berriekin bezain arro, lorian zegoen bere aspaldiko Cavagnolo soinuarekin. Goitik behe, kanpo ta barne, orrazketa bat soinuari eman eta zeuzkan akats txiki guztiak konpondu zizkion. Musika modernoa idazten ere hasi zen, bere iloba Matthew’rekin batera jotzeko asmoz. Han egoten ziren biak Pedro Juanen bulegoan edo musika aretoan Beatles’en kanta eraberrituak entseiatzen, aitatxik bere soinua eskuan eta ilobak bere kitarra.



Udirienia baserria.

Horrelaxe urteak aurrera. Azken aldera nahiago zuen musikan baino musian ari. Lau muslariak hauek ziren: Mike / Mixel bere semea, Isaac bere biloba, eta Sylvia Pile auzoko adiskide bat. Halako muslari bikotea osatzen zuten, Pedro Juan eta Mixelek!

Heriotza

Etxamendy'ren azken hogeitabost urtetan Mixel bere semea Barstow'n bizi zen, aitagandik beti hurbil. Semearen laguntzak bihotza pozten zion eta esan dezakegu Pedro Juanek, bere artritis eta guzti, bizitza luze emankorra gozatu zuela.

Herriko medikuaren zainpean egon arren, etzioten minbizia sasoiz harrapatu eta horrek eraman zuen azkenean ere lurpe-
ra. Jainkoagan fede sakona baitzuen, borondate onez onartu
zuen eritasun hilkorra, eta otoitzetan eman zituen bere azken
egunak. «Mixel dugu etxeko saindua –dio bere arreba Anne
Odile’k–. Ama hil zenean, bera izan zen Barstow’n aitaren
ondoan gelditu zena. Aita eritu zenean, berriz, egunero joaten
zitzaion ikustera, ezer behar zuen jakitera».

Behin, gaizki zegoen azken egunetan, Mathiew’k gortan
sartu zituzteneko behien istorioa gogarazi zion, eta gure
bertsolaria oroitzen ez. «Aita, etzera gogoratzen?» galdetu
zion Mathew’k. Laster aurpegian irriño bat ageri zitzaion:
«Bai, bai». Semeak irriño hura buruan itsatsia dauka gaur
ere.

Etxamendy’k bertsoz behin hauxe esan zuen: «Beti zor
dauka hiltzea sortzeak» eta berari ere heldu zitzaion eguna la-
rogei-ta-zortzi urterekin, 2002. urriaren 26n. Orduan ixildu
zen California’ko gure olerkaria, nekerik gabe kulturaren alde
aritu izandako gizon euskalzale eta musikaria. Munduan hiru
seme-alaba utzirik eta bost iloba: Renee eta Isaac Etcha-
mendy, eta Aaron, Matthew, eta Pilar Sanchez. Pedro hil eta
lau hilabetera jaio zen Elija Inouye Sanchez.

Anne Odile’k dio bere aita gizon ona eta maitakorra zela
eta euskaldunen artean bere lana ezagutzera ematea merezi
duela. Hain segur, hortan denok bat gaude.

Joxe Mallea Olaetxe
Center for Basque Studies/322
University of Nevada
Reno, Nevada 89557



Lehengo soinulari lagun zaharrak.

Ezkerretik: Antton Pierresteguy, Dominique Germain, Luis Goyenette, Antonio Jazz, P. J. Etxamendy eta Beñat Arrossagaray.



Pedro Juan Etxamendy eta Matilde Curutchet-en ezkontza,
Arnegin, 1944 urtean.

Hitz Bi

Euskara ta Bertsoak Ipar Amerikan

Hainbat euskaldun joan zen Estatu Batuetara –inork ez daki zenbat– baina Ipar Amerikako arboletan marratuta dauden izen guztiak irakurriko bagenu, asko ikasiko genuke. Zeren, artzain gehienek lertxunetan utzi zituzten beren izenak, nahiz eta zoritxarrez gehienak bildu gabe dauden eta bildu baino lehenago desagertuko diren seguraski. Izenak bakarrik ez zituzten utzi, bestelako kontuak ere ba: mixeriak, bakartasuna, uruntasuna, etab. Mendian plazer gutxi aurkitu zuten, neke ugari bai, eta lagunik batez.

Adibidez, hara hemen 1920 hamarkadan Californiako mendietan artzain batek bere lagunei emandako bertso bi:

Zonbat urrats eman 'tut nik Ameriketan
zer toki trixtiak diren nago pentsaketan
beti ardiekilan mendi penosetan
batere karparik gabe denbora xarretan.

Zer bizi trixtia den artzainen bizia
ni nihaur egoiten naiz arras harritia
hortan desegiten da eskualduneria
hala nola baitugu eskola handia.

Arrazoiak dira horiek. Historilariak, ordea, ekintza loretsuak publikatzen dizkigute gehienbat, denok pozik eta konforme geratu gaitezen, nonbait. Bertsolarien emaitza irakurtzen dugularik, konturatzen gara haien ikuspuntua beste mundu batekoa dirudiela: alegia, mundu berrikoa, Amerikakoa, eta ez Europakoa. Besterik da etxean gelditu denak idatzi duen historiaren ikuspuntu historikoa. Baina egia esan, historilari gutxik ezagutu zuten artzainen bizimodua, ezta urrundik ere. Zorionez hori da bertsolariak kantatzen digutena eta ahozko historiak bermatzen duena.

Trixtia da historilariak ez dutela bertsoz irakurtzen, eta behar zuten, zeren, bertsolari hauek gehienak emigranteak izanik, beren begiz ikusitakoak kantatzen dituzte, gertatu bezala. Historilariak, aldiz, beste norbaitek idatziak errepikatzen dizkigute gehienbat.

Haundia da horixe, bertsoz inork ez irakurtzea historia idazteko. Gure historilariak erdaratik edan dute Euskal Herriko historia idazteko, euskaratik baino askoz gehiago. Hori aldatu beharrean gaude, zeren, bertsolariak ez du penetan bakarrik kantatu, ez. Badaki goxotasuna eta amodioa zer den. Badaki adiskide baten neurria, eta badaki lorak dastatzen. Makailu xaltxa zer den daki batez ere. Bertsolaria ez da historia-
ren jantzia arduratzen, baizik eta arimaz. Bizien bihotza xuxen ukitzen daki.

Bertso sobera ez da kontserbatu, baina irakurri ditugunak aski dira ohartarazteko Amerikara joatea etzela erromeria. Askok eta askok gorriak ikusi zituzten itsasoan. Halare, euskaldunak alegrantzia du maite eta Amerikako lurra ikutu orduko hasten zen kantuz eta bertsoan. Gaur Ameriketara bizi garenok oraindik tradizio eder horiek jarraitzen ditugu. Nahiz Californian edo Nevadan gaudela, afari eder baten ondoan, ia beti hasten gara abesten asko gutxi. Eta maikoen artean bertsolariak dagoenean, hobe.

Ohitura hauek ez dira gaurkoak eta uste dut lehen ere berdintsu izango zela, hamaseigarren mendean hasita behintzat. Halare, ni Latin Amerikako historialaria izan arren, nere historiako irakurgaietan ez dut bertsoen arrastorik aurkitu, hemeretzigarren mendea arte. Honek ez du esan nahi bertsoz irakurtzea kantatzen edo etzegenik, edo gure mintzoa hila zenik Ameriketara. Euskarazko gutun zahar luzeena zerbait gatik idatzi zen Mexico'n 1537. otsailaren 15n. Eta idazlea etzen nornahi, lurralde hartako lehen apezpiku Joan Zumarraga halajaina.

Zumarragak izan zituen jarraileak noski. Nik esango nuke euskara Mexicotik ipar aldera bizi izan dela azkarren, Mexico

eta Canada tartean dauden Mendebaleko eremu amaigabeen babespean. Guk geuk ezagutu ditugu Estatu Batuetako arrantxuetan hainbat euskaldun ume ingeles etzekitenak eskolara hasi arte. Nere iloba John Inixio Yzagirre, herrian bizi izan arren, horietakoa zen eta gaur ere «euskerie» parra parra daki (bere anai gaztea Louie ere mintzatzen da euskaraz, baina gutxiago). Kolonia mendeetan Zacatecas, Durango, Sonora, Chihuahua, New Mexico, Arizona, eta California aldeko arrantxu horietan horrelako etsenplu ugari aurki zitezkean seguraski.

Lurralde hedatsu hoietan, alegia, Mexico ta Ipar Amerikako mendebalean, aurrelari ibili ziren hainbat euskaldun, Durangoko Frantzisko Ibarra hasita, 1560 hamarkadan «Bizkai Berria» eraiki zuelarik¹. Bera izan zen lehen gobernadore eta bere ondotik etorri ziren Frantzisko Urdinola bezalako gobernadore ospetsuak. 1598n Juan Oñatek New Mexico'raino eramane zituen hainbat famili, ardi, behi, hazi ta zaldi, han kolonia berri bat finkatzeko. Gero hemezortzigarren mendean Sonora aldean, beste askoren artean, Juan Bautista Anza aita-semeak sonatuak izan ziren. Mexico'n sortutako semerik zaharrenak ez zekien erdararik, garai batean behintzat, Donald Garate historilariak dioskunez. Eta ikerle honek polliki frogatu duenez, Anza zaharraren garaian, Bernardo Urrearen arrantxuan haritzak zeuden toki bateri «Haritz ona» esaten zioten eta hortik datorkio gaur EE-BB'etako Arizona estatuari bere izena. "Arizona" horren inguruan zegoen ere, eta dago, Arizpe Mexico'ko hiria. Han ere haritzak, alegia.

Hauek denak ikusita, ez gara harrituko Los Angeles, Californian 1880-1890 epean bi astekari aurkitzea osoki euskaraz emanak. Bostehun urtetan egon dira euskaldunak Amerikan eta kontinente guztian, baina Californiako euskaldunak –iparraldekoak– izan ziren marka hau egin zutenak.

¹ Garai hartan askok Euskal Herriari «Bizkaia» esaten zioten, eta euskaldunei «bizkaitarrak» edo «vizcaínos».

Eta piskat harritzekoa da, zeren, denok dakigunez, EE-BB'etara etorri euskaldunak baserritar eskolagabeak zirela gehienbat. Horregatik joan ziren ardira eta ez beste lanera. Ez dakiguna da, aberri mina eta kultura zaharra ekarri zutela berekin, eta tarteka bertsolariak ere bazirela Californian.

Horrek esplikatzeko du nola 1885n *Escualdun Gaceta* sortu zen Los Angeles'n, Martin V. Biskailuz'en eraginez. Abokata izanik, editorea bihurtu zitzaigun euskararen alde, eta nahiko lan egin ondoren, *Gaceta*'ren hiru ale ateratzea lortu zuen. Abentura hori 26 dolar kosta zitzaizkion, eta azkenengo alean irakurleei hau galdetu zien umore txar samarrean: «Nahi dusia Escualdun Gazetak segi desan ala es?»² Hantxe amaitu zen harena, baina ondotik J. P. Goytino azaldu zen eta 1893n *California'ko Eskual Herria* argitaratzen hasi. Lau orriko astekari honek 1898ra arte iraun zuen. Laugarren alean bertsoak publikatzeari ekin ziolarik, urteen zehar ehundaka bertso argitaratu zituen irakurleen gozagarri. Mota askoko bertsoak daude eta merezi dute argitara ematea. Goytinok zioenez, bere papera zen euskarazko bakarra mundu osoan —eta egia zen gainera—. Californian horrelakoxe gauzak gertatzen baitira.

Hogeigarren mendean Boise, Idaho, ere hasi zen euskal kulturaz interesatzen, baina bertsoen arrasto gutxi aurkitzen dugu. Reno Nevadan ikastunen mintegia paratu zenean, Nevada Univertsitateko Gorka Aulestia bertsozaleak zenbait liburua eta artikulu publikatu zituen. Berriki publikatu duen liburua badira zenbait orrialde hogeigarren mendeko artzain bertsoei buruz, baina Californiako bertso paperik edo hemezizigarren mendeko bertsozik ez du aipatzen.³

² Vol. 1, No. 3, Urtharrilaren 16an (Los Angeles, California, 1886): 1.

³ Gorka Aulestia, *The Basque Poetic Tradition*, Foreword and Translation by Linda White, (Reno & Las Vegas: University of Nevada Press, 2000).

Pedro Juan Etxamendy'ren Kulturgunea

Etxamendy'ren maitasun haundiak hauek ziren: Euskara, Euskal Herria, bertso/musikak, familia eta Jainkoa. Bertso paper egile porrokatua zen eta bertsoei bere musika jartzen zien. Norbaitek erran zidan bat-bateko bertsoak ere eman ahal zituela, baina ahots makala izaki nunbait eta etzuen hortan segi.

Etxamendy'ren bertsoak irakurtzen hasi nintzenean, haren euskara xarmegarriaz ia txoratu nintzen. Hizkuntz zorrotza bezain argi ta garbia, gramatika aldetik paregabea. Gaur egun nik eta beste askok nahi izango genuke Etxamendy'k bezain ongi idaztea, baina hizkuntza baino zailagoa da beste zerbaite: hark bezala euskaraz pentsatzea. Etxamendy'ren pentsa-moldeak gaurkoak ez direlako, haren eskutik jalgi den euskarak ehun urteko benetako altxorra dirudi.⁴

Esango dut zergatik: Urteak dira EE-BB'etako artzain zaharrak Euskal Herritik atera zirela, gehienak 1950 hamarkadan, batzuk lehenxeago, besteak geroxeago. Garai hartan baserri inguru asko t'asko oraindik hutsik euskaldun ziren, mendien babespean laborantzan ari zirelarik. Irratia gauza berria zen, telebistarik etzegoen, eta gaurko komunikabideen uholdea etzen oraindik senditzen. Mendiak eta ibarrak, baserriak, ziren euskararen muga babesle ta segurrak. Mundu hortan sortu ta hazi zen Etxamendy eta kultura hori gorde ta bizitu zuen California'n, beste artzain askok bezala. Baserri kultura hori European zendu ta gero Californian eta EE-BB'etako mendebalean bizi da oraindik izoztua bezala. Mundu hori eduki zuen Etxamendy'k.

Geroztik gertatu dena –erdarak babes guztiak hautsi eta ezurretaraino sartzea– hemen Ameriketara bizi garenok kontu-

⁴ Baserrian jaiotako elebazarrok pozten gara azken urteotan euskarak eman dituen urratsak ikusita, baina gaurko euskaldun askoren euskarak ez du garo usairik eta beldur naiz bere soinu zaharra betiko galdu ote duen... Agian hala behar du, baserri usaina galdu eta kalekoa irabazi. Bizikera berriak hizkuntza berria eskatzen du nonbait.

ratzen gara Euskal Herria bisitzatzera goazenean. Kanpoan bizi denak somatzen ditu aldaketak, eta orain etsenplu bat jarri nahi dut, ni sobera mintzen nauena: Euskaldunek *euskaraz ari direnean* euskal abizenak erdaraz oguztea. Gaur egun Zumarraga, Zunzunegi eta holakoak andaluzak bezala “Zzzzumarraga” oguzten dituzte Euskal Herrian. Ez al da egia?

Ongi asko gogoratzen naiz gure amak gaztelarren “zzz” hori inondik ere ezin zuela atera! Euskal Herrian bizi zaretenok ez zarete agian konturatzen, oguzkera hauek egunero entzuten ohituak zaudetelako. Baina ni bezalako “kanpotar” bati belarrian takatekoa ematen dit. Zer gertatu da bada?

Denbora gutxian pentsakerak ezezik oguzkerak ere aldatu egin direla Euskal Herrian.

Etxamendy’k ordea euskal pentsakera ezezik belarria ere bazuen eta bertso hauetan ageri diren hitzetatik igarriko diozue berehala. Honelako bertsorik inork ematen ote du gaur Euskal Herrian? Ba ote da inor abildade hori duenik?

Etxamendy’ren filosofia zaharra da. Familian sendoki sinesten zuen, Euskal Herrian, euskarari, erludioan, eta euskaldun oroen anaitasunean, eta hori kantatzen du.

Bukatu baino lehen eskerrak eman beharrean nago. Etxamendytar senideekin zorretan gelditzen naiz, zeren borondate osoz eman didaten Pedro Juani buruz informazio guztia. Bertso hauek denak Martxel Tillous, Californiako xiberutar eskualdun apezaren eskutik jaso nituen, eta berak Etxamendytarren gandik.

Esker mila, Aita Martxel eta California’ko Etxamendytarrak.

Honekin, has gaitzen Pedro Juan’ren bertso airos hunkigarriak dastatzen.

Joxe Mallea Olaetxe

Center for Basque Studies/322

University of Nevada

Reno, Nevada 89557

Bertso sailak

Euskaldun odola Ameriketean

Airea: (7)

Ibiltzen dut askotan zenbait pentsaketa:
nolakoa den Norte Ameriketa;
hunat jin nintzan Euskal Herria utz eta,
izan nuelarikan zerbait errekesta;
 Euskal jende kasta,
 ona ta onesta,
 laguntzaile presta,
ni ere lagundu, dudarikan ez da.

Oraintxe zerbait erran beharrez nabila,
gogoan dut gure euskaldun odola:
Euskal Herritik noizbait hazia jin zela,
hemen ari hedatzen iduri arbola;
 nik banu ahala,
 Jainkoak bezala,
 jakiteko nola
sartu zen Amerikan gure odola.

Euskal herrietarik etorri haziak
frutaz betiak ditu bazter guziak;
euskaldunen ume ta umien umiak
aunitz bazterretarat dira hedatiak;
 giraden guziak,
 gizon ta 'maztiak,
 zahar ta gaztiak,
euskal odolez tugu zainak betiak.

Nor ote ziren nago usu pentsaketan
lehen euskaldunak sartu leku hotan;
bazutela kuraia dudarik ez ukan,
kontrarioak zuzten bazter guzietan:
 indio edo Satan,
 egunaz t'atsetan
 etsaiak orotan;
euskaldunen kontra oro debaldetan.

Eremu haundietan orai bagabiltza,
Ameriketako euskaldun arraza,
lehenikan jin zenak kus ahal balitza,
heier eskerrak orai bizi modu gaitza;
 zonbat zen bortitza
 orduho bizitza
 batek kus baleza,
doloretan jar litzaioke bihotza.

Gure odol huntarik zainetan dutenak,
mundu guzian dabilzan euskaldunak;
nahiz Euskal Herritan dauden gehienak,
beti lotzen batzuer joaiteko minak;
 gure Jainko Jaunak
 ez gaitu eginak
 guziak berdinak;
bainan zeruan hartzen denen arimak.

(1976)

Euskaldunak gira

Airea eta hitzak: P. J. Etxamendy (88)

Ameriketean gira bainan gira euskaldunak,
euskara guri erakutsi aitak eta amak;
euskaldun ohidurak dira sano eta onak,
horiek guziak guretzat aberastasunak.

Dantza, kantu, soinua eta musa ta pilota,
horiekin batian beste asko joko mota;
lanian ere euskalduna hoberena baita,
elgarri'iten dugu ere lagundu ta maita.

Baliosa duguna ere da gure mintzaira,
bazter guzietan euskaraz jeloskoan dira;
euskara mintzatu gostuan ta atxiki gora,
euskaltasunaren arima hura da euskara.

Neure bizi-manera

Airea: (32) edo (115)

(Etxamendy'k bertsu hauek idazkera zaharrean idatzi zituen, alegia, othoi, orhoit, choko, gaicho, alchatu, choriño, jakitate, etab. Nik gaurko erara jarri ditut.

Goakin eta Guan, horrelaxe idatzi zituan.).

Lehen aldikotz pertsuño batzu behar duztala moldatu,
hastera noa eta Jaunari laguntza diot galdatu;
ez dut suieta haundia bainan otoi guziek barkatu,
zer maneretan dutan bizia orai artian pasatu,
oroit naizen hau zonbait bederen nahi nituzke kondatu,
tra la la la tra la la la, nahi nituzke kondatu.

Herri ederra dago Luzaide, Adartsa mendi azpian,
Ondarrola'ko xoko maitea deraukala bertzaldian;
mendi aldeko etxe batian, Luzaideko par parrian,
ama gaixoak erran zerautan adina jin zautanian:
«Hementxetan haut eman mundurat otsail baten erditsian»,
tra la la la tra la la la, otsail baten erditsian.

Gure eliza Luzaiden baita tente potente egoiki,
Don Goakin Zaragueta zen orduan apez nagusi;
hark bataiatu omen ninduen urez burutik beheiti,
samurtua ere jarria omen, nigarretik ezin geldi,
izenetako eman zerautan Pedro Guan Etxamendy.
tra la la la tra la la la, Pedro Guan Etxamendy.

Pestaz hanturik aita ta amak, handik goiti zonbait urtez
batzuetan lo, bertzetan irriz, bertze batzuetan nigarrez,
girstinoki altxatu naute berek etsenplu emanez;
elgarrekilan zeruan daude enetzat otoitz eginez
mandatu hori ekarria daut xoriño batek bi hitzez,
tra la la la tra la la la, xoriño batek bi hitzez.

Ene eskolak politikako eginak ditut Frantzian
errelisionienak aldiz Espainiako aldian;
hamek'urtetan jakitaterik aski nuela nunbaitan,
eta bertzalde gibelatuak ere etxeko lanetan,
utzi nituen eskolak eta lanean hasi hantxetan,
tra la la la tra la la la, lanean hasi hantxetan.

Bekatu ttipi batzuek ere beharko ditut aitortu:
ihizin eta arraintzan eta pilotan banuen gustu;
jantzan plazetan eta musian ere ardura aritu,
musika ere jotzen bainuen Euskal Herrian kurritu,
azkenean jin zautan burura behar nuela ezkondu,
tra la la la tra la la la, behar nuela ezkondu.

Dakizuena hantxet dagola frantses-español frontera,
guarda eta karabinero han baitzabiltzan ardura;
jaun horiekin ez nintzan beti akort joaiten sobera,
elgar tronpatu beharrez ere arizan gira ardura,
trago batentzat juntatzen ginen halare elgarretara,
tra la la la tra la la la, ginen halare elgarretara.

Ameriketan palataraka nola nahi biltzen sosa,
gizontto batzu mintzo zirela, aditu nuen solasa;
nola urdeak gose delarik ezkurrarekin amentsa,
handikan goiti aritu nintzan ni ere pentsa ta pentsa,
zer gertatu zen errain dautzuet orai fite eta ontsa,
tra la la la tra la la la, orain fite eta ontsa.

Ni arribatu Ameriketan bihotza alegerarik,
pala ere atzeman bainan harekila etzen dirurik;
ohartu nintzan utzi nuela gauzatto bat ahantzirik:
Eskual Herrian neure gogoa batere uste gaberik,
ni aspaldian hemen naiz bainan hura han dago geroztik,
tra la la la tra la la la, hura han dago geroztik.

Aditua dut kantu xahar bat lehenago beharrira:
«munduko eskualde guzietan toki onak omen dira
eskualdunen bihotzak dio zoaz Eskual Herrira»;
neriak ere galdegiten daut gauzaño hori ber bera,
esperantza dut, bai, konplitzia, berandu gabe sobera.
tra la la la tra la la la, berandu gabe sobera.

(1970)

(Príncipe de Viana, 1972-X)

Sorgin jantzaren kantiak

Garazin eta Luzaiden
nik uste gazteria berdin den:
jauzi jantzan aisa iten,
norbaitek soinua badu jotzen.

Euskaldun jauzi fandango,
eta horiekin bertze frango;
deusetan baino jantzan hobekiago
badakite, dudarik ez dago.

Gero biharamunian,
lanerat joan behar denian,
kintal bat karga burian
eta hiru kintal ipurdian.

Ohetikan ere ez ditaizke jeiki,
indarrikan ez dutela aski;
lanian ere bortxaz eta emeki,
herrestaka, poliki poliki.

Finala:

Nexkato eta mutil jantzariak
dira oro elgar iduriak;
zaharrek duzte orai ahantziak;
bainan hek etziren hobiak.
Jantza beraz oneski gogotik gaztiak,
gero ez egoteko penatiak. (*bis*)
 Gora in jauziak,
 altza ipurdiak.
inharrosiz zuen trastu guziak!
 Gora in jauziak,
 altza ipurdiak!
Biba, biba eskualdun gaztiak!

Pedro Juan

Airea: (21)

Beha zaitezte ongi zer erraiten duan,
jakin ez dauketala josteta goguan;
nola janez bizitzen baita Pedro Juan,
mendian bizi eta herrirat nindoan,
etxerat ekartzeko zerbaiten ondoan.

Nolazbeit suerte txarrak behi gaixo bat hil,
ohartu nintzen hantxet, bidetikan hurbil;
ondorat joan eta han bazterrak umil,
zinaurri bat bakarrik inguruka dabil,
ni partitu herrirat, prisaka bainabil.

Etxerat itzultzeko hartu bide berak,
ongi antolaturik herrian aferak,
adixkidiak utziz ostatuian berak,
ez baitu on egiten jan edan soberak;
errain ditut serio bideko manerak.

Han kusi nuen berriz goizeko behia,
oraino're hila zen, dudarik gabia;
bainan gertatu zena da mirakulia:
beste alderdian zen pasturik bidia;
zinaurria ote zen horren egilia?

Gauza hori kusi ta puxka bat izitu,
«sorginak baituk hemen», behala pentsatu;
ostatuian utziak bi lagun argitu,
lasterka joan eta diotet galdatu:
«laguntza xerka nabil, otoi, ni segitu!».

Behar zuztela kusi aferak hobeki,
Enaut Kalboarekin jin Pilale Ttiki;
gizon entendituak, nor nahik badaki:
«Pedro, zuk soberaxko edan duzu naski
behi hau hilez geroz hor da segur aski».

«Pedro Juanek ez du, ez, izan beldurrik,
kausa serioetan erraiten gezurrik,
eskuin t'ezker zoin diren badakit segurik.
Ikus hor ezkerrian duenak begirik;
behitikoan eskuin zen, ez dauket dudarik».

Enaut eta Pilale dena jakitate,
zernahi xehetasun han eman dautate;
berek ikastiaren beharra badute,
eskuina ta ezkerra zoin den ez dakite,
zerbait ikas lirate enekilan fite.

(1980 hamarkadako agian)

Ahetzeko Mattin

Airea: (12) edo (43)

(Hau da, ene gustuz, Etxamendy'ren bertsoarik punterengoa. *Ahal dena* Mattin zenaren lehen bertso liburua izan zen. *Auspoa*-k agertu zuan, 1972 urtean, bere 108 zenbakian. Liburu hori eskuratutakoan, Etxamendy'k bertso hauek jarri zituan).

Mutil gazte ttiki bat, boz fier batekin,
bertsu emaiten ari entzun nuen behin;
xori hori nor zagon bainuen galdegin,
erran zautaten zela Ahetzeko Mattin.

Kontrario bati so fermu eta segur,
ageri zuen etzen ez kexu, ez beldur;
errepostuia fite, zorrotz eta labur,
nahi zuena bake, nahi zuena samur.

Jadaneko Mattin'en bertsutako karra
ohartu nintzen fite etzagola txarra;
bertsua heldu nola sutikan pindarra,
etzauzkatela eskas gatza ta biperra.

Nere zortia zer zen konprendi dezagun:
Euskal Herrietarik igorri nau urrun;
Mattin'ez oroituta halaik ere egun,
nere gogoan han da ta ez beste nihun.

Nik Mattin kusiz gero, pasaturik dago
mende laurden bat eta poxi bat gehiago;
ordian gazte ginen, bainan hortan bego;
haren berri jakinik plazerretan nago.

Ahal den bezala dut bildu *Ahal Dena*,
liburu ttikitto bat Mattin'ek egina;
lehenago kusia gazte ta lerdena,
orai kaskoa zuri, eman derait pena.

Lehen irabazia xapel bat polita,
kanpeon zen bertsutan, hura jauntzi eta;
galdua ote duen nago pentsaketa,
zeren kusten diotan burian boneta.

Anixko bertsulari badut aditurik,
bainan halere guti haren parekorik;
arno ona hobetzen zahartzen delarik,
Mattin ere hola da, ez daukat dudarik.

Entzun nuen gaztian berdin ona zela
hegaldun horietan, bertsutan bezala;
neure buriari so, egin dut karkula
hortan ez dohakela arnoa bezala.

Arranguran Mattin'ez pentsatzen arizan,
ikusteko plazerrik ez dezatan izan;
otoitz eginen diot Jaunari elizan,
elgarrekin zeruan biak ezar gaitzan.

(*Príncipe de Viana*, 1975-I)

Nahaskeria eta duda

Airea: (115)

“Duda” hitzaren ondoan Etxamendy’k beste hiru hitz jarri zituen, hots, “gossip” (inglesez), “chisme” (gaztelaniaz), eta “comere” (frantsesez).

Oraiko berso hauien suieta familia zahar bat da, zalu ta azkar dira ta baute beti laneko segida; zoin diren haurrak ta burhasoak etzazula neri galda oro berdinarak dira neretzat, onik ez dirot izenda; familiako izena dute *Nahaskeria ta Duda*.

Huna horien izen ttikiak deitzen ditugun bezala: «Hola entzun dut», «Jendek diote» ta «Solasa badabila», beste bat «Omen», beste bat «Naski» eta beste bat «Gisala», badakit ere lehen kusiak horiek badituztela; kanpotik orok iduri onak, usu barnia ustela.

Berdin egia dute batian, berdin gezurra bestian; zernahi berri nor nahirenak ttipitto batzu hastian, zalu kurritzen eta haunditzen dira gutien ustian; justiziaren beldurrik gabe dabilta gustu gustian eta aisaxka gordetzen dira kontrarioa kustian.

Malezian ta gezurrez bada norbait errekan emana, badakite ez daikela nihor atzeman gabe kondena; familiako menbro guziak dirade berdinarak: zalu dabilta, ez daizke ikus ta beti joan aintzina, eta ez daike nihon harrapa ez burua ez buztana.

Naski ez dute nahi izaiten arras ekendu bizia,
bainan aunitzi emaiten dute sekulako desgrazia;
emanez aunitz bihotz min, pena, ahalge ta tristezia,
hoben gabeko askok nigarrez egiten dute putzia,
eta nekez sendatzen da hoiek kolpaturikan utzia.

Familia horren bazkatzaile nor izaten dire ote?
Aitor dezagun guhaur girela, ba, gizon ala emazte;
horien mantenatzen hasi aintzin pensaketak in balite,
guri egin dezaten ausiki ez ginukeiela maite,
bainan mundu hau mundu dagono bizia segurra dute.

Batzu eta bertziak

Airea eta hitzak: P. J. Etxamendy (82)

Gizonak eta emaztiak,
izan zaharrak ala gaztiak,
batzu goxo eta eztiak,
bertziak gaixto eta trastiak;
batzuk egin nahi ongiak,
bertze batzuk egiten gaizkiak;
bainan segur batzu ta bertziak
hil artino bizitzen guztiak.

Batzuk dute soberakina,
bertzek aldiz ezin forni jana;
erran bezate nahutena,
serio da goseak dagona;
mundu huntan gazki doana:
nagusi beti aunitz duena;
batzuk nahi izaiten dutena:
berendako beti hoberena.

Batzu izanak dira gazte
ta beti hala direla uste;
bertzek nahiago lukete
zahartu gabe egon balite;
batzuk ezkondu nahi fite,
ezin ingurikatia dute;
gero haurrak jiten ziozkate
saski baten edo bien bete.

Batzuk uste zuten ezkontza
zela goxa eta ase pantza;
gero egitian bizitza
ikusten dute dela lan gaitza;
ta gero neketan dabilta,
behala egin behar dibortza;
hor seriosek badute xantza:
Jaunak emaiten heier laguntza.

Batzuk luze uzten bizarrak,
gero iduri dute akerrak;
batzuk duzte bizkar konkorrak
ta bertze batzu zango makurrak;
batzuk baduzte kara txarrak,
iduri dute sorgin zaharrak;
bertzeak bizios eta kaxkarrak,
alferrak eta usu moxkorrak.

Orai batzuri ta bertzeri
nahi diotet erran orori
kantu hunekin ziri-ziri:
araiz ez dut min egin nehorri;
esperientzia gidari
arizan naizela zaut iduri;
eginik irri ala beltzuri,
ene goraintziak guzieri.

(1993 ekainak 1)

Bixente eta Maria

Airea: (79)

Geure izenez deitzen gaituzte Bixente eta Maria,
lenago elgar maite ginuen bai izugarrikeria,
elgar jateko pundian nola arrain haundiak ttikia;
gero ezkondu ginen bai eta kanbiatu komedia.

Gure bizia ez dela ona orai gabiltzan moldetan,
Mariak beti kopeta ilun ni etxera ta atsetan;
ezkondu aintzin egin beharra berantegi nao penetan:
zertako diabru ez nuen, bai, jan hain maite nuen heietan.

Ezkondu aintzin errana nion: «Baditut zonbait bizio:
edatia ta andriak maite, aldiz lana dut hastio.»
«Horiek dira kalitatiak» ordian Mariak dio.
Orai nik egin ongiek ere deusik ez dute balio.

Barda ere ni sartu alegre, Mariak disputa haste:
«Orai ere zu beti bezala mozkorra zira, Bixente».
Nere afariak eta oro bota denak derrepente,
zartaina sutik hartuta in du ene burian bi parte.

Asko erranik badauket bainan bota gainerat hau ere:
biak zanpaka samurtu eta askotan aritzen gare;
gero ipurdiak elgarri so egoiten bakotxa bere,
bainan berriz behar ordu batzuz oro antolatzen dire.

Ondarrola

Airea: (12)

Ondarrola da lekia parerik gabia,
hobearen bila ez nehon abia;
alegera bizi da han beti jendia
eta azkarra dute gobernamendia.

Katedralia eta *Teatro Gayarre*
gorderikan dauzkate, bai eta behar'e;
hetan ez dute uzten arrotzik nehor'e;
ni uzten nute, hangua banintzan nihaur'e.

Trinketa ta eliza eta magasinak,
heiek ere eztira aisa atzemanak;
hortakotz nihaurk ere kusi ditut lanak,
makur nituelakotz karriken izenak.

Jaun erretora eta ere alkatia,
osoki neke dago heiek ikustia;
doktor bat ere bada, jakin dut berria,
sendarazten duena behala eria.

Kasinoa ere baute ta libre jokoa,
jokolariak onak erran gabe doa;
enseiatzen direla erraitera noa,
nahiz eta bipildu amerikanoa.

Zernahi erranta're biba Ondarrola,
ongi etorria han denentzat badela;
urrun bizi niz bainan errain dut behala:
iduritzen zaut beti hangua nizela.

Ondarrola'ko eliza

Airea: (15)

Badakigu Ondarrola
herri ederra dagola,
nahiz orai artean den egona frango gibela; *ja jai*,
orai goiti ari dela
erran beharrez nabila.

Geroztik hunat hor zagon
azkeneko egun hautan
Ondarrola español zen lehengo denboretan, *ja jai*,
frantseser saldu holetan
nik ez dakit zonbatetan.

Geroztik hunat hor zagon
kasik nihorentzat ez on;
beste kafian errunez pikak ere behar egon; *ja jai*,
ez mera, ez eliz gizon,
berenik etzuten nihon.

Hunki dautana bihotza
tratu bat ein dute gaitza:
ostatu ta botiga ken eta ezarri eliza; *ja jai*,
orai emaiteko meza
falta bakarrik apeza.

Iruñetik etorria
izan da apezpikia;
Beñardo eiteko apez bota dionetz begia, *ja jai*,
litaikere pare gabia,
erran behar da egia.

Badu aski jakitate,
dudarik ez dut bat'e;
latin beharrik ez orai, euskara're aski dute; *ja jai*,
prediku ta mez'emaite
molda litzazke bai fite.

Joanen naiz egun batez
ezartzen badute apez;
enetako're *Pernod* bat ikusteko balikenetz, *ja jai*,
hura gox'ondo edanez
mus partida bat eginez.

Ondarrolan falta dena
governamendu bat ona,
hoinbeste denbora huntan batere gabe egona, *ja jai*,
aferak berdin berdina,
halere joan aintzina.

Michel Udiri'ri

Airea: (43)

(Bere sortetxeari jarritako bertsoak. Erran bezala, P. J. Etxamendy Udirienian sortu zen. Bertso hauek Michel ilobari eskaini zizkion, hunek familiaren *arbre généalogique* edo *árbol genealógico* egin ondoren, eskerrak emanetz).

Etxe bat mendi alde, urrundik ageri,
badago Ondarrola'n, izena Udiri;
ahazten ahal dela aise izen hori
han sortia den bati etzaio iduri.

Bere lehen urratsak, plazer eta penak,
ondo hetan zitien izan gehienak;
gogoan oraino're ibiltzen tu denak,
han sortu zen bat orai zahartuxe denak.

Batzu izaiten dira suerte txarrekoak,
hetarik izan ziren gure burhasoak;
aita hartu zeraukun gazterik Jainkoak,
amak behar moldatu hiru haur mikoak.

Geroztik joan dira metaka urteak,
hiruak bizi dauzka oraino zorteak;
ez girela luzazko bat ala bertzeak,
zeren beti zor dauka hiltzea sortzeak.

Auski ta Etxamendy familien berri:
aspalditik hasirik loturik elgarri,
lan bat egin dutena dautate igorri,
ene ta ondokoen hain loriagarri.

Kuraia ez da behar naski fite galdu,
holako botiga bat behar denian bildu;
zure oseba Pedrok hemen erraiten du
badaukazula, Michel, seur mereximendu.

(1991)

Zahar batek gazteri kontseilu

Airea: (81)

Noiz sortu nintzan xuxen erran badautate,
abanxuño baditut bost dozena urte;
geroztikan ikusi munduan hainbeste,
kontseilatu nahi tut zonbait jende gazte.

Bestek iten dutena burian atxiki
zuk in dezakezula emeki emeki;
zuk ezin inezkua pentsatu goraki
nehork ez dirola in ez ontsa ez gaizki.

Bestek zuri itia nahi ez duzuna,
zuk ez egin besteri, hori da zuzena;
ez da xerkatu behar beti ontasuna,
zuzenaren saria da urostrasuna.

Plazerrez ezin asez ibiltzen bagira,
gohoragotik norbait badago begira;
frangotan luzakor da, bainan segur zira:
plazer horien penak etorriko dira.

Lehen kusiak daizke edo hurbilago
alferra ta gormanta, kasik segur nago;
bizitzeko jan behar, gauza klarra dago,
bainan ez gaiten bizi triparen esklabo.

Gorde behar dituzu, adixkide gisa,
auzo guzien hutsak, zuriak bezain ontsa;
nihondikan ahalaz ez gezurrik pentsa,
gezurra ta maingia atzemanak aisa.

Konfidantza guti har zuhauren mihian,
ona ta tzarra baitu denbora berian;
bi itzuli in araz lehenik burian,
mihia erraiterat utzi aitzinian.

Batzu fitexago ta bertziak emeki
koleratzen girela nork berak badaki;
arrasta atxik zozu ahal bezain tinki,
sekulan ez dukezu orduan urriki.

Beste kontseiluño bat gainerat oraino:
onestasuna atxik tenoria deno;
ez du dolurik izan nihork egundaino
onestago izanez erdikala baino.

Ongi guti egiten harrabots haundiak,
aldiz harrabots guti egiten ongiak;
anitz tronpatzen ditu beren urguliak,
ustez haundiak diren egoiten hantiak.

Mundu huntan oraino ez baita izana
denen gustia ontsa egiten duena,
alderdi bat hartzerat bortxatia dena,
egin kontzientziak erraiten diona.

Udan presta neguko, neguan udako,
bakotxa bere gisa azkar edo flako;
ezarri behar duzu, ene iduriko,
xoko bat prestaturik zahartu orduko.

Zaharrek ezin egin, gaztiek ez jakin,
fortunak galtzen dira, dudarik ez egin;
abantail anitz bada, guzientzat berdin,
zahar gazten ahalak zarriz elgarrekin.

Kontseilu hauk eman tut gaztien onetan,
nihaurek ikasiak ontsa gostarikan;
etziezten erori ene huts beretan,
sinets eta pratika zer erraiten dutan.

(1973)

(*Príncipe de Viana*, 1974-I)

J. C. Arrosagaray, ene adixkideari

Airea: (21)

Gustatzen zaut bestiak aditzia kantuz,
gure leku zaharrak artetan aipatuz.
Ideia hartzen nuen ta gero berriz uts,
bi bertsu zuretako egin nahiz, Juan Cruz,
ez nindaiken mentura zure errespetuz.

Frantses español muga han zuten ezarri,
Luzaideko erreka emanaz zedarri;
nahiz gure sort-etxeak ez urrun elgarri,
nonbait han zazpi edo zortzi besain harri,
español eta frantses gintuzten ekarri.

Oroitzen naiz oraino, haur gaztia nintzan,
zu ikusirik *bolant* Luzaideko plazan,
ikusi ere usu Luzaiden elizan;
gero joan zinela norbaitek erran zan
itsasoz bestalderat diru esperantzan.

Ni leku hetan egon naiz anitz denbora,
bi gerla're pasatu bestien gainera;
azkenian jin zautan nolazpait gogora,
bai eta're pasatu itsas hunaldera,
segituz leheneko zure bide bera.

Ikusten dutalarik aritzen naiz beti
zure berrien galdez adixkide bati;
ikustera jin ere nahia aspaldi,
mihian azkar bainan fundamentu guti,
badut alta sos baino gehiago asti.

Zure berriak heltzen zauzkit hunaraino,
pena frango izanik daukazu lehen;
lanean gau ta egun, elur, euri, lano,
orai hobeki gira, et' aise oraino,
Ipar-Ameriketan presidenta baino.

Bertsulari mires bat lehen Luzaidetik,
paregabia zela aditu nuen nik;
zure aitaso zela ta etxe beretik
zuk ordaintzen duzula badaki engoitik
Bordel bertsulariak hain segur zerutik.

(1974 Otsailak 2)
(*Príncipe de Viana*, 1974, V)

Ona ta merke, nekez

Airea: (15)

Jendiak girela denak
elgarrekin desberdinak:
batzuek eiten tratu tzarrak eta bestek eiten onak; *ja jai*,
hauk adiskide batenak,
bi tratu ditu eginak.

Astian behin gertatu
egiten dela merkatu;
Batita Pekotxequak beti nahi du xerkatu, *ja jai*,
beti prest eiteko tratu,
diru asko ere baitu.

Azkeneko merkatan,
Batitak erdi erdian
kusi bakero zapatak, ederrak, mahai batian; *ja jai*,
beti zagon gutizian,
hasi zen bada tratian.

Gertatzen dena ardura:
prezioa zen gohora;
erran dio: «Zartzen bauzu prezio hori erdira»; *ja jai*;
saltzailia jin punpera:
«Bota sosa, zureak dira».

Izartu zuen eskuina,
hura baita errexena;
ezarri ere zioten paketa ontsa egina, *ja jai*,
gero partitu aintzina,
kontent zela bixtan dena.

Ez du txarrago bestia
gero bigarren tratia:
pantalonak hain ederrak, neke baita sinestia; *ja jai*,
Batitak bota begia,
deus etzela alegia.

Begiak onak baititu,
ontsa diote behatu;
«Zonbat dute prezioa?» saltzailiari galdatu, *ja jai*,
prezioa du aditu,
iduri'ta harritu.

Erran dio seriocki:
«Zarri tuzu gora aski;
eman nezake erdia, hura ere ez da gaizki». *ja jai*,
Eskura eman diozki
irri batekin laburzki.

Pagatzeko prest Batita,
ein zezatela paketa;
izartze beharrik ez da haren izaria baita; *ja jai*,
tratu onak egin eta
ai, hau zer egun polita!

Zerbait bazela herrian
handik biharamunian,
pantalon eta zapatak berriak nahi soinian, *ja jai*,
gero soinian zartzian
solasa kanbio zian.

Eskuinekoa zen eta
jauntzi du lehen zapata;
ttipiago zen bestia nunbait lau bost zentimetra, *ja jai*,
hantxe dena zalaparta
koleratia Batita.

Aituta haren kexia
jin da fite emaztia;
pantaloneri so in eta erran du ezti eztia: *ja jai*,
«Izter bat dute hertsia
eta luzea bertzia».

«Hauxe dun aisa ezagun,
suerte txarrian nun egun;
eni gertatu zauztanak otoi ez kondatu nihun, *ja jai*,
hauxe karkula dezagun:
huna ta merke nekez dun».

(1975)

(*Príncipe de Viana*, 1977, I-II-III)

Petan kantonierra

Airea: (12)

(Bertso irrigarria hauxe. Hegoaldean “kantonierra” ez da erabiltzen, baina “kamiñerua” bai. Halare, alderdi bietan fama berdina zeukaten).

Gobernuarendako da enplegatia
Petan kantonierra, bide egilia;
bere nagusieri atxikiz begia,
artzen lanian azkar edo alegia.

Laneko tresnak ere baditu hainbeste:
aizkora, pala, aitzur, sega eta beste;
kargu hortan ez luke deus gaizki nik uste,
lanak ez balu hola beti berriz haste.

Beste kausa bat ere badu aski tzarra:
noiznahi nagusia jin dadin beldurra;
bi alderditarat so, ez baita okerra,
nahi du erakutsi ez dela alferra.

Iragan egunian, sekulan ez eta,
jarrita pipatu du bere zigarreta;
uste gabian norbait hurbildu zaio ta,
bere nagusia zen, dena tarrapata.

«Konduak emanzkitzu orai eni, Petan,
zonbat lan egin duzun azken egun hotan».
«Kilometra harrian atzo hasi nintzan,
pentsa zazu gogotik arizana nizan».

Ikusi zuten kurri zoala gogotik
ondoan karakol bat, lau adarrak zutik;
zangopetan xehatu kentzeko trabutik,
Petanek ez dik behar destimoniorik.

Petani nagusiak galdatu behala:
«Hiltzeko zer hoben du, gaixo karakola?».
Petanek arrapostu: «Aski badut hola,
aste guzia ene ondotik dabila».

Atsian andriari erran bere penak:
«Karakol batek dauztan komediak inak».
«Ekarzkik elkar hunat ahal ditukanak,
nik hetaz inen tiat saltsa batzu onak».

Hirur karakolekin untzi zar batetan,
biharamun atsian etxerat jin Petan:
«Ehun seurik baninan bildurikan metan,
bainan hiruz bestiak eskapatu zauztan».

Petanentzat sobera karakolak zalu,
epakatu direnek ez dukete dolu;
ez luke ez hain segur hoinbeste urgulu,
karakolez bizia egin behar balu.

Umilia Gaiten

Airea: (32) edo (76)

Jainko Semea sortuz geroztik pasaturikan badaude
hemeretzi mende osorikan eta hiru laurden bestalde;
azken hiruetan hogoi urte hauk nik ikusirikan daude,
munduan abantzu haundiak jin bainan ez arimen alde,
umiliaturik jar gaitezen horren beharretan gaude.

Gogoa ilun hastera noha zerbait esplikatatu nahiz,
gure makurren erroa nun den aspaldi ohartua niz:
berdin berdina ibiltzen gira nola Jainkorik ez balitz,
Satan dabila gure ondotik polliki polliki ariz,
Jainkoak barkatzen luzke ere bat umiliatzen balitz.

Eritasuna dugu sartia ezin jasan diziplina,
obedientzia errefusa ta egin nahi duguna;
gosta gabe bildu nahi gauza izan eta're bestena,
ez in dudarik molde hori da Satanek nahi duena,
Jainkoak zuzent ditzazke ere umiliatzen bagina.

Badira orai sobera gazte desordrian dabiltzanak,
kurri dabilta inez bakarrik berek nahi dituztenak;
drogatuz daude, aunitzak eri, erdi janikan zikinak;
Satan zaharra dute gidari, hori zaudezte jakinak;
otoitz dezagun Jauna umilki zuzent araz ditzan denak

Amodiua gauza xinplia: jendek dugu elgar maite;
lehen segurik hola zen eta orai ere bai nik uste.
Hortan ere orai badaukate ustez aunitz jakitate,
ezkondu eta elgar hastio behala joan aparte;
otoitz dezagun Jauna umilki, horren beharra daukate.

Gobernutako enplegatuiak, bai eta buruzagiak,
horietan ere badira aunitz makurrerat itzuliak;
zuzen kontraka mahipetikan duzte diru emaliak,
Satan dabila hartan ere erne buru beharriak,
otoitz umilki zeruko Jauna zuzent ditzazke guziak.

Tzarkeria itsusienetan jende klasa bat dabila,
estakurutzat emaiten dute politika ta gerrila;
bazterrak suntsi, jendiak ebats eta berdin uzten hila;
ez da dudarik Satan zaharra plana egile dutela;
Jainkoak ere zuzent ditzazke zuzent gaitzan eta barka.

Gerlako tresnak ari egiten bazter orotan metaka,
agerian ta gordeka;¹
leku batzutan ari jendiak gosiak hiltzen milaka.
zertako diren gauzak hain gaizki ez gaiten egon dudaka,
Jainkoari otoitz orok umilki zuzent gaitzan eta barka.²

Ez har burian ontsa izana gure boterez dugula,
Jainkoarentzat berdinak gira nagusi ala mutila;
egun guziez gure mentura haren eskian dabila,
igortzen dauku bere laguntza merezi dugun bezala,
grazia galdatzen badiogu jarri ta umil umila.

Gure medioz Satan ari da bere uztaren jorratzen,
zernahi molde enseiatzen du, batere ez dut dudatzen;
gure Jainkoak gain hartarikan orori baitu behatzen,
arrima gaiten haren alderat, Satanek ez du tronpatzen;
urrikaltzeko hau aski zaio: umiliatu gaitezen.

(1974)

¹ Lerro huntan hitzen batzu falta dira.

² *Zuzen gaitzan eta barka* bertsu honen ondar hitzak; eta bai aintzinakoarenak ere. Beheko bertsuarena ongi izango da; eta goikoarena makur, honek puntu edo errimarik ez baitu egiten.

Pedro Juanen onddoa

Airea: (107) edo beste ongi joan den edozein

Hala beharrak manaturikan, iragan arrats batian,
gaua pasatu behar izan dut haritz haundi baten pian;
laguntzat nituela xakurra eta makila aldian,
manta ohetzat eta arbola erro bat buru azpian.

Ene ustian han etzen deusik salbu zeruan izarrik,
bainan ohartu nintzen segidan ez nindagola bakarrik;
larrapottiak alde orotan ari kirrik eta kirrik,
ene ohoretan ari ziren ez dut batere dudarik.

Nitarik hurbil apotzar batzu hasi ziren kluk eta kluk;
erraiten zuten: «Ez izan beldur, gu ere auzuan gaituk».
Igelak ere entzuten ziren kantuz karrak eta kurruk,
erranez: «Kantu hauek guziak hire ohoretan dituk».

Etsaiak ere izaten dira uste gabeko lekutan,
nik ere batto izaki nere haritzaren adarretan:
hu hu huka huntza ari handik aski desafio txarretan;
«Arrotza haiz hi, habil hemendik!» oihuka erraiten zautan.

Ari nintzela desafio ta kantu guzien aditzen,
batere uste gabetarikan hantxetan lokartu nintzen;
azpitik gora pusaka ari lurretikan zerbait bazen,
bainan lo eta amentsetarik ez nuen pentsatu zer zen.

Gero iratzartzen hasi nintzan argiaren urratzian,
oilar kantu ta kurrukurruiak aditu nituenian;
xoriak ere ari arbolan kantuz omore onian,
erraiten zuten: «Jeiki behar duk, ta ez egon hor lurrian».

Beraz obeditzen hasi nintzen ene xorien errana;
xutitu manta eskutan eta zer da ikusten dudana?
Orai badakit zer zen lurretik eni pusaka arizana:
haritz onddo kasko beltz haundi bat azkarra eta leguna.

Onddoak haunditzen ari nihork ez omen ditu ikusten,
ez dakit hortan gezurra ala egia erraiten duten;
ez dut ikusi haunditzen ari, bainan hauxet dut erraiten:
pusa aldi bat ona hartuia dut batek emanik aurten.

Asko adixkide banuela ezagutu dut errexxi,
etsaiak banituela ere ageri zen segur aski;
batzu ni ikusiz kontent kantuz eta xixtuz ar'izanki,
ta bestek aldiz pusaka eta desafioka ibilki.

Mundu huntan orok desberdinak ditugu gure usaiak,
eta nahi gaberik egiten askotan gure etsaiak;
adixkide onak izatiak ba'itu abantail nasaiak,
maluruski askok adixkide tugu bakarrik bisaia.

(1976)

Anai-arrebak

Airea: (91)

Munduan lehen presunak ziren Adam eta Eva,
geroztikan hor dabilta ere bi anai-arreba.
Heien berria kantuz ertia neke izain da beharba,
zeren anaiak du fama tzarra eta arrebak ere ba.

Nagusi berarendako dira neskato ta mutil,
beti hark nahi bezala nihondikan ezin ibil;
arrebak du manatzen batzutan: «Orai kanporat hi habil!». Berdin anaia partitzen da ta bortan azanzka hor dabil.

Arreba ixil ixila ateratzen beti bortan,
bainan arrebaren partez anaia doa batzutan;
nagusia ez dagola beti konforme afera hortan,
bainan bortatikan ateraz geroz libre dabilta orotan.

Ez dute beren gustora pasatzen beti denbora,
makurrik nihon in gabe preso ere egoiten dira;
ez dela goxo hobenik gabe joaitia presondegira,
ez da, ez, gero estonatzeko kexu izaiten badira.

Hauxe orok dakitena: tzarra dutela omena;
ta juje ta poliziek halere ezin kondena;
etxian daudeno goornatzen dira umilki zuzen zuzena,
makurrak 'in ta ezin atzeman, iduri dute sorgina

Bortatik ateratzeko izanez geroztik xantza,
nihorek salbu sudurrak ezin harrapa dabilta;
nihork ez daki zer kolore'uten: zuri, gorri ala beltza;
anaiak du izena *Uzkerra* eta arrebak du *Putza*.



Pedro Juan Etxamendy bere seme-alabekin.



Erdian: Pedro Juan Etxamendy, Californian egindako omenaldi batean.

Bizi guzian beldurrez

Airea: (102) edo beste ongi joan den edozein

Adimendura jinez geroztik bizi guzian beldurrez,
gisa baterat edo besterat, ta ez naiz mintzo gezurrez;
kuraiatz aski ahula nago ta ahulago indarrez,
huna hemen zonbeit miseria, gehiago're ba'ut beharrez.

Akelarre¹ ta zoko hoietan gauaz aunitz hurrats inak,
beti beldurrez noiz aterako ote zitzauztan sorginak;
bainakien bazirela ere Basajaun eta laminak,
beldurrez gibeletik harrapa jauziak baitut eginak.

Beti beldurrez pasatuia dut neure haurtasuna oro,
noizbait adina jinez bezala beldurra ttipitu gero;
orduian hasi nintzen ein nahiz zonbeit sos edo dinero,
ene sorginak ziren orduian guarda ta karabinero.

Nahiz ez nintzen boluntario alemanen kontra gerlan,
leku tzarretan ibilia naiz, han ere izan aski lan;
ahantzi gabe nahi dut erran ez nautela hil sekulan,
bainan han ere ibilia nahiz beldur ederrarekilan.

Ameriketean ere beldurrez artzaingoan naiz egona,
beti mendi ta desertuetan pastuz gau eta eguna,
nondikan ateratuko zauntan kuiote edo sorgina;
nik uste janak izanen ginan onak izatu bagina.

¹ Akelarre, Ondarroan nere sort etxetik hurbil leku sasitsu itsusi bat. (P. J. Etchamendy-ren oharra, *Príncipe de Viana*-n).

Bestek bezala egin beharrez ezkondu ere in nintzen,
orai andriaren beldurrez naiz samur delarik ibiltzen;
nere pantalonez gustatu ta heien izartzen hasi zen,
geroztik hunat soinian dabiltz eta hori ez da zuzen.

Haurrian burrasoen beldurrez gire beti ibiliak,
orai gure haurrak jin dire ta ez uste nuen liliak;
orai gure hurrek manatzen gu berek eginez legiak,
besten beldurrez pasatzen ditut ene denbora guziak.

Denen beldurrez nabila beti: debru, sorgin edo guarda;
neure itzala kus eta ere izituia nintzen barda;
atrebituxegi denak ere iduri gatik, hau zer da?
Atrebituia eta beldurra bietarikan behar da.

(1974)

(P.J. Etxamendy-ren esku-idatzietatik)

(*Príncipe de Viana*, 1976, VII)

Zentzia eta jakitatea

Airea: (18)

Hauxe da kausa jakina:

zentzuz naizela arina

ta beti hola izana;

mundu guzia zentziaz mintzo, behar du izan gauz ona;

oraino ez dakitana

ez kolore, ez adina

eta zertaz den egina.

Nintzelarik haur gaztia

amari egin galdia:

«Nolakoa da zentzia?».

«Mundian dituk bi kilo zentzu eta hori duk guzia,

holaxe partekatia:

oseba Pellok erdia

ta bertzek diuk bertzia».

Zentzu mixterio hortan

geroztik hunat askotan

arizan niz pentsaketan;

bi kilo zentzu guziendako guti iduritzen zauntan;

egia erran bazautan,

beldur zentzu eskas huntan

lagunak ere baituztan.

Nahikoa jakitate
erreposki edo fite
eskolan ikasten dute;
jakitatia eta zentzia biak dira diferente;
bien beharra banuke,
bakotxetik hunenbeste,
buru haundi hunen bete.

Jakitatiak bakarrik
ez du balio haundirik,
ez balinbada zentzurik;
zentzia ere ez urrun joan, ez bada jakitaterik;
batzuk baute bietarik,
nahiz deus gabe hoitarik
bagiren aski segurik.

Zentziaz giren nagusi
nahi duenak ikasi
nahi nuke erakutsi
norbait zentzuz oso konple dela oraino ez dut sinetsi;
hauxe behar da ikusi:
ez ditaikela erosi,
ez bestena're ebatsi.

Esplikatu nahi nuke:
jakitatia bil daike
izana gantikan neke.
Aldiz zentzia ezin emenda ez kario ta ez merke;
bertzela aisa laiteke,
hau nor nahik badakike,
sos dunak eros lezake.

Zentzu gutirekin denak
aisago jasaiten penak,
hori zaudezte jakinak.
Zentzu dunak eta gabekoak gira Jainkoak eginak,
elgarri zor ditugunak:
zentzu poxi bat duenak
lagundu gabe direnak.

(P.J. Etxamendy-ren esku-idatzietatik)
(*Príncipe de Viana*, 1976, IX-X)

Hamar Manamenduak

Airea: (76) edo (32)

Jainko legeko manamenduak nahi dut erran lehenik
Moisesek zituela ekarri Jainkoak berak emanik;
ikasirik, berriz ahantziak ditugu askok jadanik,
bertze batzuek ere bazterten badutela beste lanik,
ahantziak dituztenendako kantuz emanen ditut nik.

Lehenbizikoan Jaungoikoa maita eta errespeta,
umiliatuz har konfidantza, gutaz urrikaltzen baita;
egun guzietz otoitz eginez galdatuz zer dugun falta,
errana dauku gure munduko bizi hau finitu eta
nahi gintuzkeiela zerurat ta ez infernurat bota.

Juramenturik ez egitia gezurrez edo banoan,
Jaungoikoak emana da hori bigarren manamenduan;
inguruka dabilala Satan noiz nahi gure ondoan,
hitz gaixto erten ari gaitezen hark nahi duen moduan,
atxik beraz oneski mihia, ibiliz hori goguan.

Igande eta besta egunak ditzagula begiratu,
hirugarren manamendu huntan odriak emanak ditu;
meza sailduari segi gaiten erakutsiz errespetu,
lanik ez egin egun horietan ezin utzizkoak salbu,
hark erranak hobe da sinetsi, ezinez arima galdu.

Laugarren manamendiak orai hauien ertera nerama:
obedituz ditzagun ohora gure aita eta ama;
gaizki portatzen denak hoiekin bide makurra derama,
bide onetan haurrak ezartzen burhasoak ere berma,
orok hiltzian izan dezagun Jainkoarentzat arima.

Bortzgarren manamendian aldiz Jainkoak hau ezarri du:
ez duela behar nihork nihoiz nihori bizia kendu;
samurgo eta herrak baztertu nihontik ahal bagindu,
gose eta miserian dena zerbait duenak lagundu,
ongiak inez bere arima batek salbatu behar du.

Lujuria da seigarren huntan Jaungoikoaren abisa:
pentsamendu, hitz eta obretan ibil gaiten jende gisa;
naturelezak tentamendiak ematen deraizku aisa,
hortan Satanek badabil indar ensegua eta kabesa,
zerua izaitekotz saritzat hor ere goberna untsa.

Zuzen kontra bestien gauzetaz ez dugu behar jabetu,
zazpigarren manamendu huntan hola manatiak gaitu;
paga norbaitek bertzen gauzeri kalteak egin baditu,
tratueta ere ez gaitezen zuzen kontra baliatu,
burian har huntan ere dela gaizki egina bekatu.

Sekulan nihon ez gaiten jarri falsuki destimonio,
malezian besterik ez beltza ez saildu ez demonio
ez eta ere gezurrik erran kausa denian serio,
edo hil ondoan arimari gostako zaizko kario,
zortzigarren manamendu huntan Jaungoikoak hori dio.

Ez gaitenez ere tentamendutan projimoen lagunekin,
hau bederatzigarrenak dio behar ginukela jakin;
tronpatuta're adixkidiak Jainkoa ez daike egin,
fidelitatia pratikatuz trata orok elgarrekin,
zeren nahi gintuzke hil eta zeruan oro berekin.

Kalterik ez dezagula xerka bertzien ontasunetan,
ez hitzez, ez eta're desiraz, are gutiago obretan;
lege hau hamargarrenian du Jaungoikoak berak eman,
errana du galdea izanen dugula uste gabetan,
eta gure arimak zeruan nahi luzke oro betan.

Panpili eta Ximun

Airea: (101) edo beste ongi joan den edozein)

Panpili eta Ximun auzoan bi gazte ,
Panpilik ditu zortzi, Ximunek sei urte;
ardura adixkide eta elgar maite,
bainan samurtzen dira behin edo beste. *(bis)*

Pilota Ximunena ta haren gainian
zinez samurtu dira joan den egunian;
azkarrenak arrazoin du ardurenian,
Panpilik jo pasoka Ximun sudurrian. *(bis)*

Nigarretan lasterka etxerat joan ta,
sudurra odoletan txarra zuen planta.
«Panpilik sudurrian jo eta nau bota»,
orduian koleratu ama eta aita. *(bis)*

Panpiliren etxeko bortaraino jinik,
Ximunen aita zen han kopeta ilunik:
«Panpilik jo du Ximun t'etzuen hobenik!»;
joan da ait'ameri zernahi erranik. *(bis)*

Amak dio aitari handikan behala:
«Gizon horrek nahi zuen gurekilan gerla;
hoinbeste arrazoin txar ergel dariola,
ta zu ixil ixila tonto bat bezala».

Aitak dio amari eman errepostu:
«Ixilik egoitiak bere onak baitu.
Menskeriak erran gabe naizela gelditu?
Bien partiak aise berak erran ditu».

Oren baten buruko han xoko batetan
Panpili eta Ximun ai ziren pilotan;
geroztik hunateko denbora guzitan
aita amak samursko daude bi auzotan.

Aita ama guziek maite beren haurrak,
ta hurrek elgarrekin izaiten aharrak;
ait'amak, auzoetan baziezte zuhurrak,
haurren negoziotan ez sartu sudurrak.

(1976)

Gure ama

Airea: (21) edo (92)

Gogoan inguruka dabiletan dama,
balioa nihorrek ez diro estima;
guzien xuxentzaile bizia derama,
esklabo daukagula horixe lastima,
nor den holako dama? Hori gure ama!

Pasturik anitz neke ta gora behera,
ongi sofrituz eman gintuen mundura;
geroztikan haurraz du bere arrangura,
pausian ez dagoke minuta bat bera,
eta ama guziak holakoak dira.

Ama batek badauka anitz mixterio:
dena pazientzia eta amodio;
guzier buruz inez erne ta serio,
senar eta haurreri kabesa dario,
etxia're odrian lanaren medio.

Ez dugula ikusten amak egin lana,
bainan fite ageri ez bada egina;
ezin aski garbitu guzien zikina,
beste lanen artetik eginez kozina,
biak baitu: esklabo eta erregina.

Aitak behar ekarri, hori gauza klarra,
izerdiaren gostuz etxerat xingarra;
bainan etxian ama hain dago beharra,
ene partetik orai iten dut aitorra:
nihork ez diro paga ama bati zorra.

Haurrak, hau har zazie serio gogoan:
ez gaizke beti egon amaren altzoan;
bainan amari ihes ez goizegi joan,
nik hola nuen egin hobe zelakoan,
ez naiz gehiago egon nihon hain goxoan.

Ama baita mundurat eman gaituena,
hazi eta altxatu, pastuz anitz pena;
orori kurri joan baitzauku adina,
zerurat joan arte orok zor duguna:
sekulan ez dezagun ama abandona.

Gure aitari

Airea: (86) edo (16)

Aitaren ganean dut egungo solasa edo sujeta,
gure aitari zer zor diogun erraitia neke baita;
egiten dauzkun ongi guzietz deusik etzaio inporta,
ez dirot pentsa zergatikan den guretzat hoin ona aita.

Sortu orduko hartu gintuen aitak beraren gerizan,
aitak du beti karri etxerat jan eta edan ginezan;
nahiz ama den oren guzietz gure artatzen arizan,
haztale eta gidatzailea aita dugu beti izan.

Goizetan goizik gu lo utzirik partitzen bere lanera,
bere izerdien gostuz baitu kartzen ogia etxera;
nahiz lan gogorretan arizan deusik etzaio sobera,
saritzat nahi duen guzia: gutarik potta bedera.

Berak erranik nik hau badakit: bere pena haundiena
amarekin eta haurrekilan etxian ezin egona;
bainan gero heldu zaionean pausa hartzeko orena,
aita ta ama dira orduian errege ta erregina.

Haurretarik bat eri denian aitak eri du bihotza,
bere gogo eta arrangurak haurrarekilan dabilta;
haren nahiak gure Jainkoak beti on hartu balitza,
berak hartu nahiago luke bere haurrak duen gaitza.

Bere ustian ixil ixila badauka segetia,
bainan aspaldi ikusia dut gure aitaren nahia:
pena eta lan gogorretan du pasatzen bere bizia,
nahiz gurea izan dadien berea baino hobia.

Erran diot: «Aita, gure gatik lanian ari hoin gogor,
noiz pagatuko ahal ditugu hoinbeste badaitzugu zor?». Errepostuia hauxe eman daut jarririkan aski minkor:
«Haurra, ez ukan arrangurarik, zorrik gabe ez duk nehor.»

Erran daut: «Orai ibiltzen diuk zien hazten asko indar,
bainan ez diagu horrengatik zien pagorikan behar;
halere ezinbestiak jotzen gaitik egun edo bihar,
ez duk dudarik ginazakeela zien laguntza ongi har.»

Orduian daut aitak esplikatu nola dagon haren plana:
«Familiaren amodiak diak inarazten lana;
zien familiak izaiteko balinbauzie fortuna,
hari pagatuko dakozie guri zor daukuziena».

Aitak direla haurren haztale izanak egundainotik,
haur sortzen gira, gero aitutzen, gero itzaltzen mundutik;
batzu itzaltzen ari direla, bertziak heldu ondotik,
kreatura guziak Jainkoak kreatzen gaitu lurretik.

(1976)

Emazte zenari

Airea (80)

Iduri du batzutan ez dela egia,
behar dela on hartu Jaunaren legia;
ilunpetan gabiltza galdurik bidia,
mundu huntako gauzez aunitz inbidia,
ahantzirik non dagon guzien Jabia.

Herioa Jaunaren mandatari dabil,
ez da lekurik nihon ez daikenik ibil;
nihor ohartu gabe badabila hurbil,
ihes ibiltzen gira nihork ez nahi hil,
bainan hark biltzen oro serio ta umil.

Bertsutan nere kausa emaiten hastian,
aitortzen dut nagola omore tristian;
herioak jo dauku etxeko atian,
ta andria ereman pentsatu gabian,
ginuena ororen gidari etxian.

Aitor dut mundu huntan ere zu, Mathilda,
aingeru bat zinela, nihor izan bada;
Jaunari lagunt dezan, otoi, zuk hor galda,
hemen utzia duzun zure senar pilda,
eta zure ondorat hil ondoan alda.

Hurbilduak direla nire azken hatsak,
zu ikusiz joaiten hartua nau lotsak;
elgarrekin in tugu munduko urratsak,
izan baitugu ere memento kiratsak,
otoi barka zerutik in dituztan hutsak.

Haren borondatia ez zaiken konprendi:
ongi gehiago in ta hobeki sendi;
eginbide guzietan zuzen eta haundi,
arrangura ta penak gordez aunitz aldi,
Jainkoaren sariaz orai goza bedi.

Gelditzen naiz bakarrik, gogo beltz beltza,
Jaunari otoitzian tristerik bihotza;
laster idoki dezon Mathildari giltza,
ondoan lekuño bat ere atxik beza.
zerua ere dezagun elgarrekin goza.

Pedro Optimistegi eta Juan Pesimistegi

Airea: (32) edo (115)

Pedro Optimistegik:

Zure berririk ez dut aspaldi, zer gisetan zabiltz, Juan?
Ni orai lehengoak kus eta ongi bizi naiz munduan;
zuhaurek hau badakizu bainan adi zer erraiten duan:
denbora txarrak pastiak eta oraino dauzkat goguan,
orai tresna berriekin ari lanian gustu gustuan.

Juan Pesimistegik:

Duela miliun urteko bat gure burraso zirenak
etzutela etxerik, ez sosik, solasak ditut entzunak;
jostetan eta ihizin zuzten pasatzen beren egunak,
ordian uros bizi zirela emazte ala gizonak;
aldiz gu, Pedro, beti herrestan, ezin bururatuz lanak.

Pedro Optimistegik:

Orain, Juan, erran nahi daizut zer ari naizen pentsatzen:
orain duela miliun urte bizitza nola ote zen?
Sortzian karri arropa hura zuten bakarrik usatzen,
harri zilo batzu etxetako konprenditu badut zuzen,
kasik segur naiz etzitaizkela gustora bizi gu bezen.

Juan Pesimistegik:

Hau nahi daizut erran nik, Pedro, egin zuhaurrek karkula:
gustora bizi ihizitikan, lan egitetik sekula;
airia beti sano zuten ta urak ere hala hala,
aldiz oraintxe bazterrak oro zikina dariotela,
denbora txarrak jinak dira ta txarrago heldu gisala.

Pedro Optimistegik:

Galdatzen daizut nik orai, Juan, ez kexatzia sobera,
zuk uste baino hobeak dira bai airea ta bai ura;
bizitzen gira etxe onetan beztituz gure gustura,
nahi denetik jan eta edan, beti ez bada, ardura;
heiek bezala nahi bauzu bizi bauzu oraino denbora.

Juan Pesimistegik:

Bizi ere egoiten zirela heiek ehunka urtiak,
etzakitela zer ziren ere doktorrak eta bestiak;
gu aldiz orai eritzen gira ta hiltzen gazte gaztiak,
dena bizio jarriak gira ta zernahiko jestiak,
gu gira, Pedro, heien aldiak miserable ta tristiak.

Pedro Optimistegik:

Gure aiten aitak ziren heiek ta gu heien ondokoak,
tristeki daizke bizi izanak orduko jende gaixoak:
gazte aunitz hil eta zahartzen gero gaineratekoak,
denbora onian eman gaitu mundurat gure Jainkoak,
orain ontsa non bizi ez giren alferrak eta tontoak.

Juan Pesimistegik:

Erraiten daizut hau ere, Pedro: geroaz ere naiz beldur,
jendetan badago aunitz erra eta amodioa xuhur;
gizonen eskutan anitz tresna eta pazientzia labur,
mundu guzia destruituko'ute halako batez hain segur,
beldur hori nik zergatik dudan? Jainkoa dugula samur.

(Príncipe de Viana, 1976-I)

Bardako ene amentsak

Airea: (21) edo (92)

Amentsak kondatzia ez baitut herabe,
barda izanik nago zombait nahigabe;
beti gogorat heldu zitzautan Luzaide,
infernurat joan niz zuzen bidez bide,
ba ote zen han zombait ene adixkide.

Borta zahar haundi bat han bero beroa
hartan zilo ttipi bat lau kantonekoa;
bi begi so kanporat, du'aik ez da, debrua,¹
«Zer nahi duk hemendik?» egin daut galdoa.
«Zonbat luzaidar tuzun emazu kondua».

«Bakia emak hire luzaidarrekilan,
batto bakarrik ez duk jin hunat sekulan».
Ordian hasi nintzan behala karkulan:
«Purgatorioan duzkek oro elgarrekilan».
Nondikan joan harat banuen aski lan.

Azkenian ba noizbait arribatu nintzen,
ni han arribatzian borta idoki zen;
jantzan eta jokoan besterikan etzen,
nausiak hea zeren arranguran nintzen,
«Zonbat luzaidar tuzun, hori dut galdatzen».

Nausiak errepostu «Hemen luzaidarrik
berriz kondatuta're bost dituk bakarrik;
zerurat joaiterat libre tuk hemendik,
gibelerat jinak tuk zeruan izanik,
han ez duk artzen jantzan mazte ez gizonik».

¹ Dudarik ez da, debrua.

Bi mutxurdin baziren, ta hirugarrena?...
Hura zen donadua ta Gilen izena;
Ondarrolarra zela gero laugarrena,
soinu jotzaile ona, jotzen nahi zena;
bostgarrena apeza, hark daut eman pena.

Handikan joan nintzen segidan zerura
han San Pedrok galdatu «Zer duk arrangura?»
«Luzaidarrak tut falta, hemen ote dira?».
Erran zautan behala: «Sar hadi barnera
ikusteko hiaurrek hemengo manera».

Lista bati so in zion ta erran behala
«Badituk pasaturik hirur ehun mila».
Arropak, zetak, eta urre ta xingola,
okupatiak ziren, kusi dut behala,
otoitzian ai ziren oro umil umila.

Luzaidarrek trublia mundu huntan dute:
frantsesak ote diren Espainian uste;
Frantzian zonbat aldiz galdatzen dakote:
«Español tzar horiek zertan zabilzate?».
Bainan orotan duzte halaik ere maite.

Ondarlak ere ez du arrangura falta,
jendia bai han ona ta leku xarmanta;
luzaidartzat dauzkate Arnegi'rat jua'n'ta,
Luzaideri baita're ezin ontsa junta,
bien artian dago iduri baxtarta.

Aments egile hau zen Ondarlako bera,
ibilirik badu han anitz tira bira;
ezin bestiak handik ereman kanpora,
haren gogo bihotzak hala're ardura,
Luzaide'n, Arnegi'n ta Ondarrola'n dira.

(P.J. Etxamendy-ren esku-idatzietatik) (1973)
(*Príncipe de Viana*, 1974-IV)

Amentsetako lukinka

Airea: (83) edo beste ongi joan den edozein

(Hurrengo bertsoetan Etxamendy euskalkietaz ari zaigu. Euskal Herrian agian ez dakite hemen EE-BB'tan ez dugula European dauzkaten arazorik. Bizkaitar bat Ortzaize'ra joango balitza, hango euskara ulertzea ia ezinezkoa litzaioke. Amerikan bizi garenok, ordea, elkarren berbeta edo mintzaira ikasixe dugu edo behintzat elkarrekin solastea errezago egiten zaigu. Aspalditik artzain kanpuetan, eskolarik eta maisurik gabe, tajutu zuten Amerikako Euskara Batua. Etxamendy'k oroitarazten digu N. A. B. O. dela denok biltzen gaituen indarra. Alegia, North American Basque Organization, hots, Ipar Amerikako Euskal Erakundea, edo N. A. B. O. labur esanda).

Boz bat eni mintzatzen lokartu ondoan,
garbiki entzun nuen izanta're loan:
«Pedro, gaur nik erranak atxiki gogoan,
euskal ixtorioa huna nola doan.

Mundurats lehen jinak Adam eta Eba,
euskaldunak zituian, nik badiat proba;
zuzen gobernatuz, hek ta ziek ere ba,
euskal parabisuia zitaiketan salba.

Lehen bi euskaldunek zer gaizki in zuten?
Heiek zituian hasi bekatu egiten;
nondik heldu zirezten eta norat joaiten,
hortako ez duzie xuxenik jakiten.

Batzuk erten duzie «Euskaldunak gira,
bainan ez dakiguna da euskal mintzaira».
Bertzek izen arrotza, baita're itxura,
eta berdin mintzatzen ederki euskara.

Segurki baduzie gehiago're falta:
elgar ezin konprendi euskaraz mintzo ta,
horrengatik euskara bazterrerat bota,
mintzaira arrotzetan segituz diskuta.

Euskal ixtoriotan sartzen nauk hain bakan,
uzten haut orai, Pedro, lo egin dezakan;
N. A. B. O. Ameriketean, dudarik ez ukan,
baliosa duzie, erran nahi naukan.

(1993 maiatzak 20)

Gaztea eta zaharra

Airea: (7)

–Adixkide aitaxo, Jainkoak egun hun,
zu nahiz ikusi hemen nabil egun;
berdin du berehala aitortu dezagun:
baduzu zuhurtzia, aise da ezagun;
 zonbeit konseilu hun
 har nitio egun,
 berdin zonbeit ehun;
segur naiz zurekin ausarki baituzun.

–Gazte, konseilu eske etorri haizela,
uste duk zuhurtzia nitan badela;
lauetan hogoi urte bizi nabilala ,
naiago nitek gazte banintz hi bezala;
 ageri'uk behala
 gaztia haizela,
 itxuraz abila;
eni konseilu galdez nolaz habila?

–Mundu huntan nizala badu hogoi urte,
nago orai nitaz zuk zer duzun uste;
orai ni bezala zu izan zira gazte,
zer egin zinezake balitz berriz haste?
 Anitz kalitate
 eta jakitate
 bauzula diote;
nik banitu horiek ez nuzke kalte.

–Adixkide gaztea, hire desiretan
jakin nahiz habila nik zer diotan;
bizitzen balin bahiz luzaz mundu huntan,
pasatu beharko duk arteka askotan;
 hun ala txarretan
 pasa hadi orotan
 ahal bezain plantan;
ez duk dolu izanen sekula santan.

–Aitaxo, hunak dira zure konseiliak,
seur niz anitz bide baitzu ibiliak;
nago zuhaurek beti diozun bidiak
plantan pasatu ote dituzun guziak;
 aitortu egiak:
 arteka hertsiaik
 baitzun pasatiak;
ala pastuz huretik¹ utziz zubiak?

–Hik ene konseiliak eta ene hitzak,
nahi dukana hartu, bestia utzak;
hik behar dituk hartu bizitzeko xantzak,
nolako soinia den in halako jantzak;
 kondu atxiki zak:
 elekari gaitzak
 beti badabiltzak;
erdiak bestien tronpatzen gabiltzak.

–Aitaxo, esker mila zure konseiluez,
nago bazinukeen gehiago ala ez;
ez dakit konseiluez hau egia denetz,
emaitia aise da ta hartzia nekez;
 hauxe nago galdez:
 zuk erranak inez
 hobeko nukenetz;
zer in behar dutan errazu bi hitzez.

–Errespeturik ez gal obra ez hitzetan,
etsaiekin ere ahalaz deusetan;
azkarra izanta're, denbora hauietan
heien behartzen ahal haiz uste gabetan;
ez dudarik ukan,
segurra sekulan
batek ez diok erran
nungo huretik² beharko duen edan.

(1987 urriak 12)

¹ eta ² Iparraldean *hura* erraten da maiz *urarentzat* solasean.

Ene lunetak

Airea: (43) edo beste ongi joan den edozein)

Mundu huntan badago aunitz jakitate,
beti ari ikasten batzu edo beste;
hiltzian eremanta're berekilan parte,
plan eta liburuak hemen uzten duzte.

Jakitatez ni baino gehiago denik
bat edo beste bada nonbait segurrenik;
hauxe nik deskubritu halere lehenik,
orai ertera noha zer dutan eginik.

Luneta pare bat dut joan den egunian
egin berri berriak ta eman soinian;
jenderi so egiten hasi naizenian,
kusten heien gogoek zer zuten barnian.

Auzo eta arrotzak, bai adixkidiak,
elekatu nituen atzeman guziak;
ederki mintzo ziren batzu ta bertziak,
gogoan zituztenak gordetuz erdiak.

Nahiz lanian ziren ederki arizan,
lunet hauien bizia etzen luze izan;
on izanen nituen munduko bizitzan,
bainan handikan fite iratzartu nitzan.

Iratzartu ta gero ziren pentsaketak:
«Nola in ote'ituk hik holako lunetak?». Gose denak lukinkez egiten amentsak,
bainan amentsak dira beti gauza mentsak.

Erran gabe zer diren eta nolakoak,
burian orok ibiltzen gogoeta flakoak;
ikus ahal bagintza elgarri gogoak,
zutik jar litzaizkegu buruko biloak.

Jakesen alkia

Airea: (78)

Mutil berria zuten Eiharako-Bordan,
auzo herritik jina aitzineko udan;
berria beti ona, hori ez da dudan;
behi deizten ona da Jakes bere modan.

Jakesek mutilgoan fama ona badu,
berak ere jakinki ta ez nahi galdu.
«Bost behiren deiztia –nausiak erran du–
hemendik goiti, Jakes, dela zure kondu.»

Etxekoandreak jakin nork zer duen falta,
Jakesi karri dio alki bat xarmanta:
«Bost behiren deiztia lan aundia baita,
aisago deitziko'tzu behiak, jar eta.»

Bere alkiarekin poxi bat herabe,
bordara joan Jakes deusik erran gabe.
«Nik xutik deitz nitiok banindute jabe,
ez dakiat jarririk zertako den hobe.»

Tenoria zen eta Jakes ez ageri,
etxeko anderia berantesten ari;
noizbait ere jin Jakes izerdia dari,
erranez: «Deusetako ez da alki hori.

Jar arazi beharrez deizteko alkira,
boster entsegatu naiz bedera bedera;
batek ere etzuen gustoko kadera,
ostikoka berari arizanak dira».

«Etzaitela mendeka, Jakes, alki horri,
hortan zure jartzeko neraizun ekarri».
Oixtion mintzo ziren behiak elgarri:
«Gu Jakesen alkian ez gitaizkek jarri.»

Elgar nahiz tronpatu

Airea: (107) edo beste ongi joan den edozein)

Kantuz nahi dut erran zer pentsatzen dutan:
eritasuna dugu sartia zainetan;
giren bezalakoak ikusteko faltan,
ez girela natural bizi mundu huntan.

Aunitzek beren gaitza errain dut zer duten:
ttipiak izan eta haundi nahi zuten;
aunitzek baginuke beharra ikasten
etxe berria dela zimendutik hasten.

Lauetarik hiruer gustatzen zaikuna:
den baino apalxago ezartzen laguna;
etzaiku inportanta bertzien omena,
gurea da haundia eta konda dena.

Neska gazteak ere hartzen ditut barne,
aunitzek soberaxko ba ilusione;
goregi so ibiltzen bi begiak erne,
azkenekotz nihorek ez nahi nihun'e.

Berandu arte daude ilusionerekin:
aberatsek ditzaten andretzat galdegin;
nahi zuten ezkondu dudarik ez egin,
ta aunitz beren faltaz gelditzen mutxurdin.

Estimatzen bertzeak usu artzen gira,
lehenik nongoa den behatuz sobera;
balio hoberena, ene arabera,
kalitate onekin delarik bat bera.

Gauzak diren bezala ez nahiz aitortu,
ibiltzen dugu asko indar eta jestu;
gisa hortan artzeak gauza onik eztu,
hobe da arizanik zentzuz eta prestu.

Errealitatia errain dut behala.
nahi ala ez bere bidean dohala;
gu arizan eta're kontra in ahala
noizbait nonbait agertzen dela naturala.

Oro ariz frankoki, da ene ustea
bizitza ez laikela den bezain tristea;
nahi dugula batek tronpatu bestea,
guhaurek dugu iten munduko pestea.

Uste baino berantago

Airea: (93)

Geroaz ez deus inporta,
mementoan ez deus falta,
holako anitz bagirelakotz dezagun hau kanta;
gero finitzen da besta,
sinets hauxe nik erranta:
ardura uste gabetarikan dugula beranta.

Hau erranen dut gustora:
askori gure denbora
ustekerian pasatzen zaiku, goiz dela sobera
gero joan ta denbora
zauku etortzen gogora:
«Orain ez gituzkek nihondik hel behar den lekura».

Egun zirenak in behar
utziz egiteko bihar;
«gero dionak diola bego» dago erran zahar;
orain hauxe burian har
penaz ez gaiten gero jar:
eskatzen dela aintzinian ditzosozko bihar.

«Joaitian konda orenak»
dio lehengo erranak;
orok sasoinak izaiten tugu, bakotxak berenak;
uzkur ta alfer dagonak,
utziz pasatzera denak,
zaharrez hiltzen bada etzaiozka faltatuko penak.

Norbait denian zuhurra,
hauxe badaki segurra:
sortuz geroztik orok hiltzeko daukagula zorra;
bizitzak hauxe du tzarra:
beti hiltzeko lanjerra;
uste gabetan dugu artian denbora laburra.

Gero zernahi in gogo
askoren burian dago;
gure ustian badugu beti gero asti frango;
nor bere ustian bego,
bainan ni huntaz seur nago:
kasikan beti guk uste baino dela berantago.

(1978)

Amodioa gauza itsusia

Airea: (19)

Pilale'k:

Ene haurtasuneko denbora nola xori ttikiena,
ohartu nintzen airatu eta ordu arte zoin zen ona;
uste nuena libretasuna plazerrez zela egina,
orai jasaiten ari naizena aunitz xangrin eta pena.

Ene xangrinen erroa non den ertera noha tristerik:
arrosa eder bat dut miresten nola ez balitz besterik
lore hartarik usain gozorik urrunetik usmatzen nik,
bainan hurbiltzen nintzaiolarik arantzez dago beterik.

Nik zu bezala ez maite nihor; zertako bada, maitia?
Ene alderat senditzen zaitut hotztasun batez betia;
nahi dut, maitia, zuk jakitia, zuretzat nere bizia
eman nirola segur guzia, bazinu behar ordia.

Ezin menturatuz naiz egona, ene maitia Kattalin,
ausartatzera naiz galdegitera nahi 'zun ezkondu enekin;
guk elgarrekin, behauzu jakin, banakike nik zer egin:
zu ama ta ni aita hurrekin, oro ongi gintaizke jin.

Kattalin'ek:

Ohartua nago, bai, Pilale, amodiotan zirela,
ene ondolik zabilta nola arbola bati itzala;
zu zintaizkela senar fidela ez diro erran bertzela,
bainan erraiten daizut behala nitarik eza duzula.

Pilale'k:

Kattalin, ene maite maitia, zertako ene aldera ez duzu hartzen amodiorik? Horrek nerama galtzera. Mundua batera ta zu bestera, hautan banintze hartzera, zu har zintiot ene aldera, utziz mundua bertzera.

Kattalin'ek:

Pilale gaixoa, nahi daizut, orai hemen esplikatu: amodiorik ez dut zuretzat, garbi nahi dut mintzatu; beharko duzu ontsa pentsatu, eta ideia sanjatu, andriak zu maite ez bazaitu bizia triste dukezu.

Pilale'k:

Zertako ote gure artian horrelako desberdina? Nik zu maite ta zuk ni hastio, oi, hori zer bihotz mina! Nik dauketana biziko pena: zurekin ezin egona; noizpait zu urrikaltzen bazina zurea nindaik dena.

Amodioa gauza itsusia, ni ezarri nau maluros; begiez ez ditaike ikusi, diruz ez ditaike eros. Batzu ez ados, bestiak jelos, gutiak osoki uros; zurea nereari ezin jos; beraz, maitia, adios.

Ezkontza zer den

Airea: (106) edo ongi joan den edozein

Ezkontza zer den ontsa edo gaizki zerbait erraitera noa, esperientzia badutala, hori erran gabe doha; nahiz jakitatez pobre naizen kusirik ba'ut nahikoa, pentsatzen dutan bezal bezala dena hementxet badoa.

Ezkontzak badauka anitz plazer, bai eta're zonbait pena, «Ais'izanaren biharamuna» da lehengoan errana; Jaungoikoari apezka berme ez ahantz hitz eman dena: plazerrak biek partaiatzia ta penak berdin berdina.

Katalinek maite du Periko, aldiz Perikok Anita, Anitak aldiz maite du Antton, eta hunek Margarita; elgar ez bada osoki maite ezkontzarikan ez planta, ezkontzak makur haundiena du amodioaren falta.

Ontasunaren gatik ezkontzen anitz presuna tunante, egun bat onik familietan gero ondoan ez dute; ontasun hoberena hauxe da: elgar izaitia maite; pena guziak arinak dira unionia badute.

Ezkontza zangoaren pare da, biek berdina sanfreta: zangoa baino ttipiagoa ez da konbeni zapeta; sobera haundi bada're jartzen muturrez gora zut zuta, gustora ibiltzen da bakarrik izarikoa hartuta.

Ezkontzak ekartzen duena da naturalki berekilan: haurrak direla jiten ondolik, nola fruituak arbolan; nahiz hazten ta ongi altxatzen emaiten duten frango lan, guk ere gure burrasoeri hori dugu in denboran.

Ezkontzak ere baitu segurki aurkia eta binperra,
senar emaztek ere izaiten zombait aldiz desakorra;
batzutan desakor harek badu purgatziaeren beharra;
orroit, erauntsiek ondotikan dute denbora ederra.

Errespetu ta fidelitate ta elgar ontsa zerbitza,
bizi gireno ezkonduz geroz hola dugu eman hitza;
ez badugu hori akonplitzen denen kaltetan gabiltza
galda hortako Jaungoikoari indarra eta laguntza.

(P.J. Etxamendy-ren esku-idatzietatik)
(*Príncipe de Viana*, 1975-II)

Bertsolarien salbatzaile bateri

Airea: (74)

Gizon eta emazte munduan garenak,
Jaungoikoaren haurrak sortu ginen denak.
Ez garela atera guziak berdinak:
batzu oso balios, bestiak ez onak;
on horiek emaiten neri atseginak.

Euskal-Herri zaharraz noha mintzatzeraz:
bertsolari handiak lehen izan dira;
heien lan gehienak zohazan galtzera,
gizon balientiak ez balire atera,
orain heien aunitz lan dohaz salbatzera.

Nahiz aunitzek duzten merezimendiak,
ez ditzazket izenda oraintxe guziak.
Batto aipatuko dut, utzirik bestiak.
Bihotzian hauk ditut nik sendimendiak:
zorretan gare hari euskaldun jendiak.

Bertsolari izanek zeruan plazerrak:
«Gure lanak guziak ez ituan alferrak».
Antonio Zabalak dabilta lasterrak,
Euskal-Herri guzian kurrituz bazterrak,
heien lehengo lanez betetzen paperrak.

Ongi hartu baleza hauxe erran nio:
«Lan hoiek egiteko behar dela jenio.
Bertsolariak hauxe aitortu behar dio:
heien salbatzailea dela Antonio,
Jaungoikoak bakarrik pagatuin dio.

Milaka kilometrak bizi bait niz urrun,
xantza guti dut haren ikusteko nihun.
Haren liburuekin zonbait denbora hun
pasatzen dutala nik erten diot egun;
Jaungoikoak dezola luzazko osasun.

Bertsolari berriek, zaharrek bezala,
zorrak ez diozkitzute pagatu sekula.
Hala ere segi zazu, otoi, hola, hola!
Pedrok hitz ematen du hauxe, jaun Zabala:
zeruan denek kantu inen dizugula».

(Príncipe de Viana, 1975-IX)

Muslari xapeldunak

Airea: (98)

(Mus zale anitz bada Amerikako euskaldunen artean, eta txapelketan klub guztiak parte hartzen dute. Horrela, 1981. urtean Chino California'ko muslariak Ipar Amerikako txapeldun atera ziren, eta bertsuok haien omenez jarriak dira.)

Bederatzi ehun ta laur hogoita bata,
ohoretan da aurten Nort' Ameriketa;
«jaunen jaunak izaiten» errana're baita,
deklaratzera noa zer dagon sujeta.
(Errepika) *Trala lalalala...*

Jokorik ederrena museko jokoak,
mundu guzian joko omen haundikoa;
xapeldun izaiteko, erran gabekoa,
ez dela behar izan burutik flakoa.
(Errepika) *Trala lalalala...*

Chino'ko Klubakoak zoin gehiago hortan
ageri zen behala etzirela dudan;
katzaka haundietan aizanik borrokan,
hek ziren hoberenak Norte Amerikan.
(Errepika) *Trala lalalala...*

Beste nazionetan ere xapeldunak,
muslariak zituzten beren hoberenak;
jakiteko nor ziren denen jaunen jaunak
Mexico'ko hirirat bildu dira denak.
(Errepika) *Trala lalalala...*

Muslari hoberenak airekoz joanik,
bazterrak han serio ikusi ditut nik;
aste osoa hantxet bentxidan izanik,
deneri nagusitu Peio ta Dominik.
(Errepika) *Trala lalalala...*

Norte Amerika da ohoretan aurten,
zeren xapeldungoa irabazi duten;
nahiz xapeldunek hau gorderik daukaten,
zilarrez kargaturik kusi ditut jiten.
(Errepika) *Trala lalalala...*

Bazter guzietan ziren musian aizanak,
xapel hori burian hartu nahi zutenak;
bi jaun Chino'rat lehen Izpuratik jinak,
orai mundu guziko dira xapeldunak.
(Errepika) *Trala lalalala...*

Muslari xapeldunak ohora ditzagun,
horiek bezain onik zerden ez den nihun;
gauza hau ikus eta uros naiz ni egun:
euskaldunak daudela orotan txapeldun.
(Errepika) *Trala lalalala...*

(*Herria*, 1982-III-18)



Pedro Juan Etxamendy eta bere emazte, Matilde,
Euskal Herrira egindako bidai batean, 1972an.



Pedro Juan Etxamendy-ren emaztea, Matilde, Euskal Herrira egindako bidai batean, bere anai Fernand eta bere hiloba P.J. Etxamendy, 1972an.

Mexico'ko kapitalera

Airea: (18)

(Chino California'ko muslariak Mexico'ra, munduko txapelketara joan eta han txapeldun atera zireneko bertsoak.)

Aurten zer zaukun gertatu
behar dut orai kondatu,
nahi duenak aditu;
bakazionetan juaiteko batek planak atera berri'tu;
horrek soinu ona baitu,
ez da biziki akitu,
lagunak fite in ditu.

Mexico kapitalera
muslarien laguntzera
Chino'tikan joan gira;
gure bi muslari xanpionak etziren fida sobera;
gu kuraiosak baigira,
gurekin azkartu dira
eta xapeldun atera.

Mexico hirirat joan'ta
sosa eztuenak falta
badu beti errekesta;
ikasi orduko nola jan t'edan finitu zen gure besta;
batzuk bazuten non josta,
gibel aldia prest presta
hango uretik ase'ta.

Han gintuzten abisatu:
«Urarekin ez jostatu,
kolikak emaiten ditu».

Arnaud ta Pedrok uraren faltan daukute anitz sofritu;
bazen han zombait ostatu,
bainan behar zen xerkatu,
hortan dirade nekatu.

Baginuen gidaria,
ttikia bainan joria,
pint'erdiko izaria;
hasi zitzaikun lehenbizian zarri nahiz larderia;
guk gogortuxko buria,
utzirik haren legia,
egin ginuen guria.

Muztatxak eta bizarrak
ustez zuztenak ederrak
jin ziren Europatarrak;
heienak baino ederragoak zuzten Reka ta Ibarrak;
galdu zituzten indarrak
ikusiz berenak txarrak
ta moztu bizar ondarrak.

Ibili gira kaletan
leku ta puska kusketan
maingu zenaren kaltetan;
bitxo batzu're jiten zitzaizkun aintzinerat arratsetan,
dudarikan ez da hortan,
guri behatuz artetan
zabiltzan bere lanetan.

Orain bakantzak onduan
ostalertsu dut goguan,
hartaz gaude jeloskuan;
lehenbizian oinez zabilan gu ginabiltzan moduan;
ta gero handik onduan
goratu zauku graduan
ta etxerat jin *manduan*.

(1981)

Dirua edo sosa

Airea: (7)

Huna zertaz dauketan egungo solasa:
batzuek deitzen dirua ta bertzek sosa;
munduan bizitzeko gauza baliosa,
tzarra baduela're erran daike aisa;
 etzaiztela lotsa,
 nik eman abisa,
 ez da lanjerosa;
esplikatuko dut ahal bezein ontsa.

Diruak hauxe dauka bere katixima,
bizia egiten oro gaiten berma;
gizonak ezarria sosaren sistema,
gauza beharra dela dezagun estima;
 duena lastima:
 galtzera derama
 anizko arima;
Satanek hori du ihiziko harma.

Dirua egin daike aunitz gisetara,
bainan bide nagusiak biga dira;
zuzenki ta oneski ibiltzen bagira,
geroaren beldurrez ez egon ikara;
 batetik bestera
 behar den tokira
 gauzak jiten dira;
guk kusi gabe dago Jainkoa begira.

Ezkerreko bidian Satan buruzagi,
buruan har dezagun ez da goizegi;
zuzenian iteko aunitz jende nagi
bagirela munduan badaki, bai, ongi;
zertan den ibilki
Satanek badaki
erraiten abilki:
«Diruz aseko haut, haugi hunat, haugi».

Diruaren sudurra aferu guzietan
sartzen da, bai ere amodiokotan;
amodiotan ziren Maria ta Petan,
neskarikan hain maite ez omen du izan;
ezkondu betbetan
Bizentarekila
ta berak daut erran:
«Ez nian maite bainan aberatsa zukan».

Irabaz eta gasta behar den lekian,
dirua balios da bere izarian;
diruaz kestione heldu zatzunian,
atxik kontzientzia bide zuzenian;
Satan ingurian
dabila airian
atxiki burian,
Jainkoak har gaitzan azken orenian.

(*Herria*, 1982-XII-30)

Europa dena bat

Airea: (19) edo ongi joan den edozein

(Etxamendy gizon goiztiarra genuen, bertso hauek 1974n moldatu baitzituen. Gaur Europako gidariek batasuna nahi lukete –gauza ederra hori–; baina euskaldunok noiztik gabiltza “Zazpiak Bat” kantatzen? Eta kantatzen genuen bakoitzean zer entzuten zan? Fanatikoak eta atzerakoiak ginela esaten zuten Frantzi ta Espainiko politikoeak. Hain zuzen Europa bildu nahi duten horiek ezarri zuten muga banatzailea Euskal Herrian. Gure amak aspaldi esaten zuen, «Guzurre esan neban mendijen, neu baino leen zan herrijen.» Etxamendy’k ondo zekien arrazoia eta legea indarraren morroi bihurtzen direla komeni denean, eta hauxe da abisatzen diguna: Herri txiki batek ezin duela indarrez bildu, eta giro den arte pazientziz itxoitako, baina bitartean, lo egin gabe, jasotzeko euskararen bandera. Kontseilu honek 1974n eta gaur berdin balio du).

Nere izaitia nola dagon ertera noha bi hitzez:
euskalduna naiz sortzez, mintzairaz, bai gogoz ta bihotzez;
Ameriketan amerikano eman naute egun batez,
aldiz Frantzian frantsesa nago, nahi izanik ala ez.

Izen ttikia dut Pedro Juan, deitura Etchamendy,
zahartuxia mainguka nabil, bi makilekin hor gaindi;
bainan horien ororen gatik oraino ideiak haundi,
gogoko berri ertera noha, nahi duena beha bedi.

Euskaldun gisa Euskal Herriaz daukat ene arrangura,
nazione bat in nahiz hortaz batzu enseiatzen dira;
euskaldunak joan laizke hortan ehun urtez gibelera,
oroit alor baten egiteko ez dela aski ganbera.

Dakiguna Ipar Amerika da nazione azkarra,
behar dugu ere konprenitu zer gisaz duen indarra:
berrogeita hamar nazionek egina batto bakarra,
«unituz azkar, banazka ahul», hori da erran zaharra.

Gobernu on azkar baten peko ezarriz Europa dena,
legeak izan bite zuzenak, denentzat berdin berdina;
artzeko parte elgarren hiltzen, usu ikusi duguna,
baluke errespetu ta bake, zeren laiken azkarrena.

Deretxo aunitz begiratzeko badugula ezin uka,
euskaldun ohidura zaharrek diuzte urteak ehunka;
heiek behar dira begiratu, eta ez egon dudaka,
ardietsi arte behar dena ez lotsa eta ez barka.

Ez izanta're oso konforme huntan batzu eta beste,
anaia batek, urrun danikan, hauxe eskatzen dizute:
pazientziaz usa buria, tenoria jin den arte,
ahulek indarka gauza guti ardiesten ohi dute.

Zazpi probintziak erakutsiz atxik euskaldun bandera,
eta oroz gainetik begira gure mintzaira euskera;
Jaunari nago laguntza galdez beste guzien gainera:
ahalik lasterrena Europa zar araz dezan batera.

(1974)

Xalbador bertsolaria Ameriketean

Airea: (73)

(«Aire hau Chino'n aditua dut, jaun bat ari zen kantatzen» dio J. P. Etxamendy'k lehen bertsoan. Jaun hori Xalbador zena zen).

Aire hau Chino'n aditua dut, jaun bat ari zen kantatzen,
aurpegiz triste, begiak apal, etzuen nehoi behatzen;
triste iduri izanagatik barnetik alegera zen,
egon nindaik berriz, Salbador, gogotik zure aditzen.

Gure etxian gelditu zaizte ez ginelarikan nehor,
geroztik hunat penetan nago, sinist nezazu, Salbador;
desertu huntan euri guti da, bazterrak kusi tzu idor,
ojala horgo soberakinak hunat bazintzate igor.

Gu munduaren bi bazterretan gare edo urrunago,
estakuru bat pentsa ahal balai, jar gaitezen hurbilago;
mutil bat behar bazinuke zuk, nik banuke asti frango;
etzuzula zuk hola nahiko beldurrak harturik nago.

Eskual Herrirat beste urtian jinen naiz oraiko ustez,
aro hunetan ziek lanian, asti soberakinik ez;
hemen paisolaik eztut ibili hogoi eta zonbait urtez,
batto hartu ta jinen naiz horrat, euria ari den batez.

Munduan ezta izaten nehor konple dagonik orotaz,
denbora ezin hilez ari naiz, arta hartzen kantu hotaz;
konkurrantzarik eztauzut inen, segur izan zaite hortaz,
nik bi astez baino gehiago pentsatzen zuk bi minutaz.

Aire horiek kopiatu itut, Fernando Aire, burian,
zerbait zuk aterako duzula horietarik agian;
gehienak gogoz ikasiak tut lehen Eskual Herrian,
begiratu zuk xoko batian soiteko bien artian.

Orai nik uste baduten hemen aski espantu eginik,
Pedro Juanen jakitatia kusia duzu jadanik;
negozio huntan kusten baduzu deus nik egin diotanik,
galda guztian zuk, Salvador, ein ahala einen dut nik.

Arbolaren ostoen iduri

Airea: (74)

Arbolaren ostoeak jendia iduri;
haur baten pare dire primaderan guri;
udan azkar ta eder, gaztiak iduri;
larrazkenian eihartuz lurrerat erori,
neguan gehiago ez tire ageri.

Mundu huntan berdintsu bagoaza denak,
izaiten tugu denek guhauren sasoinak;
Jainkoak emaiten tu gorputz et'arimak,
egin ditzagun hetaz nahi ditugunak,
hil ondoan berexten txarrak eta onak.

Txarrentzat ifernua, onentzat zerua,
eternitatekotzat da gure lekua;
Satan gure ondotik egun ala gaua,
tentazionez betetzen gure ingurua,
ontsa gobernatzia zeruko gakua.

Primadera ta uda, gero larrazkena,
gizonaren bizia horixe da dena;
nola osto izotzak eihartu duena
aize birrista batek lurrerat derama,
handik goiti ez tio salbatu arima.

Adixkide artean

Lacosta'tarren afaria

Airea: (16)

(Euskaldunak EE-BB'etan elkar biltzeko xantza izanik nekez huts egiten dute. Bertso hauetan Lacostatarren bilkura kantatzen du Etxamendy'k otsailaren 26n).

Atseginekin izana dugu egun jiteko gomita,
adixkidekilan goxatzia, plazer haundiagorik ezta;
pena izanen nien segurki huts eginez gaurko besta,
erremestiatzen ziuztet hortaz, Marie-Jeanne eta Lacosta.

Aita-amak nigarrez utzirik, oroitzen niz ontsa aski,
etxetik partitzian zitien hamazazpi urte naski;
artian kusi baditu ere zuri eta beltz ausarki
haur denbora ta zahar denbora pasatzen ditu goxoki.

Ez dakit horren berri guziak bainan huntaz segur nago:
Lacostak bere denboran badu seur eginik tratu frango;
bainan bat egin zuen bestiak baino puskan hobiago
Marie-Jeanne hori zielarikan bilakatu andretako.

Urte guziez ikusten tugu Kalifornia'rat jinak
bakazione ta estakuru pasatzen denbora hunak;
nahiz leku hotz eta bipilak ere baituen Montana'k
Lacostatarrek han duzte egin largoki beren fortunak.

Orai milesker gaurko gomitaz, Lacosta eta Marie-Jeanne,
juan den urtian e zien bestan holatsu ginen arizan;
zaurte Chino'rat arduraxago, ez gure beldurrik izan,
beste besta baten iteko're uste dut jada prest nizan.

(1985 Otsailak 26)

Ben Bidart eta Lacosta

Doinua: (16)

(Bertso hauek aurrekoen antzekoak dira).

Gomita izan dut telefonaz jiteko Chino'rat egun,
besta baten emaile zirela bi gizon gazte euskaldun;
gu hiruak diferentak gira ehunarendako ehun,
bainan enetzat izanak dira beti bi adixkide hun.

Bataioko ta merietako liburien arabera,
lauetan hogoi urte omen du sortu zirela mundura;
ez dutela jostatzen pasatu geroztik beti denbora,
baten ala bestiaren obrak orai lekuko hor dira.

Kasik haur batzu jin ziren naski biak Ameriketarat,
Pedro Juan joan zen Norte alde, Californiarat Beñat;
haurrak ontsa altxatu duztela ere nere baitan daukat,
zeren beren haurretarik egin dute bedera abokat.

Bi negozio diferentetan dira biak arizanak,
ez giten izan jelos hauietaz in duztelakotz fortunak;
badakit lanian artzen zirela batzutan gau ta egunak,
aspaldi hilak izanen ziren hiltzen izan balu lanak.

Besta hunentzat milesker orai, Ben Bidart eta Lacosta,
plazer haundiagorik enetzat holako bat baino ez da;
beste hogoi urteren burian, ehuna urte bete ta,
jinen niz berriz zien bestarat izaiten badut gomita.

(1985)

Beñat Etxamendy'ri

Doinu: (63)

(Erran bezala, bere elduaroan Pedro Juanek artritis harrapatu zuen mokor-ezur berriak jartzera behartzeraino).

Atzo errezibitu baitut zien karta,
plazer egin dautala dudarikan ez da;
bat eri dagonian tristerikan baita,
ordian da ageri adiskide falta.

Eni anka berri bat ezarri dautate,
zure horien berdina ditaike nik uste;
anixko sofriturik badut orai arte,
zango bateko minak ekendu dauzkate.

Anka berriarekin ina dut hastia,
ontsa izanen dela dut ene ustia;
zaharra jarria zen ahal zen tratia,
eta holatsukoa dut ere bestia.

(1988 martxoak 30)

Jaun-andre esposeri aitak

Airea: (32) edo (115)

Espos maiteak, hementxet nago orai zueri begira,
arribatu da beha zinauten ezkontzeko egun hura;
gure haurrak zireztela bainan zalu joanki denbora,
zien ezkontzak emaiten gaitu egun zerbait gisetara,
ezin konprendituzko gisetan, triste eta alegera.

Gure haur maite maiteak, hemen aita bat zaizue mintzo,
haurren ona du gogoan eta nahi duenak beha bezoz;
zietaz arranguretan ginen oraino aitamak atzo,
orai arte zineztela libro nola airian bi urtzo,
orai zaizte elgarrenak eta egon fidel eta zintzo.

Amodioak kausaturikan zaiztela egun ezkondu,
guk uste gabe mundua hola Jaunak ibil arazten du;
behar ordutan hartaz orroitu Hark behar zaituztela zaindu,
plazerrak biek partaia eta penetan elgar arindu,
egun elgarri hitz eman gauzak ez baztertu edo galdu.

Jenney eta John Ysursa'ri

Airea: Airea: (32) edo (115)

(Chino, California'ko euskaldun biren ezkontza eguneko bertsoak, 1988. uztailaren 9n).

Amodioak egin arazten du munduan anitz gauza,
hortxe berian baitugu probak, nork berak so egin beza;
bi bihotz gazte elgarrekilan, Jenney eta John Ysursa,
entzun ditugu plazerrekilan elgarri emaiten hitza,
bizi direno elgar lagunduz einen dutela bizitza.

Egun baitzaizte ez-titasunez ta amodioz beteak,
bizian egon elgarrendako holaxet, espos maiteak;
plazerrak hartu biek erdizka, baita're nahigabeak,
Jaunari galda otoitz eginez, Harek ditu botereak,
haur batzu ere jin ditzen onak, ta bertze batzu hobek.

Familiak eta adixkide, bai eta zien lagunak,
ez da dudarik, bozkariotan gaude hemen egun denak;
euskal mintzaira eta kultura, hain beharrak ditugunak,
badakigu ziek hortan ere ibiltzen tuzien lanak,
hortako ere guzien partez konplimendu hoberenak.

Bi familia errespetuzko, eremanez beren saila,
dira Petrisans eta Ysursa, orok dakigun bezala;
ikusten dugu hirugarren bat hoitarik moldatu dela,
oro felizitazen tugula erran beharrez nabila,
eta desiratzen diotegu Jainkoak lagunt ditzala.

Ezteietan esposeri kantatzekoa

Airea: (78), (74) edo (92)

Jaun andere esposak, zien aitzinian
kantuz hasten niz orai, denen izenian;
ikusi ditut batzu eliza barnian
plazerraren plazerrez nigarra begian,
zien sakramendia obratu denian.

Oso plazerrezkoa egungo eguna,
hartu duzielakotz biziko laguna;
Jainkoaren eskutan izaiten fortuna,
egun otoitz eginez, galdatu dioguna:
bizitza bat zientzat luze eta ona.

Bizi modu berria egunetik haste,
zeren egin zirezten senar eta'mazte;
orai elgarren jabe bizi ziezten arte,
plazer eta penetan hartu biek parte,
egungo hitzik ez jan, gisa bat ez beste.

Noizbait zerbait gisetan bazauzie heldu
kontrako lagunekin zerbait tentamendu,
eraztun bana egun erietarat bildu;
heier behatuz batek oroitu behar du,
ohore t'errespetu ez dioiat galdu.

. , zu zitaizke hemendik aitzina,¹
nola kofoin batian erle erregina;
. , etxerat ekar hango behar dena;²
etxearen barnian zuk oro governa,
eta senarrarentzat izan beti ona.

Zuri mintzo naiz,, zuk ere hau entzun:³
fortuna baten jabe egin zira egun;
andriarentzat egon egun bezain legun,
atxiki errespetu ta borondate hun,
senar hoberik ez da behar izan nihun.

Iten duzie iduri hor bien artian
arbola frutakoa baratze batian;
frutak jin diton onak heldu direnian,
galda Gaineko Hari, komeni denian,
zeren denen gakoak Hark ditu eskian.

Espos eta burraso, adi nik erranak:
kanbiatzen tu gauzak egungo egunak;
espos maite horiek, zien haur zirenak,
egunetikan goiti, oroit ziezte denak
elgarri dituztela einbide lehenak.

¹ Hemen sar andere esposaren izen ttipia.

² Hemen sar jaun esposaren izen ttipia.

³ Hemen sar jaun esposaren izen ttipia.

Beñardo Lapeyre ene adixkideari

Airea: (43)

Adixkide Beñardo, zer berri hor gaindi?
Hemen arranguran duk Pedro Etxamendy;
hark ere lehenago espantiak haundi,
orai aldiz hementxe ixil eta geldu.

Iduri ziaik atzo ginela Beñardo
bestan, jokuan, jantzan, gazte eta sendu;
orai erraiten die: «Pedro Juan e hor do,
zahartu trepeldia ta jarria gordo».

Oraino pidaia bat nahi nitek in hor,
launetako atzeman ahal badut nihor;
uste diat Ondarla'i bautala zerbait zor,
artian ahal baduk horko berriak igor.

Ez izana gatikan hazia guriki,
horko orroitzapenak burian ibilki;
sort lekiarentzat gehienak naski
badiuk amodio, guti edo aski.

Ene adixkider hor eman goraintziak,
lehen penarekin ditiat utziak;
saluta ere horgo donado guztiak,
nahiz emazte faltan ez izan heziak.

Urte berriak egun dik lehen eguna,
zaharra barda diuk ihesi joana;
ondarlar guzieri desiro duana:
urte hun, urostatun eta osasuna.

(1979 urtarrilak 1)

Marie-Jeanne eta Gratien Bidegain

Airea: (63)

Plazerrekin izan dut zien telefona,
arranguretan nintzen poxi bat egona;
iten nin: «Izan die bearba suerte ona
Las Vegas'en iteko jokuan fortuna».

Gratien ikusi dut aise ageri zen,
zuri ere kantiak zauzkitzu gustatzen;
horietan ar ziten denbora pasatzen,
bakar batzu dauzkitzut hementxe igortzen.

Elgarrekin gertatuz batzutan guziak,
zien bisitak ditut ezin ahantziak;
salutatzen ziuztet batzu ta bertziak,
eta errezibitu gure gorantziak.

(1992)

Monique eta Peio Berterretch ¹

Airea: (33)

Gaurko ene suieta bi senar emazte,
aspaldikoak dira ta oraino gazte;
ezkont berri direla iduri lukete,
ta ezkondurik baute ja berrogoi urte.

Gazte gaztetik biak ditut ezagutzen,
Donibanen artzen zen Peio esne saltzen;
gero bigarren gerla haundi hura jin zen,
elgarrekin soldado ginen han aurkitzen.

Monique ere ikusten nien han ardura,
ni soinu jotzen ari eta jantzan hura.
Norat eskapatu den geroztik denbora!
Nihondik ez diozkat kondiak atera.

Horien unioniak erro onak dauzka,
pasatu eta ere noizbait zombait kezka;
joan den egun batez e ai ziren mokoka,
gero behala akort Peio ta Monika.

Aunitzek hau probatzen dute nahikoa:
maitetasuna dela mixteriozkoa;
Peio ta Monikenak daukan balioa
obrak lekuko duzte, erran gabe doha.

Euskaldunek ta bertzek erranik igual du
hemen dugula hartzen aunitz goxamendu;
zaite luzaz holaxet euskaldunen saindu,
gure goxamendiak ez ditzagun galdu.

Orai hemen gaudela ongi jan edanik,
felizitatzen tugu Peio eta Monik;
berroi urte elgarrekin pastiak jadanik
desirazten diozkatet beste berrogoi nik.

(1993-09-24)

¹ California'ko bikote bikain honi Charles Moustirats, Californiako bertsopaper egileak ere opatu zizkion bertso batzuk.

Peio Berterretche

Airea: (16)

Nahiz uste gabetan bezala naizen gaur hemen gertatu,
bulto ttipiko gizon haundi bat nahi dauziet aipatu;
ixil aire espanturik gabe aferak iten baititu,
hogoi urteak ere lau aldiz holaxe zaizko pasatu.

Mundu guzian famatia da *Centro Vasco*'ren izena,
Peio Berterretche jauna da aldiz hortan nagusi dagona;
hotelak fama haundia bainan badu ere nahiko lana,
Peiok iten duena hauxe da: bertziak lanerat mana.

Bizi guzian bere lanetan da seriocki jokatu,
Euskal Herrian gazte denboran lan asko eginak ditu;
Wyoming'eko mendiak ere ditu ontsa ezagutu,
gero Chino huntan zen jokatu eta hementxet kokatu.

Ez da dudarik nik erran gabe badakiela jadanik
baduela Peiok tratu asko bere denboran eginik;
tratu guzietan hoberena noiz in zien badakit nik:
hura da bere espos laguntzat hartu zuelarik Monik.

Peio hotelian nagusi bainan bego hau're'rran dezatan:
Monik'en begia're hor dabil erne izkina guzitan;
hotelian fini dutenian etxerat joan ta atsetan
han ere jokatzen omen dira bertze lan klase batzutan.


Denborak anitzeri zauzkigu uste gabian pasatzen,
Peiori kasurik ez nion iten ustez oraino gazte zen;
zaharragoetarik bainiz ni egun hau diot manatzen:
egon dadien luzaz oraino *Centro Vasco*'ren gidatzen.

Ez duenak ezagutzen Peio entzun orai nik errana:
dela sekulan ongirik baizik egin ez duen gizona;
gure Jaunari Peiorendako hau da galdatzen dutana:
emon dezon beste ehun urtez bizi dadin luzamena.

(1998 azaroak 8)



Amegiko herria.



Luzaideko herria.

Apezetxe'ren trinketa

Airea: (18)

Hemen North Ameriketa,
ehunka euskaldun baita,
gurea dugu pilota;
plaza laxoak baziren nunahi bainan falta zen trinketa;
norbaitek gostaia gusta
in zuen batto xarmanta,
Apezetxe du horrek aita.

Xabier Apezetxe hori,
pilotarien gidari
eta bera pilotari;
pilotaz kanpo ere trinketak zerbitzu iten orori:
jantzari eta kantari,
izan euri ala ateri,
dira guziak hor ari.

Oroit bedi euskalduna
hain dagola obra ona
Apezetxe'tarrek egina;
euskaldun guziek trinket hortan hartzen dugu atsegina;
ez zieztela engana,
ez laike gauza berdina
trinketik gabe bagina.

Bai Therese ala Xabier,
zietaz gira hain fier,
eskerrak dauzkitziet bier;
trinket bakarra Ameriketan ta hori eskerrak zier;
munduko pilotarier,
zaharrer ala gaztier,
baliatzen da guzier.

Aita Cachenaut'i

Airea: (112) edo beste ongi joan den edozein

(Mendebalean euskal apezak badira; eta bat, California'ra Baionako gotzainak igortzen duena. Urte batzuen buruan apez berri bat etortzen da, eta etxera doanari despeida kartsua egiten zaio. Etxamendy'k Cachenaut'i bertsu hauek kantatu zizkion).

Nahiz ene bertsu emaitia dagon ahal den botiga,
halarik ere nahi nituzke gaur erran bat edo biga;
Aita, zutaz ibiltzen baitugu asko solas edo blaga,
nahi nezauke gaur konfesatu kontzientziako karga.

Nik ez dut nihor aisa laudatzen, hori nornahik badaki,
bainan zalu ohartzen naiz zerbait egiten badute gaizki;
orai arte gaizkirik ez du in, hortaz nago segur aski,
orain egiten duzun gaizkia: gu utzirikan joanki.

Usu batzuek galtzen dutena bestek irabazten dute,
gastatu gitzu Ameriketean euskaldunak orai arte;
agerian da gazte ta zahar orok zaituztela maite,
Donibane Garaztarrek ere hori jakinki nik uste.

Behar balira erran in tuzun hurrats eta lan guziak,
liburu haundi batian ere ez litaizke sar erdiak;
badugu zuretzat sendimendu, badauzkagu ere gordiak,
zu zinen gure artzaina eta gu ginen zure ardiak.

Gero're izanen dira zonbait zu ikusteko antsian,
uste gabetan bisita zonbait izain duzketzu etxian;
pidaia zonbait eginen duzu zuk ere hunat agian,
bortak zabalik uzten dituzu Ameriketa guzian.

Etorri zukun Aita ordaina bihotzez ongi etorri,
pentsu dut handik ez daukutela edozoin xori igorri;
nik manatzeko ahala banu erran nezoke ber'horri:
beha zaite Aita Cachenaut'ri, otoi, Aita Etcheverry.

Fortunari ez gira ohartzen guhaurekin daukaguno,
bainan galduta dugu ikusten zonbat ona zen lehen;
zutaz orroituko gira hemen hain segur bizi gireno,
Pedroren otoitza haxe da gaur: «*God Bless You, Aita
Cachenaut.*»¹

(1986 - 09 - 28)

¹ Ingelesezko azken hitzak «Jainkoak bedeinka zaitzala» erran nahi du.

Aita Etcheverry'ren Despeida

Airea: 16) edo (115)

Adixkidiak, otoi barkatu ene kantatze trixtia,
iduritzen zaut zor dutala gaur bi pertsuren emaitia.
Hemen norbaiti tokatzen zaio gutarik urrun juaitia,
utziz euskaldun arraza hemen askitto penaz betia.

Orai mintzo naizen sujeta da gure Aita Etcheverry,
zerbitzu baliosak eginez ibili da herriz-herri.
Nago handikan haundiegia etzaukutenetz igorri,
zerbait gisetan kentzen daukute jarri orduko elgarri.

Zurekin ginen doi doia hemen goxatzen hasiak
apezek ere dudarik ez da baituzie nagusiak;
Jaun Apezpikiak uzten gitu hemen apezegosiak,
hortako egin gogo diozka Pedro-Juanek erasiak.

Orai ordu da zure alderat seriozki mintza gaiten,
eliz zerbitzu miresgarriak zintuen hemen emaiten;
baginuela zure beharra entzuten baita erraiten,
guk baino urte hobiagoa dute Bardoztarrek aurtan.

Orai geldituko gira hemen ez sobera alegera,
halere bizi gireno zure adixkide izain gira;
bildu baituzu aunitz estimu zure obren arabera,
zuretzat eginen dugu otoitz, zuk in guri gauza bera.

(1989 irailak 16)

Arnaud Minaberry'ren Despeida

Airea: (21)

Adixkide bat zauku mundutik partitu,
pena haunditan hemen oro uzten gitu;
nik uste dutana da, behar dut aitortu,
hoberenak lehenik Jaunak hartzen ditu,
eta haren legia behar obeditu.

Orok ibiltzen tugu gogo etsaminak:
ez girela mundurat sekulako jinak;
halere holakoak ukaldi saminak,
Mayi ta familia, zaudezte jakinak:
egun zier dohatzi gure doluminak.

Arnaud, uzten gaituzu triste mundu huntan,
luzaz egonen zira gure gogoetan;
jinen gira gu ere bertze egunetan,
atzemanen zaitugu, dudaik ez da hortan,
aingeruen erdian ixtorio kondan.

Guziak jostarazten hain zinuen maite,
hola hola zeruan ere segi zaite;
otoitz eginen dugu han sar zaiten fite,
gelditzen gira, Arnaud, orai hemen triste
erraiten dautzugula: «geroxago arte».

(1989 uztailak 23)

Aita Elizagaray'ri letra gorri bat

Airea: (21)

Nahiz holako letrak jiten zauzkun bakan,
letra gorri bat atzo dut etxera ukan;
errepostu bat orai bizpairu bertsoan,
nahi daizut igorri gogoan zer dutan,
ahalge aire batek hartu nau bet-betan.

Kusi dut letra hortan, ingleseiz emana,
nola bizi den hemen apez euskalduna;
arimen fagoretan derabila lana,
euskaldunak zeruan nahi luzke baina
arte huntan hetarik espero du jana.

Baditu hiru urte hemen zabiltzala,
fama du euskaldunak bihotz on garela;
gauza bat behar daizut aitortu behala:
utzi bazinituzte orok nik bezala,
aspaldian goseak zinitaizke hila.

Azkenean igortzen deraizut zerbaitxka,
aita Elizagaray, otoi, guziz barka;
letra horrentzat ere eskerrak milaka,
mementoan lana're dukezu pilaka,
atxik buru deneri jestuz edo indarka.

Eguerritan familia reunitzen gira,
ene haurrak zerauzkit etortzen etxera;
hortako egoiten naiz joan gabe Chino'ra,
hor pasa Eguberri uros t'alegera,
ta urte on orori da ene desira.

(Eguberri, 1993)

Marie Minaberry

Airea: (35)

Hunat jiteko egun Mayi'ren gomita
izan dugula orok, dudarikan ez da;
okasione hoberik etzitaiken gerta,
zeren besta iteko Pedro beti prest da.

Mayik urteak egun bete ditu omen,
horren ohoratzera jinak gira hemen;
ahantzia dut zonbat konplitu dituen,
bainan nonbria uste dut hemeretzi den.

Izan eta're hogoi ez baitu inporta,
nahi nuke laudatu Mayi'ren konduta;
kuraia ta ahala seur ez ditu falta,
ta lagun hunak ere badaki nun hauta.

Dakiguna da orok, ez segetia,
negozio haunditan dagola sartia;
semeak ditu hunak, hori're suertia,
negozioak aise heien gain uztia.

Orai ele alferrak uzten ditut bazter,
ta nahi diot erran Mayi'ri milesker;
erran nahi dut ere batzui ta bester
juntatuko girela agian berriz laster.

(1994. otsailak 12)

Piarre Agerre'ri bi adixkidek bisita

Airea: (12)

(“Piarre Ttipi” (Piarre Agerre) eri delarik, adixkide on bi bazozkio ikustera. Bata bertsolaria izanik, bertsoz saiatzen da Piarre Ttipi kontsolatzera, artean gazte denborako ibilaldiak gogoratuz).

Adixkide Piarre, zure ikustera
Arnaud ta Pedro Juan etorriak gira;
biek berdina dugu egungo desira:
azkartuta beazula hortikan atera.

Gora beherak orok izaiten ditugu,
edo zoin sasoinetan, uda ala negu;
bentzituko'tzu denak gaitz eta enegu
lehenago bezala, hortaz seur gira gu.

Zuk eta nik ez dugu erabili gogo
Españako menditan gauaz gehiago;
ordu an baginuen gauza klarra dago:
buru ginuen baino gehiago zango.

Puskak gu ginen baino haundiagoak,
kargarekin segitzen ez ginen flakoak;
aldiz orai pausura ditugu jokoak,
gaztendako utziak mendietakoak.

Mugazainek ez naute ohoinaren pare
estekaturik eman, ez naski zu ere;
aitzinian bai lasterka ibiliak gare,
beldur dena espaka ez da desohore.

Itxuraz on zirela iduri'uzu jada,
noiz zaren on museko doktorrari galda;
zure kontra galduiak baitut bi partida,
egiteko kitara noiz nahi ordu da.

Adixkideen bisitak behin edo beste,
beherapen denian, plazer iten dute;
atxik'azu kuraia, bai eta bertute,
orai uzten zaitugu bertzaldi bat arte.

Annie eta Jean-Louis Zihigoienetxe'ri

Airea: (21)

Annie eta Jean-Louis berriz elgarrekin,
behautela ezkondu berria dut jakin;
korda higatzen baita zahartziarekin,
ez dut uste beldurrik bazuten hauts zadin,
halere goxoxago da berri batekin.

Zilar ezteietara gomita Idaho'n,
aitortu behar dauziet: ez niz jiteko on;
lehen besta maneraik balinbazen nihon,
hartarat juhaiteko beti prest nindagon,
orai zahartu niz ta hobe etxian egon.

Halere estimatzen dut zien gomita,
salutatzen tut haurrak ta ama ta aita;
pidaia on batentzat xantza etzen falta,
ene desira hau da, hori're zerbait da:
pasa dezazien orok egun bat xarmanta.

**Annie eta Jean-Louis Zihigoienetxe'ri,
berriz ere
Airea: (21)**

Senar emazte batzuk ina duten funtsa,
hortaz dut pertsu hotan egungo solasa;
airian jin zirela bi xoriren gisa,
beren kafiak utziz nahiz etzen aisa,
berriak emain ditut ahal bezain untsa.

Euskal Herrian ziren hazi bi xokotan:
bat Lapurdin, bertzia Espainiako juntan;
ibiltzen zen Jean-Louis etxeko lurretan,
egun guziz gustora bi erresumetan,
kontrabandista zela're dudarik ez ukan.

Gertatu ziren biak Chino alde jina,
ez dut dudarik iten in nahiz fortunak;
elgarrentzat han egin ziren ezagunak,
fitexko jarri ere adixkide minak,
elgarri josi zitien amodio finak.

Hogoi eta bost urte gertaturik badu
Annie eta Jean-Louis zirela ezkondu;
geroztik eginik aunitz bataila ta kondu,
haurrak ongi altxatuz mixeriak kendu,
ba'ute irabazirik seur mereximendu.

Beren izen osoak dituzte holaxe:
Annie eta Jean-Louis Zihigoienetxe;
anitz zaldi ta ardi, behi ta ahatxe
manejatu dituzte hantxe ta hementxe,
aiserian dagotzi gustora oraintxe.

Ontsa gidatuz eta sano eta azkar
hazi di'uzte bi seme: Mixel eta Bernard;
horier kontseilu bat banu eman behar:
aitamen etsenpliak egun ala bihar
beti segi ditzaten eta gogo onez har.

Lan eta negozio hasi ziren Chino'n,
horientzat zortia gisa hortan zagon;
geroztikan ez dira seur geldirik egon,
Chino'tik joan ziren nahiz urrun dagon
eta letxeria bat erosi Idaho'n.

Ezkondurik daudela hogoi ta bost urte,
denen konplimendiak merexi dituzte;
Jainko onak baditu Pedrok bezain maite,
munduan bizitzeko oraino badute
elgarrekin goxatuz beste ehun urte.

Bisita Arraro Bat

Airea: (32) edo (115)

Gogo guti daukat kantatzeko bainan lotzen niz aintzina,
oraintxe hartzen banu bezala adarretarik zezena;
bisita haundi ta arraro bat usu ikusten ez dena,
Euskal Herritik apez inportant multxo bat badugu jina,
hartzen dituzte gure agurrak ta gure batzarre ona.

Ongi etorri hemengo Klub'ek eta euskaldun arrazak,
Aita Etcheverry'ren lagunak ez tugu sendi arrotzak;
horren bisitek lagun onekin pizten dauzkute bihotzak,
lehen hunat jitiaren kontra ziren euskaldun apezak,
iduri du orai berak ere hartu dituela gaitzak.

Aita Etcheverry'k letra batzu baderauzku igorriak,
erranez ekartzen dauzkutela Euskal Herriko berriak;
agian onak kartzen dauzkute eta ez peningarriak,
entzuten tugu batzu daitzala pasaturik zedarriak,
arrangura dut zer zorte dukeen geroan Euskal Herriak.

Hangoak hemen hemengoak han berri hunen hedatzia,
oro xuxen jakiteko behar da anitz pazientzia;
Ameriketan euskaltasuna ez dugu bazter utzia,
kontseilu bat harat igortzeko ere nuke gutizia:
politika in dezaten bainan errespetatuz bizia.

Jaun apez hauien salutatzia gogoan nuen hain gora,
eta plazer dut ikus dezaten gure hemengo manera;
Euskal Herrian errakozute, bertze guzien gainera:
hemen ere aberatsak baino pobre gehiago bagira
Jainkoak lagunt gaitzala oro eta gaitzetik begira.

(1989 otsailak 18)

Adixkide artean

Airea Airea: (32) edo (115)

Adixkidiak, nahi nituzte kantatu orai bi pertsu,
izan ere ene pertsuak ala turrut igualtsu;
holaxe goxa aldiño batzu behar ginuzke in usu,
uste baino berantago dela, horri behar da in kasu,
kontent niz egun jin baitziezte oro fidel eta kartsu.

Uste baino berantago dela erran nahi 'utana hortan:
adina joan zaukula goiti, ez urruska bainan trostan;
ziek zaharrak ziztela bainan ez egon hori gogotan,
gazte hokilan aski duzie zonbait aldiz egon bestan,
gaztier beha ideia hunak jiten baitira batzutan.

Emazteño huiendako ere zerbait erran behar baita,
ez bada samur, emaztekoa hain dela gauza polita;
patarrak ere ordoki dia ile'alde perekatuta,
gero samurtzen balin badira ordian fini da besta
iduri dute janak duztela sua eta dinamita.

Montanatar eta Chinotarrak, otoi gaurkuan barkatu,
ene pertsu zentzu gabekoak beharko ditut finitu;
mahai onak eta lagun onek alegeratzen baigitu,
gogoko berri erran dezagun egoiteko partez mutu,
holakoetan behar ditugu adixkidantzak berritu.

(1987 urtarrilak 27)

Sagaseta jaunari errepostu

Airea: (84)

Jendaki nintzen Mañex Etxamendy'rekin,¹
Europatik jaun batek nahi zuen jakin;
deitura dut bakarrik harekilan berdin,
bertzetan nau Jainkoak ttikiago egin.

Ezagutu dut Mañex bakarrik bertsotan,
lehenago ikusiz *Euskaldun* kazetan;
haren obrak ikusiz orai oro betan
ikusten dut aise zer kalibre zeraukan.

Zentzu ta kalitatez betea zen arras,
berekin ereman tu oro nahas mahas;
oraino otoitzño bat falta badu enkas,
Pedrok ez du utziko otoitzaren eskas.

Zuri errepostuia haxe da beharba,
konprendituko duzu orainxe balinba:
jendaki nuen Mañex, Migel, zu ere ba,
gure aitaxo ta amaxo Adam eta Eba.

¹ Ezterenzubiko Mañex Etxamendy bertsularia (1873-1960) alegia. Beraren bertso bilduma, Piarres Lafitte jauna zenak prestatua: Auspoa, 109-110, 1972.

Juan Cruz Arrosagaray'ri

Airea: (1)

Eguberri hurbildia ta antxu fini urtia;
hori zuk bazinakien, etzien balio ertia.
Zure karta izana dut atzo, desira onez betia,
errepostu baten egiteko hartzen dut orai artia.

Gure lagunak galdurik baigia biak gelditu;
biak aingeruño batzu zirela zaut iduritu;
ene ideia erranen daizut, zuk hau otoi ongi hartu:
gure Jainkoak naski lehenik hoberenak hartzen ditu.

Lauetan ho'ita lau urte mundu huntan zabiltzala,
sekulako ez da nihor, badakizu nik bezala;
zure izena munduko aunitz bazterretan badabila,
mundutik juan eta're hemen utziko'uzu zuk itzala.

Pasa zazu Eguberri ahal bezain alegera,
eta beste urte hortan etzaitela desespera;
nik desiratzen dauzkitzutanak oro gertatzen badira,
osasun eta urostatasunez bete'ik ibiliko zira.

(1988)

Juan Cruz Arrosagaray'k
Pedro Juan Etxamendy'ri
Airea: (12)

(Juan Cruz Arrosagaray ere California'ko bertsolaria genuen 1905n Luzaide'n sortua eta Etxamendy'ren adiskidea. Noizbehinka bertsoak elkarri bialtzen zizkioten, gozatzeko eta kritikatzeko ere. Arrosagaray'ren bertso bilduma *Auspoa*-k kaleratu zuen, sailaren 163 zenbakiarekin eta 1983 urtean, *California-tik kantuz* izenburuarekin.

Etchamendy-k Arrosagaray'ri jarritako bertsu batzu orai baino lehen eskeini ditugu hemen. Beste hauek, Arrosagaray-k eta Etxamendy-k alkarri jarriak, Iruñeko *Príncipe de Viana* aldizkarian, 1969 urtean, agertu ziran, *Ospitaleko bisita* izenburuarekin eta "Dama gazte xarmant bat" doinuarekin kantatzeko).

Agur, adiskidia, Pedro Etchamendi!
Bisita bat egin dut berrikitan zuri,
jakinean zinela Ospitalian eri,
ez baitzitzan agrados neri berri hori.

Ospitalia ez baita leku alegera,
ezin bertzela salbu nun-nahi hobe da;
bainan heltziarekin extremo batera,
zoiñatzeko lekurik hoberik ote da?

Oroitzapen izain dut zure ikustia,
iduri zaut zirela paziente noblia;
egin operazione biziki aundia,
onera dua itxuraz oraintxe guzia.

Pasatuak pasatu, onera duan geroz,
ikusten dut zirela biziki kuraios;
zurekin solastatzia izan zaut kurios,
berriz ere artzeko naiz deseoz.

Eritasunik gabe bizi den presunak,
ez daki zonbat duen balio osasunak;
ez eta estimatzen adiskide onak;
horik probatzen ditu pasatzen duenak.

Ospitaletik fite zu atera zaiten,
bihotz onez deraizut hori desiratzen;
zeure familiara etxera juan ziten,
eta zeure aferez han okupa ziten.

Bainan juan behar duzu oraino emeki,
urratsa beti aintzina, gibelera ez utzi;
segurtatu artian kasu egin biziki,
gero luzaz biziko zirade uroski.

Bisitaren ondotik hontan uzten zaitut,
berriz ikustekotan omore ta gostuz;
agian ariko gira elgarrekin kantuz,
zure adiskide on gelditzen zan Juan Cruz.

Pomona (California) J. C. Arrosagaray

Erantzuna

Airea: (21)

Zure pertsu horiek kusi tuztalarik,
harriturik gelditu, ez egin dudarik;
Bordel pertsularia nik egundainotik
famatua izan dela ororen gainetik;
kusten dut ba duela segida ondotik.

Ehun zaldi lerruan enseatu dira,
Naturalezak bezala eztiote tira;
zaharren erran hori jin zeraut gogora,
natural heldu zaizu, aisa ageri da,
segi Juan Cruz, aitzina, bide onian zira.

Pedro J. Etchamendi
(*Príncipe de Viana*, 1969-IX)

* * *

Ondoko hau 1972. urriaren 31n bidali zion Pomona California-
tik J- C. Arrosagaray-k P. J. Etxamendy'ri:

Zure kantu hauk egun goizian ukanak ditut eskura,
ordenarekin helarazteko zu bizi zaren lekura;
enkarguaren konplitzeko ni beti izan naiz zuhurra,
eta delarik adixkide bat zu zaren bezain segurra,
agian orai izanen duzu espero zinduen plazerra.

* * *

Hara hemen beste bi bertso Arrosagaray'k Etxamendy'ri 1974n
igorriak:

Airea: (68)

Pedro Juan, zuk eman bertsuak orantxe zaizkit eskura,
Ez nuen uste horrenbeste zuk nindukezula ohora;
Diozun gisan altxatzen nautzu nere aitasoin gradora,
Horgatikan naiz obligatua zuri ordain ematera.

Hoinbeste gauza berdintsu ditu' guk biok bizi munduan,
Sortuak ere elkarri hurbil Euskal Herriko xokoan;
Ni Luzaiden ta zu Ondarrola kartierraren buruan,
Bertsu egiten ere hasiak biok zahartu ondoan.

Akordeonak Pedro Juan-eri
Mike Bidart'ek Pedro Juan Etxamendy'ri
Airea: (74)

(2001. martxoaren 6n Chino California'ko Mike Bidart'ek bertso hauek igorri zizkidan, erranez, bera etzela bertsolari baina bazuela bertso hauek paratzeko arrazoirik. Berak azalduko digu arrazoi hori zein den. Hain zuzen, Bidart ez da bertsoetatik ezjakina –hori irakurleak ere ikusiko du– eta zenbait urtez bera izan zen gai-jartzailea Gardnerville, Nevadan, urtero ospatzen den Kantari-Bertsolari Egunean. Bidart abokata ta euskalzale sutua dugu eta euskaraz ari denean gutxik antzemango diote Californian sortua dela. Horrez gain, soinua xarmanki jotzen du eta euskal kantuen zale ere bada. Bidart P. J. Etxamendy'ren adiskidea zen eta ixto-riotxo bat kondatu zidan, lehen ere aipatu dutana. Etxamendy bertsolari ez-ezik musikari eta soinu jotzaile zela, eta bazuela Italiako soinu garesti bat. Behin soinua saldu beharra izan omen zuen, eta Bidart'ek berak erosi. Bertso hontan soinua (esku-musika) Etxamendy'rekin mintzo da.)

Agur eta egun on, Pedro Juan maitea,
nere bihotz erdiko nagusi zaharra;
otoi barka nezazu gaurko ausartzea,
gomita ukan gabe hola agertzea,
zurekin gabe nintzan trixterik jarria.

Ontsa ikusten zira laurogoi urtetan,
nik aldiz ez dut berdin zahartzea jasan;
zortzi hortz galdu ditut nunbait erortzean,
jabeek ez bainaute beti kasu eman,
nahiko nintuen galdu zure eskuetan.

Orroitzen zira, Pedro, Luzaideko plazan
zer denbora goxoak ditugun iragan;
zure beso artean nindagoenean,
gazte guziak dantzan gure itzulian,
hobeagorik ez da izanen zerian.

Saldu ninduzularik konprenitu nuen,
neretzat denborarik ez baitzen gelditzen;
familiaz zinuen osoki pentsatzen,
bizi berri batean hasiak zinezten,
haur goseak ez dira musikaz bazkatzen.

Orai dutan jabeak zinez nau maitatzen,
zeren ni ikusi ta zutaz da orroitzen;
ni berekin atxikiz hasi da ohartzen
bihotz bat gorputzatik duela berexten,
elgarretaratuz gaitu betikotz osatzen.

Haurrak nola nahi duen altzo bat goxoa,
zurean izaiteko da nere asmoa;
Udiriko semea Ondarrolakoa,
lagunik hoberena, bihotz onekoa,
otoi eman nezazu zurekin etxera.

Bihotzaren erditik
Mike Bidart

AKORDEONAK PEDRO JUAN - ERI

'Agiu eta egun on Pedro Juan maitea'
'Nere biotz erdiko nagusi zaharra'
'Otoi barka nezazu gaurko ausartzea'
'Gomuta ukan gabe hola agertzea'
'Zurekin gabe nintzan truxterik jarria'

Ontsa ikusten zira lauagoi jurtetan
Nik aldiz ez dut berdin zahartzea jasan
Zortzi hortz galdu ditut muntat eortzean
'Jabeek ez bainaute beti kasu eman
'Nahiko nintuen galdu zure eskuetan

Orrditzen zira Pedro Luzaideko plazan
Zer dembona goxoak ditugun iragan
Zure beso artean nindagoenean
'Jazte guziak dantzan gure itzullan
'Hobeagorik ez da izanen zeruan


Saldtu ninduzularik komprentitu nuen
'Neretzat dembonarik ez baitzen gelditzen
'Familiaz zintuen osoki pensatzen
'Bizi berri batean hasiak zinezten
'Haur goseak ez dira musikaz bazkatzen

Orai dutan jabeak zinez nau maitatzen
Zeren ni ikusi ta zutaz da orrditzen
Ni berekin atxikiz hasi da ohartzen
'Biotz bat gorputzatik duela berexten
'Elgarretaratuz gaitu betikotz osatzen

Haurrak nola nahi duen altzo bat goxoa
Zurean izaiteko da nere asmoa'
'Udiriko semea, Ondarralakoa
'Lagunik oberena biotz onekoa'
'Otoi eman nezazu zurekin etxera.'

Biotzaren erditik!
Mike Bidart

Mike Bidart-ek Pedro Juan Etxamendy-ri eskeinitako bertsoak.



Pedro Juan Etxamendy-ri Californian egindako omenaldi baterako deia,
1994-ko otsaila.

**Barstow eta Chino'ko
euskalduneri**

Udaldeko pikinikak edo pikiniak dira Mendebaleko euskaldunen bilguneak, eta Etxamendy'k hainbat aldiz kantatu zuen hortaz, batez ere Chino'ko euskal bestaz. Bera ordea etzen bizi Chino'n, Barstow'n baizik, eta lehenbizi hango pikiniari jarritako bertsoak emango ditugu.

Barstow'ko Pikinika edo Mojave'ko

intzaur sagarrak

Airea: (13)

Orai kantatzen hastian
ertera noha gustian:
xinotar eta montanes batzu¹ Mojave'ko desertian²
kurritu bide haundian,
zelaitan ta mendian,
sabelak arin aidian.

Goizian goizik gustora
Xino'tik ziren atera;
planak polliki inak zituzten puxka bat gora behera;
hauxe zen heien desira:
«Arribatzian mendira
oilaskoz aseko gira».

In behar denian besta
ez da denentzat josteta;
jan edan onak erostekotan Mayik ina zuen lista;
gertatzen ez denik ez da;
erostera joan eta
orotan hetsia borta.

Pikinikako tokira
pasatzian joan dira;
oilaskoetaz orroitu eta heldu hortzetarik hura;
jiten zakoten gogora:
«Jan ginezake bedera
bainan deusik gabe gira».

«Hauxe duguna dieta»,
zioten elgarri so'in ta;
bere denboran baitu kusirik frango holako josteta;
goizik ontsa askalduta
partitia zen Lakosta,
segurretik harek plata.

Ixilduxerik kalaka
Marie-Jean eta Monika
zioten: «Bazton inen dinagu Pedronian pikinika».
Pedro han zagon behaka
eta hek erdi oihuka:
«Gosiak gitxu lamika».

Pikinika nahi zuten
intzaur eta sagar jaten;
deus ez dienak ez du sekulan deusik nehorri emaiten;
ta entzun ditut erraiten:
«Zer dieta dugun aurtent!».
.....³

Emanik hala beharrak
izan duzte suerte txarrak
hala ere oro satisfos ziren kusi duztela bazterrak
ta Jainkoari eskerrak
okerrak eta uzkerrak
etzituztela uzterrak.

¹ Gehienetan Etxamendy'k Chino eta chinotar idazten zuen. Montanesak Barstow'n eta Mojave aldean bizi zirenei deritzate.

² Mojave California ta Nevada tartean dagoen basamorturik aundiena da. Bertan dago Death Valley (Erio Ibar), non bero ikaragarriak egiten dituen, itsas urgaina baino beherago baita. Udan urik gabe ez zaitezela harat joan.

³ Lerro bat eskas du bertsu honek.

Chino'n Euskaldunak¹

Airea: (18)

Egun Chino'n euskaldunak
alde guzietarik jinak,
haur emazte ta gizonak;
beti bezala Chino'ko klubak agurtzen zaituzte denak;
bakan ikusten tugunak,
adixkide ta lagunak,
dener gure esker onak.

Betiko usaia baita
mezak hasten dauku besta,
hubekiago deus ezta;
meza guzia euskara garbiz egun hola entzun eta,
euskaldun apez ta aita,
eskerrak har bitza eta
dugun orok errespeta.

Urte huntan euskaldunak,
Chino'n itzali zauzkunak,
gure adixkide minak,
otoizno bat egin dezotegun gora altxa ditzan Jaunak;
hemengo lanak eginak,
gure beha han daudenak,
lagunt gaitzaten han denak.

Gauza bat hain aipagarri:
euskaldunen Besta Berri
Chino'rat dute ekarri;
hor N.A.B.O.'k eta Chino'ko klubak asko gauza harrigarri,
laguntzak inez elgarri,
ta dener ongi etorri,
gauzak lekian ezarri.

Meza hunekin lehenik,
hunkigarriago denik
nik ez dut uste badenik;
soinulari pare gabekoak ta dantzariak azkenik,
janari onak batetik,
edari onak bertzetik,
ez da deus hor eskas denik².

Hemen ahanzten nuena:
besta hunek deraukana
dirua ba nahi dena;
loteriako billet hoietan etortzen bada zuzena;
gero hortarik aintzina
desiro dautzuetana:
pasatu besta bat ona.

1 «Chino'ko Euskaldunak» behar luke, eta Etxamendy'k hori bazekien, baina hau euskinglix horietako bat da.

2 Sail huntako lehen bost bertsuak handik urte batzutara kantatu zituen berriz ere Pedro Juan Etxamendy'k Chino-n Euskal Besta egunean, beste bertsu bat erantsirik; hemen seigarren dena.

Chino'ko Klubaren 25garren Piknika

Airea: Airea: (32) edo (115)

(“Piknika” amerikanoen “picnic” hitzetik dator eta urtero euskaldunen artean egiten diren udako jaiari esaten diegu; edo “pikinia” ere esaten da eta bizkaitarrek “pikinije” esaten dabe. Chino hego California'ko hiri bat duzue, non badiren euskaldunak behi ta esnetegi aundien jabe.)

Ttiki ta haundi, gazte ta xahar, eriak ala sendoak, nondik nahitik jinak zirezten euskaldun odolekoak, beste edozoin arraza berdin eta nungonahikoak, Chino'ko Klubak dauzka orori zabal zabala besoak, eta lehenik eskeintzen ditu orori agur beroak.

Chinoko Kluba hunen sortziak ditu hogoita bost urte, euskaldun kuraios multxo batek zutik ezarria dute; geroztik ba'itu laguntzaileak, bai gizon ta bai emazte, hor okupatzen diren guziek mereximendu badute, esku onetan dagola beti dudarik ez egin bat'e.

Apez jaun hauek iten dauzkute zerbitzu arras beharrak, Chino'ko Klubak ez ditzan galdu bere usaia xaharrak; otoitz, kantu, prediku ta soinu alegerarik bazterrak, horiek oro nahiz itzuli gure Jaunari eskerrak, eta galdatuz gure xedeak ez diten izan alferrak.

Bestaren prestatzaileri ere konplimendu bereziak: koziner, jantzari, soinulari, baita're beste guziak, sort lekutik urrun jinak batzu, hemen sorturik bertziak; ez bagira're guziak arras molde berian haziak, orok euskaldun odola dugu ta oro ongi heziak.

Meza hunekin besta hasi da seriocki eta prestu,
haste on batek gauza guzietan emaiten du beti gustu;
eta oraintxe Chino'ko Klubak bi hitz erran nahi ditu:
ongi jan-edan, oneski josta ta elgarrekin goxatu,
milesker dener jin zieztelakotz ta egun on bat pasatu.

Chino'ko 31garren Piknika

Airea: (21)

Egun ikusten dut hor hoinbeste euskaldun,
girixtino maiteak, Jainkoak egun hun!
Maite dugun meza hau da segur ezagun,
Klubaren partez ere hauxe erran dezagun:
agurtzen zaituztela oro hemen egun.

Nahiz ez diren hemen euskaldun elizak,
plazer haundia dauku euskarazko mezak;
euskara garbiz kantu, prediku ta otoitzak,
batzuek erabiliz hortako lan gaitzak,
eskerrak hartze ditu Tillous jaun apezak.

Untzi bat betez geroz gehiago emanta,
soberakina handik kanpo joan baita,
zonbait euskaldun ere, bizi nahi eta,
sort lekutik johaiten leku eta lanketa,
bainan euskaldun zintzo beti egoiten da.

Euskal herritik kanpo joan euskaldunak,
ta heien odoletik etortzen direnak,
zonbat diren ezdu er'ten ongi dakienak;
otoitz egin dezogun, gure Jainko onak
begira gaitzan eta benedika denak.

Klubak baitu besta hau odrian ezarri:
kantu, soinu, dantza ta aunitz ikusgarri;
ta oroz gainekoa Chinon Besta Berri,
ez da ere deus eskas izanen hor sarri,
Klubaren partez orai «besta hun» orori.

Chino'ko Euskaldun Klubak agur deneri

Airea: Aireak: (32) edo (115)

Euskaldunek badugula beti atxikimendu elgarri,
iduri luke hark gaituela egun Chino'rat ekarri;
egun meza hunen entzutia hain zeraut loriagarri,
hor ikusten da fedearentzat gaude gose ta egarri,
Chino'ko klubaren partez dener dauzuet ongi etorri.

Euskaldunak alde orotarik baditugu egun jinak,
alde guzietan bizi bainan bihotzez oro berdinak;
baditaizke ere batzu hemen euskaldunak ez direnak,
adixkidantzak zalu egiten euskaldunen bihotz onak,
eta arrotzak izan eta're adixkide tugu denak.

Jainkoari galdatuz grazia eta besta bat onesta,
meza sailduño hau zelebratuz ongi hasten dugu besta;
gero ongi jan ta ongi edan ta gaiten oneski josta,
ohorezki bestak egitia euskaldun usaia baita,
Chino'k zabalik uzten du dener berriz itzultzeko borta.

Aita Etcheverry'rentzat dago gure besta hau berria,
San Franziskotik gu laguntzerat hemen dugu etorria;
otoitz egile kartsua eta kantari xoragarria,
ohoratzen dauku gure besta eta gure aberria,
agian luzaz egoinen zauku gure artean jarria.

**Chino'ko Centro Basco'k hogoi urte
edo Monik eta Peio**
Airea: (118)

Bada Chinon leku bat pare gabekua:
batzuindako eliza bertzentzat bankua;
intresa beti gora hortan du jokoa,
ta Monik eta Peiok daukate gakoa,
tralala, la, la, la.... (errepika)
ta Monik eta Peiok daukate gakoa.

Centro Basco du gure bankuak izena,
sosaren plazatzeko leku segurrena;
guziek maite dugu hango giro ona,
eta partikularzki Monik'en kozina,
tralala, la, la, la.... (errepika)
eta oroz gainetik Monik'en kozina.

Berroita hamar urte badu hasi zela
Centro Basco Chino'ko Euskaldun Hotela;
Berterretch'tarrek hotan deramaten saila,
ederki deramate nahiz izan zaila,
tralala, la, la, la.... (errepika)
ederki deramate nahiz izan zaila.

Kargu hori dutela hogoi urte badu,
geroztik ez dute hor denborarik galdu;
fama ta ontasunak badituzte bildu,
segurki badute ere mereximendu,
tralala, la, la, la.... (errepika)
segurki badute ere mereximendu.

Jan eta edan in dut anitz ostatutan,
Frantzian, Espainian, ta Ameriketan;
behatu orai ontsa zer erraiten dudan:
Centro Basco dela hoberena orotan
tralala, la, la, la.... (errepika)
Centro Basco dela hoberena orotan.¹

Gure konplimendiak, Monik eta Peio,
zientzat badaukagu beti amodio;
hogoi urte hor ari ziezte jo ta jo,
segi beste hoinbestez edo berdin gehio,
tralala, la, la, la.... (errepika)
segi beste hoinbestez edo berdin gehio.

Chino'ko Kluba

Airea: (35)

Adixkideak, behar dautazie barkatu,
bizpalau bertso nahi nituzke kantatu;
gure kluba etxe hau daukute berritu,
mereximendu onak norbaitek baditu.

Presidentetik hasi eta gain behera
buruzagiak kluban entregiak dira;
kintaleko urrezko medallak balira,
merexi lukete hetarik bedera.

Kluban badire batzu hain paregabeak:
berak nausiak eta berak langileak;
berak koziner xefak eta hain trebeak,
Parisen ere xefak ez dire hobeak.

Orok laudatzen dute, ta maite ere ba,
mundu guzian aipu den Chino'ko kluba;
beti goiti doala hemen dugu proba,
segituko du luzaz holaxe balinba.

Aunitz mazte ta gizon anixko lanetan
laguntzaileak dira gure kluba huntan;
eskerrak diozkatet egun dener betan,
klubako membro guziak barne hartuz hortan.

Bada ere doana beti ta gorago,
euskal kluba guziez egina den N. A. B. O.
Euskal Herri ttiki bat iduri hor dago,
ene ustez balios ezin gehiago.

N. A. B. O. horrek lagunduz ongi badohatza:
euskara, mus, pilota, kantu eta dantza;
kluba hunek emaiten diote laguntza,
biba Chino'ko Kluba ta euskal arraza!

(1993. urriak 24)

Chino'ko Klubaren 27 garren Pikinika
(Airea: (100))

Adixkideak, behar dautazie barkatu,
bi bertso nahi nuzke oraintxe kantatu;
gure presidentak nau hortarat manatu,
gizon ona da bainan hobe obeditu.

Chino'ko kluba huntaz orai mintza gaiten,
hogoita zazpi urte bete ditu aurten;
ez du inporta nondik etorriak zizten,
dener ongi etorri dauzie erraiten.

Besta hau beti danik dugu hain xarmanta,
jan edanak hain onak ta deusik ez falta;
soinulari on aunitz edertzeko besta,
ta jantzari hoberik nihon ere ez da.

Loteria're bada, metaka du sosa;
atseko jantza ere dugu lehen klasa;
triste egon dadin bat hemen ez da aisa,
agur deneri eta egun on bat pasa.

Meza hau zen euskaraz hain loriagarri,
eskatzeko graziak gure Jainkoari;
hunkitu gaitun oro zen segur ageri,
jaun apetz euskaldunak, eskerrak zieri.

(1994. irailak 4)

Chino'ko Pikinika

Airea: (104)

Adixkideak, otoi barkatu egun ene ausartzia,
kantaria ez naiz ona eta batzutan maite artzia;
Chino'ko klubak zieri erraiteko nau goiz huntan kargatia:
agurtzen duela bihotzetik hemengo jende guzia.

Besta hunen hastapena beti egiten dugu elizan,
ohoratuz eta ere galdatuz Jainkoari lagunt gaitzan;
jaun apez, kantari, soinulari ta bertze guziek mezan,
mil'esker dio klubak deneri, hortaz dudarik ez izan.

Nombre haundian ikusten ditut egun hemen euskaldunak,
Chino'ko euskal besta huntara alde guzietarik jinak
anai-arrebak bezala ziezte hemen guretako denak,
goza gaiten egun elgarrekin partaiatuz atseginak.

Jakintsunek ez dakite nondik heldu den euskal arraza;¹
jakintsun guziak baino lehen mundu huntan badabilta;
euskaldunek dute elgar maite, batek hemen so in beza.
Gora beti euskaldun arraza, ta gora euskaldun meza!

Jantzariak eta kozinerrak ez ditaizke aisa negur,
bainan denetako hoberenak ote ditugun ni beldur;
jantza xarmentak, jan edan onak, izanen ditugu segur,
adixkideak, pasa egun on, eta guzieri agur.

(1995 irailak 3)

¹ Bai, hala izan da urte anitzez, baina orain, gure baitan daukagun gene "liburua irakurtzen" ikasi dugu eta liburu horrek dioenez, euskaldunen arbasoek Asia erdiko belardietan bizi ziren gutxi gorabehera duela 30,000 urte. Eta hara nondik? Afrikatik, noski, orain 65,000 urte inguru, eta Asian 10,000 urteko atsedena egin ondoren, mendebalerantz abiatu ziren euskal herria sortuz Euskal Herrian. Oraindik Europarik etzeanean, Euskal Herria bazen seguraski.

Bete gaituzu plazerrez,
oi gure Eskual Etxea!
Ongi etorri eginez,
zabalduz zure atea.

Hamahiru urte baditu,
zinela beraz xutitu;¹
geroztik denak xoratu,
bai behar dugu aitortu.

Biltzen duzu eskualduna,
bai hurbil eta urrun dena;
zuri esker da batasuna,
gure arteko maitasuna.

Hemen badugu pilotari,
dantzari eta musikari,
makilari ta pertsulari,
bai eta hainitz kantari.

Hemen egiten xapelketa,
museko ala pilota,
ezteiak eta hainitz besta,
toki hoberik ez baita.

Badugu segurtamena,
hunat geroztik egun ona,
libertamendu, jan edana,
beti nausi da hoberena.

Agur bat gure Etxeari,
bai eta zure langileri,
gogo bihotzez zerbitzari,
esker bera bat guzieri.

Badugu gure apeza,
euskaraz emanaz meza;
egiten dugun otoitza,
zeruko jaunak onhar beza.

(1995 irailak 3)

¹ Etxamendy'ren bertsoen arabera Chino'ko klubaren sortze urteak ez dirudite zuzen. 1974n kantatu zigun 27 urte bete zituela.

Chino'ko Pikinika
Fededunen otoitza
Airea: (105)

Gauza jakina munduan beti zerbait ari da gertatzen,
duela hogoita hamar urte Chino'ko kluba sortu zen;
geroztik hunat azkartuz doa ta beti badoa zuzen,
ta bihotzetik zaituzte egun hemen guztiak agurtzen,
hemen guztiak agurtzen.

Ene bizian gustatu zeraut batzutan kantuz artzia,
Chino'ko klubak nahi izan du pertsu batzu kantatzia;
zertaz duen klubak arrangura ez da ixtorio luzia:
bihotzetik duela agurtzen hemengo jende guzia,
hemengo jende guzia.

Meza hunekin hastia besta hau dugu usaiakoa,
otoizten dugula seriozki euskaraz gure Jainkoa;
jaun apez euskaldun hauer esker da meza hau holakoa,
orok eskerrak zor diozkategu, hori duda gabekoa,
hori duda gabekoa.

Euskal kultura, euskal mintzaira, bai eta euskal arraza,
Ameriketan N. A. B. O.'ri esker oro ongi badabiltza;
horren gidatzen ari direnek egiten dute lan gaitza,
denen eskerrak hartze dituzte ta Jainkoak lagunt bitza,
ta Jainkoak lagunt bitza.

Aitortu nahi dauziet hemen, jaun-andere euskaldunak:
Chino'ko kluba uros da egun ikustian ziek denak,
hoinbeste adiskide hun hemen alde guzietarik jinak,
klubak milesker dauzie dener, hori zaudezte jakinak,
hori zaudezte jakinak.

Besta huntan okupatzen diren presuna guziak egun,
denen gostua egin beharrez ai direla da ezagun;
laudorioak hartze dituzte ta errespeta ditzagun,
ta orai klubak dio deneri: pasa zazie besta hun,
pasa zazie besta hun.

(1997)

Chino'ko Pikinika

Airea: (98)

Non nahitik zaiztenak egun Chino'rat jin,
bai euskaldunak ala bertzeak ere berdin,
Chino'ko Klubak oro plazer haundirekin
agurtzen gaituela dudarik ez egin,
dudarik ez egin.

Besta elizan haste da usaiakoa,
euskaraz kantuz eta otoiztuz Jainkoa;
Aita Martxel'en esku meza hau baitoha,
aunitz zor diogula erran gabe doha,
erran gabe doha.

Ikustia izan zait hain loriagarri
Euskal Herriko gisan Chinon besta-berri
hori Euskal Herritik daukute ekarri
eta Chinoko klubak lekian ezarri,
lekian ezarri.

Elgarrekin gostura maite egoitia,
hori euskaldunena da ezagutia;
egun hemen hortako egun egokia,
zeren hola da ere, Chino'ko jendia,
Chino'ko jendia.

(1999)

* * *

Sail huntako bertsoak beste urte batean ere kantatu zituen, beste bi bertso hauek erantsirik:

Erraiten dugu N. A. B. O. lau hitz hauekilan,
euskal klubek denek bat Ipar Amerikan;
buru ta enplegatu onak tugu hortan,
ixil eta serio ibiliz aunitz lan,
ibiliz aunitz lan.

Orai, adixkidiak, behar dut ixildu,
ez dezagun sobera denborarik galdu;
kanpo hortan izain da aunitz mugimendu,
eta besta hun deneri Klubak erraiten du,
Klubak erraiten du.

Chino'ko Klubeko lau bazkideri

Airea: «Salamankarat...» (19)

(Haien izenak, ofizialki idatziak, hauek: Henry Bachoc, Martie Echeto, Pedro Juan Etchamendy, eta Gabino Quintana. Beraz, Etxamendy'k bere buruari jarritako bertsoak ere badira hauek.)

Lau zahar hauek gaituzte egun berexi bertzetarikan,
ikusten dut orai zahartziak zer abantailak derauzkan;
gisa huntako ohorerikan gaztian ez dugu ukan,
oroitu direnei eskerrak nahi diozkategu eman.

Estakuru huntan nahi nuke Chino'ko kluba aipatu,
ez da dudarik norbaitek segur lan onak egiten ditu;
hor okupatzen direnak oro ez daizke aski laudatu,
zeren klubak ongi badoala duda mudarik ez baitu.

Ikusten ditut mereximenduz beteak diren gizonak,
bainan anitz emazte ere hor gizonen pare direnak;
ixil eta serio dituzte egiten hor beren lanak,
horiek gabe Chino'ko kluban galduak gintezke denak.

Beti eta gehiago gazte ikusten ditut hor kluban,
geroa horietan dagola hori segur ez da dudan;
zaharrak laudatzen tugu bainan hek beren bidean joan,
biba zaharrak eta gazteak, guziak elgarrekilan!

(2000 irailak 24)

Chino'ko Klubeko laguneri

Airea: «Salamankarat...» (19)

Frantses borta bat berri berria gaur hunat sartu girena,
eta bestalde barne guzia hain dago eder egina;
lekia kanbiatzen a'i zela solasa nuen entzuna,
norbaitek ibili du buria ta norbaitek egin lana.

Mereximendu guti dut bainan aspaldikoa naiz Kluban,
hogoi eta hamar urte pasa iduritzen zaut baduan;
adiskideak, izaitia gaur zien guzion ondoan
ez duzie karkulatzen ahal zer plazer hartzen duan.

Kluba hunen famak badirela mundu guzirat joanak,
kluba untsa erabiliz dira johaiten klubaren famak;
batzu lanetik baztertzen gaitu hiltzeak edo adinak,
halare klubak baditu ontsa lanean ari direnak.

Gisa batera edo bestera, ahal duziena bezala,
badakit obra hortan gehienek parte hartzen duziela;
eskerrak nahi dauzkitziet eman jarririk umil umila,
Biba Chino'ko Kluba ta luzaz Jainkoak lagun dezala!

(2001. irailak 16)

Etxamendy'ren ehorzketako bertsoak

Airea: «Konbeni diren...» (114)

(Pedro Juan Etxamendy'ren ehorzketan Andrea Bidart'ek kantatu bertsoak, 2002. urriaren 26n.)

Xalbador'en bertsoak direla uste dut. Nik Aita Martxel Tillous, euskaldun apezak San Francisco, Californian argitaratzen duen Lokarria: *Basque-American Catholic Newsletter*'tik hartu ditut, (Abendoa 2002 December).

Bizian hogoi ta lau orduz gauza gutxi egiten da,
bainan Jainkoak eman epea nik ez dezaket emenda;
ene ondoko nahi ditudanak ditzadan beraz izenda:
gazte maiteak, nik hasi lana zuen esku gelditzen da.

Hogoi eta lau orduan hemen deus guti egin ditaik,
bainan gelditzen zautan denbora ez dut saldu nahi merke;
ditutan etsai guzien ganat inguratu nahi nuke,
ene barkamena eskaintzerat eta heienaren eske.

Euskal Herri maitea, izan dut zutan sortzeko grazia,
ordainez ene amodioa derautzut erakutsia;
egun artean eman derautzut ahal nezaken guzia,
orai bertzerik ezin dut eta eskaintzen dautzut bizia.



Luzaideko eliza.

**Erran merran
P.J. Etxamendy-k bildutako
erran zaharrak**

1. Ongiak azantz guti, azantzak ongi guti.
2. Inportantzia izan dezan gatik, erraiten dute:
«Heldu da Españatik».
3. Zerbait ez ditaikena garbitu, ez zikindu.
4. Gauza berriak gustatzen, eta zaharrak baliatzen.
5. Ez dakiguna hobe ez erran, eta dakiguna ere bai askotan.
6. Santa Maria dago, urrunago eta sainduago.
7. Nehori fidatzen ez denari, nehor ez fidatzen.
8. Bere hutsez nigarrez ari bazen, Jainkoak barkatzen.
9. Dirua gauza ixila: ez du erraiten non ibiltzen den,
eta beti badabila.
10. Etxean badenean anitz gauza, afaria prestatzea aisa.
11. Gaizkiarentzat egin paguak, zikintzen bien eskuak.
12. Haizea eta mentura, zalu joan dira.
13. Zikoitzak izan eta ere sos dun, adixkide onik ez du
nahun.
14. Gutarik bakotxa dago Jainkoak egin bezalakoa,
eta askotan makurragoa.
15. Nahi baduzu zerbait ez dadin jakin, ez erran edo ez egin.
16. Badire kausak iduri dutenak gezurrak eta hala direnak.
17. Ahantzia eta ez jakin, biak berdin.
18. Hiru gauza on: ikus, entzun, eta ixilik egon.
19. Den arnorik hoberena, hartarik egin daike ozpina.

20. Ohorea eta ahalgea, galduz geroz nekez berriz biltzea.
21. Mandoak badu zerbait astoarena, edo beharriak edo buztana.
22. Nork ere baitu fama ona, etzaio ohean egonez jina.
23. Bizio baten uztea, irabazi haundia.
24. Gizon alferrak hiltzen denbora, eta denborak gizon alferra.
25. Gure auzoko oiloak eiten du hainbertze, gureak baino gehiago arroltze.
26. Gerlak gauza normala iduri, hartarik urrun dabilanari.
27. Gauza tontoa da fortuna, ez du ikusten xerka dabilena.
28. Fortuna ona da bat, txarra bat ere.
29. Zentzia eta esperentzia, adixkide onak.
30. Nihork uste ez duen lekuan dago, erbia lo.
31. Diruak eta harmak, esku onetan nahi izan.
32. Arimaren miraila? Bisaia.
33. Ez da adixkide hoberik nola dirua, behar delarik.
34. Miseriarik haundiena, dirurik ez izana.
35. Besten gustuz emaiten duenak, bodondate ona.
36. Hartzen duenak eta ez emaiten, debruak eremaiten.
37. Jantza makurrak jantza makurra bilatzen du.
38. Ez sal zure adixkideari, ez eros zure etsaiari.
39. Ez da kalborik buruan biloa izan ez duenik.
40. Ez da gauza onik ez ditaikena izan hoberik, ez eta txarrik ez ditaikena izan txarragorik.
41. Ez da suerte txarrik ez onik, ehun urte irauten duenik.
42. Euria behar dugu denek ukan, baina denen gustora ez da izaiten sekulan.

43. Hobe da pobre eta libertatean, ezinez aberats eta presondegian.
44. Ohea gauza baliosa, lo ezpada iten ere iten da pausa.
45. Odolak irakitzen surik gabe, ez bada bat egoiten bere buruaren jabe.
46. Ona edo ongia berant jin eta ere, ez da berantegi.
47. Borta jo eta ez bada erreposturik, ez da nihor edo dagotzi gorderik.
48. Arrainik ez den errekan, debalde da artzea arrantzan.
49. Bisitek beti egiten plazer, jitean edo joaitean.
50. Hobe da izan ttikia adiskidetzat, ezinez haundia etsaitzat.
51. Alferkeriak akaba dio negozioa, negozioak alferkeria ez.
52. Animalia ezagutzen ez duzuna, hari ez tira buztana.
53. Bere burua defendiatzen dakienak ongi aunitz badaki.
54. Liburuetarik ikasten aunitz, bainan langile ona egiten, ariz, ariz.
55. Toroa edo zezena, buxerian behia du izena.
56. Tronpatzen zaituztenek erakusten eskolan ez duzuna ikasten.
57. Zaharrak ahal balu eta gazteak baleki, egin beharrak joan litaizke hobeki.
58. Iduri badugu tontoak edo ergelak, hala gare denak, eta gainerakoak erdiak.
59. Otsoek ez egiten elgarri ausiki, jendek ba eta ausarki.
60. Pobrearen bizitza da hoberena, balinbadu beti ogi sobe-rakina.
61. Zaharrak ez duenak dirurik, ez pentsa gero egiterik.
62. Edan eta trago batzu sobera, ez erran beharrak ere erraiten dira.

63. Errepostu hoberena batzutan, deusik ez erran.
64. Ongi egin onari, egin dezan ongia; ongi egin gaixtoari, ez dezan egin gaizkia.
65. Zikoitzak «lehenik ni, gero ni, eta beti ni» dabilta.
66. Bizioak hartzea aise, uztea neke.
67. Guti aunitzek egiten aunitz.
68. Norat nahi joan zaiten, kasu egin bestek zer egiten duten.
69. Garratoinak jakin gauza frango, bainan gatiak jakin gehiago.
70. Bortak hets behar denean nigar egin, ez dezan nihork jakin.
71. Apezak ahanzten bera better zelarik nola zen.
72. Ez egon horma jin beha, biltzeko sugaia.
73. Ene adixkiden adixkideak ere ene adixkideak dira.
74. Jainkoa xerkatzen duenak, atzemaiten.
75. Norat zoazan gogoan, ahanzten nondik heldu zaren.
76. Xakur erausi egile haundia, ez da ausikitzailea, bainan ona guardia.
77. Aberatsa kebratzen bada, adixkiderik etzuela orduan ohartzen.
78. Ez utzi juatera eskuko xoria, airekoen menturan.
79. Oro nahi dituenak, oro galtzen.
80. Hitz emaile haundia, emaile txarra.
81. Anitz lo egiten duenak, guti ikasten.
82. Lasterregi dohana, laster baratzen.
83. Buru txarra duenak, behar zango onak.
84. Nihork ez du aditzen bere zurrunga, bertzena ba.

85. Adixkide zoro edo ergelek askotan egiten dute etsai egiazkoek baino gehiago kalte.
86. Nihork ez du ikusten ahal zuk zer dakizun, zer egiten duzun aldiz denek.
87. Adixkide onak nahi badituzu izan, ez xerka aberatsetan, xerka pobre onetan.
88. Absolutoki nahi duenak, kasik ahal duenak baino gehio egiten.
89. Nehork ez dezake erran nungo iturriko uretik beharko duen edan.
90. Zahartasuna, erremediorik ez duen eritasuna.
91. Egiten duenak nahi duena, ez egiten beti behar dena.
92. Zerbait hitz emaiten duena edo prestatzen, arranguran da jartzen.
93. Beti galda hoberena, eta espera txarrena.
94. Ongi izaitia zoin ona zen, galduta gira ohartzen.
95. Ongia egin ahalaz beti, nori egiten den eginez kasu guti.
96. Egin zazu ongia, hura zalu ahantzia; egin zazu gaizkia, harek bizi luzia.
97. Ez egitea ongirik, hori gaizki egitea da kasik.
98. Beti irabaz, sekulan ez gal, ez da izaiten ahal.
99. Nihor ezin eskapa geroak ekarriko daukunari.
100. Interesa emaiten badu, itsusiak ere ederra iten du.
101. Amodiotan denak, baditu ere penak.
102. San Frantsesen mahaian, lauen tokian seiek jan.
103. Munduko legeak erten du: ez den gauzarik ez dela behar saldu.
104. Etxe zaharrak aunitz itaxur.

105. Gaxtoa denean errege, sobera lege.
106. Nahi duenak ongi izan, behar du zerbait arizan.
107. Hire segetiak atxikitze kotz hirekilan, ez erran nihori sekulan.
108. Zaldi onak sista guti aski.
109. Xori guzieren iduritzen bere kabia pollitena.
110. Norbait denian kuriosa, aunitz badaki gaizki edo ontsa.
111. Espantuak fruiturik ez, bakarrik loreak.
112. Eroen artean egizak eroa, bertzela erranen die hiretzat zoroa.
113. Zer nahi duen ez duenak erraiten, hura tonto hiltzen.
114. Zutan fidatzen dena, hura ez engana.
115. Ergelaren mehatxua hobe oraino, traidorearen besarka baino.
116. Ez beha nork erran duen, beha zer erran duen.
117. Urgulia eta pobrezia, elgarrekin dabilta.
118. Maite duena alferkeria, etzaio faltatzen miseria.
119. Manatu ahal dena, obedi behar dena.
120. Izan duena zaldia kitorik, ez du hortzaren miratzerik.
121. Bakotxak bere aferak, hobekienik jakin nork berak.
122. Urrea iduri dutenak ez dire oro urreak.
123. Dirurik ez eta entzuten jauna, ez da ona.
124. Ibil hadi honekin, eta izanen haiz hetarik bat.
125. Solas txar eta ergelari egin, ez entzuna iduri.
126. Hire adixkideari prestazok dirua, egin nahi baduk egin hartarik etsaia.
127. Gazteak hiltzeko lanjerra, zaharrak segurra.

128. Gezur errailea atzemana aisago maingua baino.
129. Itxurari egin kasu, aunitz enganatzen ditu eta usu.
130. Zure laudatzaile hoberenak: zure obrak.
131. Emaztekiak zure itzala iduri du: joan bazira ondotik ihes doa, ihes joan bazira gibeletik heldu.
132. Kontseilu emailea eta pagatzailea, biga dira.
133. Bertzen izartzen duzun izaria, bertzek harekin hartzen zuria.
134. Nagusiak egiten badu behar dena, langileak ez egiten nahi duena.
135. Balio badu egitia, balio du ongi egitia.
136. Ontsa eginak, beti ontsa iduri.
137. Bide txarra ez doha leku onerat.
138. Gero dionak dio bego.
139. Duena eman dienak, gehiago ez dio eman.
140. Medikiak egin huts eta makurrak, estaltzen lurrak.
141. Hasten ez denik ez da akabatzen.
142. Sakristaina zikina, eliza garbia. Sakristaina garbia, eliza zikina.
143. Jelosgoarik ez duenak batere, ez du egiatzko amodiorik ere.
144. Gauza guziak neke egiteko, aise izan aintzin.
145. Bat beha dagonean, orenak luzeago.
146. Kontseilurik ez dakienak hartzen, ez da zahartzen.
147. Alegia egiten ez badaki, bizitzen ez daki.
148. Zare bat egin dionak, egin ditio ehun.
149. Nahi duzuna erranen, nahi ez duzuna entzunen.

150. Askotan tzarrek egin eta bekatu, onek behar pagatu.
151. Zure ohea ongi ala gaizki egin, hartan behar lo egin.
152. Inorantzia gehiago eta ausartzia haundiago.
153. Behar bada ura pasatu eta dirua prestatu, ez prisatu.
154. Jateko arrainkia eta erraiteko gezurra, izan bedi beldurra.
155. Gezur erraile haundiak, ihes igortzen jendiak.
156. Usaian ez eta egiten badaizu konplimendu, nahi zaitu erosi edo saldu.
157. Txarrari barkatzen badiote, onari egiten kalte.
158. Pleitu haundia baino arranjamendu ttipia ere hobe.
159. Hitza ez duenari atxikitzen, nehor ez fidatzen.
160. Zor pagatzaile onak, diru eskasik ez du.
161. Dirua denean mintzo, oro ixil eta zintzo.
162. Diruaren gatik hartzen duenak emaztea, emaztearen mutil pasatzen du bizia.
163. Amodioz bakarrik ezkontzen direnak, izaten egun txarrak eta gauak onak.
164. Anitzen kontra doana indarka, buru gogorra duela marka.
165. Bertzeri kalte egin duena, beldur izanen duela ordaina.
166. Erreka denean haunditzen, ura zikintzen.
167. Astokeria bat ez daiteke arranja beste askoteria batez.
168. Bide laburrena ez da beti hoberena.
169. Ontsa beha eta juja hire hutsak, eta bestener behatzia utz'ak.
170. Eskapatzen den elea, ez da posible gibelerat biltzea.
171. Erreposki doana ongi doha, ongi doana urrun badoa.

172. Aunitz jabe duen behia, gaizki bazkatua eta ongi deitzia.
173. Bere buruaz dena bakarrik okupatzen, nehork ez du maitatzen.
174. Irin tzarretik ezin egin ogi onik.
175. Gizona animal klasa zarpila, arrazoina baino hobeki errespetatzen makila.
176. Ohoreak eta berinak hausteko, kolpe ttikia aski.
177. Iruzkiko erloia eta anitz adixkide: iruzki denean han dire, iruzki ez bada ez.
178. Esperentzia jakitate ona, bainan karioa.
179. Beti aberats da laboraria, geroko esperantza du saria.
180. Erotia eta koleratia, diferentzia ttipia.
181. Berri txarrak beti egia.
182. Utz'ak bazter adixkidea, jaten duena hirekin hirea eta berak berea.
183. Norat joan haiz, fortuna? Banioak dutenen ganat.
184. Nahi baduk anitz adixkide on: ikus, entzun, eta ixilik egon.
185. Adixkide ez ona eta lanputsa den ganita, galduta ere guti inporta.
186. Amorošek ez dute besten konseilurik maite.
187. Ez duk ikusi nihor goseak hila, sobera jakin bai mila.
188. Diruak bi fiteza baditu: jitea ttipian eta juaitia haundian eiten ditu.
189. Gauza debekatiak emaiten du, bestek baino gehiago tentamendu.
190. Gertatzen dena askotan: kurutzea papoan eta debrua beste guzitan.

191. Emazterik gabeko etxea, etxe hutsa.
192. Gizonak emaztea behar, eta ez du aski bakarrik pollita.
193. Lasto su, laster su.
194. Zuk zure jakitatea, laudatuago eta ttipiagoa badoa.
195. Zahar amorosa, neguan loratu arrosa.
196. Zinkorra izan balitz iruzki, berorik ere etzuen emanen nehoi.
197. Suerte ona behar xerkatu, txarra bera heldu.
198. Nork berak jakin, zapetak nun iten diñon min.
199. Aski hobe sobera baino.
200. Aise egin dirua, aise gasta.
201. Galdatziak galtzerik ez.
202. Batzuek dakitena erraiten, beste batzuek jakin zer erraiten duten.
203. Maite ez hauena ari bahaiz maitatzen, denbora ari haiz galtzen.
204. Pentsa erreposki, egin zalu.
205. Izan gazte ala zahar, ezkontzen denak etxea behar.
206. Abokat huna, auzo txarra.
207. Pobrea ez da gutxi duena, bainan aunitz nahi duena.
208. Gizon bat ez da beste bat baino gehiago, saldu egiten du gehiago.
209. Besterik ez bada, arto eta tipul ona.
210. Erran hidak hire lagunak nor diren eta badakiat nor haizen.
211. Denen adixkide denak, adixkiderik ez.
212. Orotan haundiena Jainkoa, bigarren haundiena dirua.

213. Mintzatzen guti eta gaizki aunitz erraiten.
214. Bide bazterreko fruta, hundu gabeko jana.
215. Ixilik egoiten ez dakienak, mintzatzen ez daki.
216. Tontoa da pentsatzen duena bertzek ez dutela pentsatzen.
217. Irabazirik ez den tokian, galtzea hurbil.
218. Denek manatzen duten tokian nehork ez obeditzen.
219. Gorago joanago eta erortzean erorikoa haundiago.
220. Zerbaitez ez baduzu axolarik, egon ixilic.
221. Indar haundia den tokian, dretxoak ahul.
222. Gerlan, ihizin, eta amorosgoan, plazer batentzat ehun pena eta neke.
223. Edan gabe jan eta irakurtu gabe sinatu, biak igualtsu.
224. Ohoinak uste besteak ohoinak direla.
225. Badugunean zerbait gaizki doana, pazientzia beti erremedio ona.

Aireak

Pedro Juan Etxamendy'k Xalbador bertsolariari

Liburu huntan ageri diren aire edo doinuak bi iturri dituzte: bata, Pedro Juan Etxamendy'k Euskal Herriko kanta zaharrak eta berak asmatuak solfeatuz idatzi zuan kahierra; bestea, berak etxean utzi paperak.

Berak hoinbeste kanta nundik eta nola zekien, bertso batean argi eta garbi adierazten du: «gehienak gogoz ikasiak tut lehen Eskual Herrian».

Hona kaier hori nondik nora ibili den: Xalbador zena *Odolaren mintzoa* liburua egiten ari zan. Ni haren etxerat joan nintzen batean, honela erran zidan:

–Kaier hau Ameriketatik igorri didate. Luzaideko batek egina da. Pedro Juan Etxamendy du izena. Aireak dira eta enetzat ez du balio. Har zazu zuretzat.

Nik pozik hartu nuen noski. Urrengo aireak, 74-garrenera arte, kaier hortatik hartuak dira. Handik aintzinakoak, lehen esan bezala, P. J. Etxamendy'k etxean utzi paperetarik.

Kaierraren barnean letra edo eskutitz bat aurkitu nuen, Pedro Juan Etxamendy'k Xalbador bertsolariari egina:

Barstow, Dec. 4, 1972

Adixkide Salbador:

Hemen igortzen dauzut liburuxka hau; ohitu arau izkiatu ditut zonbait aire eskualdun. Menturaz, nunbait, noizbait, zerbait ateako duzu zerbait gisetarat.

Badut zure liburu horietaik hartiak batzu ene gustokuak, eta ontsa izkiatiak zirenak; iduritzen zaut neketan artzen ziez-tela aire horien gainian zonbait aldiz. (Menturaz makur naiz).

Beste gaineatekuak gogoz ikasiak ditut, eta ontsa badira eta ez, ikasi bezala emanak ditut. Xubero-ko alderdian eta Es-

paña-ko alderdian guti ibili naiz, salbu Luzaiden. Beraz, aire horiek Luzaiden, Baxenabarren eta Lapurdiko alderdietan kantatzen diren bezalatsu dira ezarriak.

Ezarri dut aurkibidea azken azalaren barnian; eztakit deus konprendituko duzun. Lehenik, airiain numerua da; gero, airiain izena; entseatu naiz, zuzen edo makur, zerbait izen emaitat; gero, aire horiek zonbat lerrotakuak diren; hortan ere ez-tut denetan sobera kozina ona egina.

(?) Sino hau ikusiko duzun gune guzietan, sekulan horraino arribatzen baniz, eta oraino eskutan baduzu kahier au, nahi nuzke zurekin zonbat gauza diskutatu eta zuzenduik ezarri.

Huna, konparazione, “lerruak” ze nahi duan erran:

- 1 Iruñeko ferietan,
- 2 iragan San Ferminetan,
- 3 ehun zaldi arribatu Andaluziatik tropan, ha, hai.
- 4 merkatu ederra zauntan,
- 5 zaudelarik bi lerrotan.

Izanik luze ala labur, koplarekin finitzen direneri erran nahi dut lerrua.

Guk “airia” erten degunari, España-ko partian erten diote “doñua”. Kantatzen ere, aire bera diferente iten dute leku batetik besterat. Gure Eskuara triste hau ere hola da: bi herritako eskualdunek elgar ezin konprendi.

Beraz, Salvador, huntan finitzen dut ene “tarranta”. Heldu den uda hortan ikusten bauzu norbait bi makil zarrekin zure etxe ondo horietan, ez estonatu; ono jarrik espantuka artzeko on naiz, eta baso bat arnoin edateko ere ba.

Beraz, zure berrien edo zure ikusteko esperantzan, zure adixkide:

Pedro J. Echamendy».

Bertso sailen izenburuen ondotik, zein aire edo doinu dan adierazteko ondotik zenbaki bat ezartzen da. Zenbaki horrek zenbatgarren airea dan adierazten du. Ehunetik goiti aire, Etxamendy'k idatzi aireak. Horregatik bakarrik gure esker ona merezi du.

A. Z.

Barstow Dec. 4 - 1972

Pedro Etchamendy
26141 Compton St Blvd.
Barstow, Calif. 92311

Adixide Salvador

Hemen igortzen dauzut liburuetan
hau, ohitu arau iznata ditut zombait aire
Estualdun. Menturaz, nurbait, noizbait, zerbait
aitzaro duzu zerbait gisatara.

Baitut zure liburu horietak kartiak batzue
ene gustokuan, eta ontra izkiatara jironak, idur
ritzzen zait, neketa artzen ziezitela aire horien
gainan zombait aldir. (Menturaz makur naiz)

Beste gainatokuak yogoz ikasian ditut,
eta ontra badira eta ez, ikasi bezala emanak ditut.
Chubero-ko alerdiak eta Españako alerdiak gure
ilibi naiz, salbu Luzaiden. Beraz aire horiek
Luzaiden, Baxenabaren, eta Lafurdiako alerdiak
kantatzen diren bezalatsu dira ezarriak.

Ez arri dut (Aurki bidea) orizen orzala-
aren barnian, eztaut deus konprendituko duzun
lehenik (airian numeruak) gero (airian izena)
entseatu naiz, zuzen edo makur, zerbait izen emaitat.
gero aire horiek (zombait lezetan) diren.
hortan ere eztaut denetan sobora Kozina ona egina

(?) Sino hau ikusiko duzun gure guzietan, sekun-
dan horaino arribatzen baniz, eta oraino
eskutan baduzu (Cahier) hau nahiz nuzke zure^{kin}
(a sinok)

3 ombait gauza diskutatu eta zuzenduik ezarri:
4 una konparazione (Lerrua) ze nahi duan erray

- (15)
- 1 Iruñe ke ferietan (page 11) (5 lerro)
 - 2 vragan san Ferminetan
 - 3 ~~2~~ 3 ~~h~~un zaldi arribatu andaluziatik tropan - 4a-4ai
 - 4 merkaku edera zauntan
 - 5 zaudelarik bi lerroetan

izanik luze ala labur koplarekin finitzen direneri
erran nahi dut lerrua. Gur (airea) esten dugunari
Españakopartian esten diote (Donua) kantatzen
ere, aire bera diferente iten dute leku batetik besterat
Gure-Eskuara triste ~~hau~~ hau ere hola ^{da} bi herriak
eskuldunak elgar ezin konprendi.

Beraz salbador huntan finitzen
duten (tarranta). helduen Uda hortan ikusten
lauzu norbait bi makil zarrekun zure etxe
ondo horietan, ez eotonatu, ondo y arrik espantu-
ka artzeko on naitz, eta laudat arnoin edote-
ko ere ba.

Beraz zure berri-
edo zure ikusteko esperantzaz zure adixkide

Pedro J. Etxamendy

P.J. Etxamendy-k Xalbador zenari igorri letra.

Kalla kantuz ogipetik

1

A musical score for a single melodic line in treble clef. The key signature is one sharp (F#) and the time signature is 3/4. The score consists of seven staves of music. The first staff begins with a treble clef, a sharp sign, and the time signature 3/4. The melody is written in a simple, folk-like style with various note values including quarter, eighth, and half notes, as well as rests. There are several slurs and ties used throughout the piece. The piece concludes with a double bar line at the end of the seventh staff.

Mehetegiko xakurra

2



3



Orziraletan duzu

Allegro


4

Musical score for "Orziraletan duzu" in 3/4 time, Allegro tempo. The score consists of five staves of music in treble clef. The first staff begins with a treble clef, a 3/4 time signature, and a key signature of one flat (B-flat). The music is written in a single melodic line. The first staff contains 8 measures. The second staff contains 8 measures. The third staff contains 8 measures. The fourth staff contains 8 measures. The fifth staff contains 8 measures and ends with a double bar line. The tempo is marked "Allegro".

Dama gazte xarmant bat

Presto

5




la, la...

6



Bidarraitarra

Lento



Kennedy

Presto

8



Donostiako hiru damatxo

Presto

9

Musical score for 'Donostiako hiru damatxo' in 3/4 time, marked Presto. The score consists of five staves of music. The key signature has two flats (B-flat and E-flat). The melody is written in a single voice line. The first staff begins with a treble clef and a key signature of two flats. The music features a mix of eighth and quarter notes, with some rests. The piece concludes with a double bar line.

Yeiki, yeiki etxequak

Lento

10

Musical score for 'Yeiki, yeiki etxequak' in 3/4 time, marked Lento. The score consists of four staves of music. The key signature has two flats (B-flat and E-flat). The melody is written in a single voice line. The first staff begins with a treble clef and a key signature of two flats. The music features a mix of eighth and quarter notes, with some rests. The piece concludes with a double bar line. There are two 'bis' markings above the second and fourth staves, indicating repeat signs.


Moderato

11

The musical score is written on six staves in treble clef, key of D major (two sharps), and common time. The tempo is marked 'Moderato'. The score begins at measure 11. The first staff contains a quarter rest followed by a series of eighth and sixteenth notes. The second staff continues the melodic line with similar rhythmic patterns. The third staff shows a more active melodic line with eighth and sixteenth notes. The fourth staff features a mix of eighth and sixteenth notes with some rests. The fifth staff continues the melodic development. The sixth staff begins with a 'bis' marking above the first measure, indicated by a dashed line extending to the end of the sixth measure. The music concludes with a whole note chord.


Lili bat ikusi dut baratza...

Moderato



Urzo xuria errazu



Allegro



Sotoko oporra

Allegro

14



Iruñeko ferietan

Moderato

15



Ollanda gazte...

Moderato

16

Musical score for 'Ollanda gazte...' in G major, 2/4 time, Moderato. The score consists of five staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 2/4 time signature. The melody is characterized by eighth and sixteenth notes, with frequent rests. The piece concludes with a double bar line.

Izan niz Barkoxen

Moderato



17

Musical score for 'Izan niz Barkoxen' in B-flat major, 2/4 time, Moderato. The score consists of four staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of two flats (Bb and Eb), and a 2/4 time signature. The melody features a mix of quarter, eighth, and sixteenth notes, with several rests. The piece ends with a double bar line.

Ikusten duzu goizian

Moderato

18



Salamankarat nindoalarik

Presto

19

Musical score for 'Salamankarat nindoalarik' in 3/4 time, marked Presto. The score consists of five staves of music in a single system. The key signature has one flat (B-flat). The melody is written in a treble clef and features a mix of eighth and sixteenth notes, with some rests and a final double bar line.

Norat nahi yuan nadin

Andante

20

Musical score for 'Norat nahi yuan nadin' in 2/4 time, marked Andante. The score consists of four staves of music in a single system. The key signature has two flats (B-flat and E-flat). The melody is written in a treble clef and features a mix of quarter and eighth notes, with some rests and a final double bar line.

Oxalde-ta Etchahun

Moderato

21

Musical score for 'Oxalde-ta Etchahun' starting at measure 21. It consists of four staves of music in G major and 2/4 time. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 2/4 time signature. The music features a mix of eighth and sixteenth notes, with some beamed eighth notes and quarter notes. The piece concludes with a double bar line at the end of the fourth staff.

Lukas

Moderato

22

Musical score for 'Lukas' starting at measure 22. It consists of four staves of music in G major and 2/4 time. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 2/4 time signature. The music features a mix of eighth and sixteenth notes, with some beamed eighth notes and quarter notes. The piece concludes with a double bar line at the end of the fourth staff.

Ohikua nüzü

Largo

23

musical score for *Ohikua nüzü*, Largo, 6/8 time signature. The score consists of five staves of music in a single system. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 6/8 time signature. The music is written in a single melodic line. The second staff contains a measure with a "bis" marking above it, indicated by a dashed line. The third staff contains a measure with a dashed line above it. The fourth staff continues the melodic line. The fifth staff contains a measure with a "bis" marking above it, indicated by a dashed line, and ends with a double bar line and repeat dots.

Ezpelletz herrian

Moderato

24

5

Herriko besta bihamunian


Allegro moderato

25  The first staff of music for 'Herriko besta bihamunian' begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a common time signature (C). The melody starts with a quarter rest, followed by a series of eighth notes: G4, A4, Bb4, C5, Bb4, A4, G4. This is followed by a quarter rest, then a half note G4, and another quarter rest. The staff concludes with a series of eighth notes: G4, A4, Bb4, C5, Bb4, A4, G4.

